

Zu hemen zaude. goiena



SOINU URBANOEN ETA PUNK-ROCKAREN TOPAGUNE

Egurhotza-k lekukoa pasatu dio Mondra&Roll jaialdiari. Mutiko, Etxepe, J. Martina eta abar izan ziren atzo protagonistak Arrasaten, Monterronen. Gaur eta bihar, besteak beste, Cock Sparrer, Brigade Loco, Roy Ellis eta Kontralde ariko dira Mondra&Rollen / 34

Mutiko eta Etxepe atzo, Egurhotza jaialdian, Arrasaten, Monterron parkean. XABIER URTZELAI ATXA

Mara San Jose ume arrasatearrak duen Batten gaixotasun arraroari irtenbidea aurkitu guran / 8

Gipuzkoako Batzar Nagusiek bilkura egin dute asteon Arrasaten, historian hirugarrenez / 03



Ruiz de Azua arrasatearra eta Calbano bergararra, atletismoan lortutako urrez gozaten / 32



ARAMAIOKO SAN MARTIN JAIK / 14

SINADURAK

	IGOR ARIZMENDIARRIETA / 6
	ENERITZ URRUTIA / 8
	MIKEL GOENAGA / 21
	AINHOA SEMPER GENJA / 29
	AINTZANE OIARBIDE / 40



Miguel Okina, margolari nekazaria

Jon Etxeberriari elkarrizketa (kerlan)

MERKEALDIA

2 MÓ 189€

lehen 229€
erreflexuen aurkako
betaurreko progresiboak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

R.P.S. 9/1/20



MULTIÓPTICAS

943 79 29 95
Otalora Lizentziaduna, 18
ARRASATE

943 76 15 75
Ibargarai, 16
BERGARA

www.multiópticas.com



eskatu hitzordua



Gontzal Belategi Zubia DEBAGOIENA

Izan Nafarroan egin den azkenengo Polo urdin horregatik edo Txinan egindako automobil elektrikoei Europak jarritako muga-zergengatik, ibilgailuak albiste dira Euskal Herrian zein nazioartean. Hori jakinda, komenigarri izan liteke Debagoiengan ibilgailuek bizi duten egoera aztertzea; betiere, datu ofizialetatik tiratuta. Egunerokotasunean ikusten dira ibilgailuak aurrera eta atzera ibarreko errepideetan, edo zuzenean nor bere burua ikusten du ibilgailu baten barruan. Egunerokotasunean ikusten den hori datueta-ara ekarrita, Espainiako Trafiko Zuzendaritzaren arabera Debagoiengan 43.593 ibilgailu daude. Ez da datu makala, 100 pertsonako 67,98 ibilgailu daudela esan nahi du eta.

Ibilgailu kopurua herrika

Normala den moduan, ibilgailu kopurua eta biztanle kopurua estuki lotuta dauden bi datu dira. Ibilgailu kantitatearen arabera, honako hurrenkera honetan daude Debagoieneko herriak, txikitik handira ordenatuta: Leintz Gatzaga (209 ibilgailu), Elgeta (1.022 ibilgailu), Aramaio (1.239 ibilgailu), Antzuola (1.530 ibilgailu), Eskoriatza (3.109 ibilgailu), Aretxabaleta (4.523 ibilgailu), Oñati (8.089 ibilgailu), Bergara (10.121 ibilgailu) eta, amaitzeko, Arrasate (13.751 ibilgailu).

Hala ere, herrikako ibilgailuen datuak 100 pertsonako kalkulatu gero, kontua aldatu egiten da. 100 pertsonako ibilgailu gehien dituen herria Leintz Gatzaga da, 100 biztanleko 100 ibilgailurekin. Jarraian, Elgeta (93,25), eta Aramaio (85,86) dira. Kontrara, 100 biztanleko ibilgailu gutxien dituzten hiru herriak Aretxabaleta (63,13), Arrasate (63,39) eta Bergara (68,67) dira. Datu horietatik ondorioztatu daiteke herri txikiak direla ibilgailuen behar handiena izaten duten herriak; akaso, garraio publikoak herri horietan duen presentzia urriari lotuta.

Furgonetak

Azken urteetan ohiko elementu bilakatzen dabilta furgonetak; hein batean, kanperizazioaren fenomenoarekin lotuta. Datuei erreparatuta, Debagoiengan, osotara, 3.483 furgoneta daude. 100 pertsonako perspektiban



Kanperizatutako furgoneta bat, Oñatin.

Furgonetak herrika

Herria	Furgonetak
Oñati	1.017
Arrasate	831
Bergara	650
Eskoriatza	322
Aretxabaleta	290
Aramaio	140
Antzuola	113
Elgeta	83
Leintz Gatzaga	37
Debagoiena	3.483

ITURRIA: TRAFIKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Oñati, furgonetan dabilen herria

Oñati da Debagoien osoan furgoneta gehien dituen herria. Ibilgailuak, guztira, 43.593 dira eskualdean; alegia, 100 pertsonako 67,98 ibilgailu daude. Zergei dagokienez, berriz, Bergara da Gipuzkoan zerga garestienak dituen herria

Ibilgailuak Debagoiengan motaren arabera

Debagoiengan guztira 43.593 ibilgailu dauden arren, ibilgailu guztiak ez dira gisa berekoak. Esperotekoa den moduan, kopuru horretan gehienak turismoak dira. Guztira, 31.583 turismo daude ibarrean. Turismoen ostean furgonetak eta motorrak daude, nahiko antzerako zifretan: furgonetak 3.483 dira eta motorrak, hamar gutxiago, 3.473. Laugarren postuan 3.500 kilo baino gutxiagoko kamioiak daude; horiek, guztira, 1.933 dira. Azkenik, bestelako ibilgailuak daude sailkatuta. Lehen lau sailkapenetan sartzen ez diren 3.121 ibilgailu daude Debagoien osoan. Ibilgailu horien artean denetarik dago, baina gehienak dira autobusak, 3.500 kilo baino gehiagoko kamioiak, ziklotomotorrak, atoiak, semiatoiak eta traktore industrialak, nahiz eta gehiago ere egon daitezkeen.



Turismoak
31.583



Furgonetak
3.483



Motorrak
3.473



Kamioiak
1.933



BESTEAK
3.121

jarrita, aldiz, 5,42 furgoneta daude eskualde guztian.

Herrika aztertuta, bitxikeria nabarmenena Oñatin dagoen furgoneta kopuru handia da: 1.017. Oñatik nabarmen gaintzen ditu bera baino handiagoak diren herrien datuak. Arrasaten, adibidez, 831 furgoneta daude eta Bergaran, 650.

100 biztanleko proportzioan, berri, Oñati atzean gelditzen da bera baino herri txikiago batzuekin alderatuta. Leintz Gatzaga da 100 biztanleko furgoneta gehien dituen herria: 17,7, zehazki. Haren atzetik daude Aramaio, 9,7 furgonetarekin, eta Oñati, 8,84 furgonetarekin. Proportzioan furgoneta gutxien dituen herria Arrasate da, 100 biztanleko 3,83 furgonetarekin. Jarraian daude Aretxabaleta, 4,04 furgonetarekin, eta Bergara, berriz, 4,41ekin.

Erregai fosilak nagusi

Motor eta erregai motaren arabera, Debagoieneko turismo gehienek erregai fosilak erabiltzen dituzte, alde nabarmenarekin. Ibarreko automobil gehienek diesel bidez funtzionatzen dute; 18.399 automobilek, zehazki. Bigarren postuan gasolinazko autoak daude. Horiek 13.002 dira, guztira, Debagoiengan. Auto elektrikoek ez dute arrakasta nabarmenik izan, momentuz, eta 98 bakarrik dabilta bertako errepideetan barrena. Azkenik, bestelako erregaiak behar dituzten turismoak 94 dira.

Zergak

Ibilgailu bat edukitzeak beti dakartza gastuak jabearentzat. Gastu horietako bat Udalarari urtero ordaindu beharreko traktzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga da. Hori ibilgailu bakoitzaren zaldi edo potentzia fiskalaren baitan ordaintzen da. Zaldi fiskala autoaren ezaugarri konkretu batzuk zerrendatu eta kopuruak formula matematiko baten sartuta kalkulatzen da.

Zaldi fiskalen arabera kopuru bat edo beste bat ordaindu behar da. Gipuzkoan, ordaindu beharrekoa udalek erabakitzen dute, Foru Aldundiak jarritako oinarritzko irizpide batzuk jarraituta. Donostia da zerga gehien ordainarazten dituen hiriburua, baina Debagoiengan badira Donostia baino herri garestiagoak. Gipuzkoa osoan zerga gehien ordainarazten duen herria, adibidez, Bergara da. 9 zaldi fiskal baino gutxiagoko ibilgailuek 51,8 euro ordaindu behar dituzte; 9 eta 11,99 zaldi fiskalen artean daudenek, 103,65 euro; eta 12-13,99 artekoek, 172,75 euro.

Debagoieneko zerga merkeena Leintz Gatzagan dago. 40,58 euro ordaindu behar dute 9 zaldi fiskal baino gutxiagoko ibilgailuek. 9 eta 11,99 artean daudenek, 81,28 euro; eta 12 eta 13,99 zaldi fiskalen artean daudenek, 135,38 euro.

Datu horiek Debagoieneko zati gipuzkoarrari buruz dira, baina Aramaio, Araba izanik, zerga merkeenak dituen herria da.

GIPUZKOAN BERGARA DA IBILGAILUENGATIK ZERGA GEHIEN ORDAINDU BEHARRA DAGOEN HERRIA

Batzar Nagusien osoko bilkura izan da Arrasaten

Martitzenean egin zuten Gipuzkoako Batzar Nagusien osoko bilkura ibiltaria, Arrasaten. Bertan, batzarrean ordezkariak duten alderdi guztietako kideak izan ziren. Herrian gisa horretako ekitaldi bat egiten den hirugarren aldian izan da

Gontzal Belategi Zubia ARRASATE

Apirilean Leintz Gatzagan egin ostean, ibarrean bigarren egin dute aurten Gipuzkoako Batzar Nagusien osoko bilkura ibiltaria; kasu honetan, Arrasaten.

Maider Morras alkateak eta udalbatzak Xabier Ezeizabarrena Batzar Nagusietako lehendakariari, mahaikideei eta Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusiari eginiko harrerarekin hasi zen ekitaldia, udaletxe kanpoan. Lehen harreraren ostean, dantzarien harrera eta zumitzezko uztai ematea etorri ziren. Klarinek Gipuzkoako ereserkia jo ahalaz bat sartu ziren udaletxe barrura, mazadunak aurretik zihozazela. Bertan, lehendakariak, diputatu nagusiak eta alkateak ohorezko liburuan sinatu zuten batzarren aurretik.

Hirugarren aldian

Ez da herrian gisa horretako ekitaldi bat jasotzen duten lehen aldian. Aste honetako hirugarrena izan da. 1979an izan zen lehen aldian, Jose Antonio Ardantza alkate zela, eta 2001ean bigarrena, Xabier Zubizarreta Txiron alkate zen garaian.

1979koak berebiziko garrantzia izan zuten, Foruen aboliziotik mende bat baino gehiago igaro ostean Batzar Nagusiak biltzen ziren lehen aldian izan zelako. Ezeizabarrenak adierazi zuen "1876ko irailean Batzar Nagusiak hurrena Arrasaten biltzekotan geratu" zirela, baina haien desagerpenaren eraginez ezin izan zutela hitza bete. "Orain ia mende erdia herri honen agintea hartu zutenek ez zuten aliriztira aukeratu Arrasate. Bazekiten mende bat etenda egon zela gizaldiz gizaldi zetorren katea, eta Arrasaten egitekotan geratu ziren Batzar Nagusiak; hortaz, 103 urteren buruan, Batzar Nagusiak Arrasaten berreskuratzea erabaki zuten biltzarrean ziren alderdiek", jarraitu zuen.



Arrasateko eta Gipuzkoako agintariak Arrasateko udaletxe aurrean, martitzenean. GOIENA

BATZAR NAGUSIEN OSOKO BILKURA BAT ARRASATEN EGITEN DEN HIRUGARREN ALDIA IZAN DA

Morrasek ere egin zion erreferentzia datu horri: "Arrasate momentu historiko haren lekuko izan zen. Atzo, gaur eta bihar, Arrasate harrera-herria izango da gipuzkoar guztiontzat".

Elkarlanaren beharra

Elkarlanean jarduteko beharra azpimarratu zuen Morrasek, erronkei aurre egin ahal izateko. Debagoiena tokiko garapenean "aitzindaria" dela gaineratu zuen, eta "desindustrializazio garai honetan, erronka berrietara egokitutako industria eta enpresa ereduaren alde jardun" behar dutela: "Debagoienetik hamarkadatan pilotutako jakintza guztia hartu eta Gipuzkoari gure ekarpena egiteko prest gaude". Hala ere, alkatearen ustez, hori guztia bakarrik edo elkarri bizkarra emanda egitea ez da posible izango.

Ezeizabarrenak, bide beretik, esan zuen "lehia politiko zentzuzko bat bilatzea" izan behar dela helburua. Alderdien nortasunari egin zion erreferentzia, baina baita garrantzizko gaietan ados jartzeari ere: "Ez dago benetako eztabaidarik, nortasunik gabe. Bakoitzak bera den horretatik hitz egin behar du, bere nortasunarekin negoziatu eta ados jarri besteekin. Politika handian eta egunerokoan".

Euskara eta estatus politikoa

Ezeizabarrenak euskararen gaia ere jorratu zuen, "azken 40 urteetan ikusi gabeko epaiak direla eta". Batzar Nagusietako lehendakariaren ustez, "herriaren muienean" dagoen zerbait da euskara, eta errespetua eskatu zuen euskara hizkuntza ofiziala izateko hartutako erabaki politikoari.

Estatus politikoa erreferentzia eginez bukatu zituzten hitzartzeak. "Gure erabakien jabe izateko estatuz berri baten beharra" aldarrikatu zuen Morrasek; eta "herri honen estatus politikoa aske eta demokratikoki erabakitzeko, hitza gipuzkoarrek eta gainerako euskal herritarrek izatea" adierazi Ezeizabarrenak.



Boluntario bat Parte Hartuz programako erabiltzaileekin oporretan. ATZEGI

Boluntarioak behar ditu Atzegik udako opor-programetarako

Parte Hartze eta Txolarte opor-programak aurrera eraman ahal izateko boluntarioak behar ditu Atzegik

G.B.Z. DEBAGOIENA

Urtero moduan, Parte Hartze eta Txolarte izeneko opor-programak jarri ditu martxan Atzegik; adimen desgaitasuna duten pertsonak oporretan joan ahal izatea bermatzen duten programak. Parte Hartze-ko erabiltzaileek Cambrils, Salou, Lloret de Mar, Jaca, Isla, Iruñea, Comarruga, Galiziako zirkuitua eta Andaluziako zirkuitua izan dituzte oporretan joateko aukera gisa. Txolarte programatik, berriz, Debagoieneko hiru kuadrilla joango dira oporretan: bat Saloura eta bi Cambrilsera.

Boluntario beharra

"369 partaide animatu dira bi programen artean, eta, gure ratioen arabera, 87 boluntario behar ditugu", azaldu du Olatz Mirandak, Aisialdi eta Parte Hartze Zerbitzuko teknikariak. "Oraindik hamabost bat boluntario falta zaizkigu", gaineratu du. Boluntario izateko dei egin du Mirandak: "Boluntarioen prestutasun eta laguntzarik gabe ezin ditugu horrelako ekimenak aurrera eraman". Izena emateko nahikoa da 943-42 39 42 telefono-zenbakira deitu eta boluntario izateko interesa adieraztea.

Irati Jimenez da Olaso Dorrea Fundazioko lehendakari berria

Iratxe Esnaolak pasatuko dio lekukoa Jimenezi. Maite Aristegi bergararra izango da lehendakariorde berria

G.B.Z. BERGARA

Olaso Dorrea Fundazioak sare sozialen bidez iragarri du Irati Jimenez idazle eta kultur gilea izango dela hemendik aurrera fundazioko lehendakaria. Idazle mundakarra urte luzez ibili da fundazioko patronatukide gisa, eta orain lehendakari funtzioak beteko ditu, patronatu bilkurak hala erabakita. Zoriontzeaz gain, fundazioak eskerrak eman nahi izan dizkio Jimenezi, kargua onartzeko erakutsi duen "konpromiso eta esku zabaltasunagatik".

Hain zuzen ere, Iratxe Esnaola lehendakari ohiak Jimenezi pasako dio lekukoa, sei urtez karguan izan ostean. Gustura daude fundazioko kideak zarautarraren "6 urteko konpromiso eta lan izugarriagatik". Hala ere, Esnaolak Olaso Dorrea lotuta jarraituko du, patronatukide eta Telesforo Monzon eLabeko laborategikide.

Ez da izan fundazioak iragarri duen aldaketa bakarra; lehendakariorde berria ere izendatu du patronatu bilkurak: Maite Aristegi nekazari bergararra.



Jon Sarasua, Eider Mendoza, Andres Urrutia eta Nuria Agirre, prentsaurrekoan. EUSKALTZAINDIA

Euskararen etorkizuna ardatz duen argitalpena

'Euskararen gogoetagunea' aurkeztu du asteon Donostian Euskaltzaindiak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Laboral Kutxarekin batera. 2022tik gaur egunera arteko proiektu baten emaitzetako bat da, eta koordinatzailea Jon Sarasua izan da

Iñigo Barrena DEBAGOIENA

2022an aurkeztu zuen Euskararen Akademiak Euskararen Gogoetagunea proiektua, eta, orduetik, Euskaltzaindiaren Jagon Saila arduratu da egitasmoaz; hizkuntza komunitatearen diagnostikorik finenak eta pentsa-biderik onenak arragoa batera biltzea da helburua. Hala, bi urteko ibilbide honetan egindako lanaren emaitza, *Euskararen gogoetagunea*, argitalpena aurkeztu dute, Donostian, Euskaltzaindiak Foru Aldundiarekin eta Laboral Kutxarekin batera.

Duela bi urte abian jarritako proiektuaren koordinatzailea Jon Sarasua izan da eta argitalpena dagoeneko euskararen etorkizunera begira dagoela dio: "Euskararen etorkizun-ikuspegi artikulatua osatzeko ariketan pausoak eman ditu *Euskararen gogoetagunea*-k 2022tik hona. Abiapuntuko bi ponentzia landu, kontrastatu eta argitaratu ditu: alde batetik, egoeraren ponentzia; eta bestetik, berriz, etorki-

zun-ikuspegiaren ponentzia sintetikoa". Hain justu, Olatz Altunak eta Jon Aizpuruak landu dute Sarasuak aipatutako lehen ponentzia: *Euskararen egoera soziolinguistikoa: ikuspegi orokorra*; bigarrena, berriz, Sarasuak berak ondutakoa da: *Euskararen etorkizun-ikuspegia*.

Proiektu gehiago

Bi urteotan eginikoa argitalpenan txertatu dute, eta Sarasuak beste proiektu batzuk ere iragarri ditu: "Ponentzia sintetiko honen ondoren, beronetan aipatzen diren arlo eta adarren garapena egiten duten ponentziak martxan dira: batzuk jadanik landuak eta kontrastatuak, eta beste batzuk, lantze-bidean".

BI PONENTZIEZ GAIN, BESTE PROIEKTU BATZUK ERE IRAGARRI DITUZTE ETORKIZUNERAKO

Zehazki, dio landuta dituztela administrazioaren, hedabideen eta helduen euskalduntzearen etorkizun-ikuspegiari buruzko txostenak, eta haiek osatuko dutela hurrengo argitalpena. "Horiekin batera, beste arlo batzuetako ponentziak abiatuta daude, arlo horietako adituen eskutik", adierazi du Sarasuak.

Erakundeen konpromisoa

Argitalpenaren aurkezpenean izan zen, besteak beste, Eider Mendoza, Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusia. Mendozak dio Euskararen biziberritze prozesuan "lehen mailako garrantzia" duela espazio horrek. Andres Urrutia euskaltzainburuak, berriz, gogoratu zuen Euskaltzaindiaren zereginetako bat dela "euskara jagotea eta aitzinatzea. Azkenik, Nuria Agirre Laboral Kutxako Pertsona eta Baliabideen Saileko zuzendariak azpimarratu zuen "euskarak elkarlanerako beste aukera bat" ematen diola erakundeari.

Goienak eta Eusko Ikaskuntzak hitzarmena sinatu dute

Debagoiengan interesekoak diren gaiak sakontasunez lantzeko eta ezagutza partekatzeko helburua du

I.B.K. DEBAGOIENA

Datozen bost urteetarako lankidetzeta-hitzarmena sinatu dute Goiena Komunikazio Taldeak eta Eusko Ikaskuntzak, Debagoiengan interesa piztu dezakeen gaiak "sakontasunez lantzeko eta ezagutza partekatzeko" eta, aldi berean, Goienak Eusko Ikaskuntzak bultzatutako egitasmoen berri "informazio zehatzagoa" emateko. Monika Belastegi Goiena Komunikazio Taldeko lehendakariak eta Ana Urkiza Eusko Ikaskuntzakoak sinatu dute hitzarmena, Goienaren egoitzan, eta jasotako konpromisoen betetze maila aztertuko dute urtero.

Urkizaren hitzetan, Goienak aukera izango du Eusko Ikaskuntzako landutakoak debagoiendarren artean zabaltzeko eta "bide errazagoan" bideratzeko: "Erakundeak egiten dituen proiektuak eta, batez ere, euskal kulturaren transmisio hori herritarrengana modu zuzen, hurbil eta erabatekoan egiteko bidea da". Belastegik, berriz, azpimarratu du Goienarentzat "abergarria" dela horrelako elkarlan-esparru bat sinatzea, Goienak eskura izango dituelako Eusko

Ikaskuntzak landutako gaiak bere edukietan txertatzeko; eta bestetik, erakundearen funtsak ere erabilgarri izango dituelako: "Jakinekoa da, ezta? Eusko Ikaskuntzak ondare oso garrantzitsua du, hainbat dokumentazio-funts kudeatzen ditu, eta horiek erabiltzeko aukera izango dugu, Debagoienarentzat interesgarria den heinean".

Goiena babesle

Erakundearen eta komunikazio taldearen hitzarmen horretan Goienak ere Eusko Ikaskuntzari laguntza emango dio hainbat esparrutan. Esaterako, urriaren 2an, 3an eta 4an, *Herri itunak jendartearen eta lurraldearen kohesiorako* izenpean, Gasteizen egingo duten Eusko Ikaskuntzaren hemeretzigarren kongresuaren berri ematea eta babesle izatea izango da Goienaren arduruetako bat, eta Belastegik dio "indar berezia" jarriko duela Goienak horretan. Hitzarmenak bost urte iraungo du, eta urtean behin bilduko da jarraipen batzorde bat, hitzarmenean jasotako konpromisoen beharrak identifikatzeko eta betetze maila ziurtatzeko.



MIGUEL ANGEL ELKOROBEBIZIBAR

Adiskideen Elkartea handitzen

Jesus Mari Lazkano bergarra Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kide izendatu zuten astelehenean. Donostiako San Telmo museoan egin zuen sarrera-hitzaldia, eta, aurrerantzean, Jose Antonio Aperribai, Valen Moñux eta Miguel Angel Elkorobezibarrek batera, laugarren bergarar bat egongo da Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen barruan.

Migrazio-itun berria izan dute hizketagai Oñatin

Joan den abenduan onartu zen migrazio-itun berria, eta horren ondorioei buruzko hitzaldia egin zuten martitzenean, Oñatin, 'Aita Mari' erreskate-ontziko kapitain Iñigo Mijangosek eta Itsas Salbamendu Humanitarioko kide Amaia Iguaranek

Iñigo Barrena OÑATI

2023ko abenduaren 20an, Europako Batasuneko Migraziorako eta Asilorako Itunari oniritzia eman zioten Europako Kontseiluak eta Europako Parlamentuak. Bost araudi berri eta lau legedi biltzen ditu erreformak, eta, hein handi batean, estatukideei bide emango die migratzaileen asilo eskubidea murrizteko. Pixkanaka ari dira hor adostutakoa martxan jartzen, eta 2026rako ezarrita egotea espero dute. Itun berriari buruz jardun zuten martitzenean, Oñatin, *Aita Mari* erreskate-ontziko kapitain Iñigo Mijangosek eta Itsas Salbamendu Humanitarioko kide Amaia Iguaranek.

Mijangosek azaldu zuen itun berri horrekin errefuxiatu eta migranteek zailtasun gehiago izango dituztela Europako Batasuneko lurraldeetan sartzeko eta babes internazionala eskuratzeko egin dituzten eskaerak bideratzeko; era berean, herrial-



Iñigo Mijangos eta Amaia Iguaran, ULMA taldearen egoitzan Oñatin. IDOIA ARANBARRI

deek eskubideen urraketak areagotzeko aukera izango dutela ere gaineratu zuen. Horrez gain, orain arte egin diren praktika txarrak berresteko balioko dela ere uste du: "Jardunbide txar horiek bide ematen diete migra-

tzaileen eta errefuxiatuen aurkako indarkeriari, Europako Batasunarekin muga egiten duten hirugarren herrialdeetan pilotzeari, kanporatzeko erraztasunari... Gauza horiek egiten ziren orain arte, baina orain

ondorio praktiko gutxi izango ditu. Legezkoa izango den legez-esparrua finkatzen du".

Zaugarritasuna areagotu

Europako Kontseiluak eta Europako Parlamentuak onartutako itun berriak herrialdeei giza eskubideen urraketak egiteko aukera zabalagoa ematearekin batera, pertsona migrante eta errefuxiatuen zaugarritasuna areagotzea ekarriko du, hain zuzen, eurak baitira ondorio horiek gehien pairatuko dituztenak. "Itun honek errefuxiatu eta migrantei orain arte izan eta errekonozitu zaien eskubide urriak ere kendu egingo dizkie, eta zaugarriago bihurtu. Adibidez, pertsona bat Schengen lurraldean, Europako Batasuneko lurralde batean, edozein unetan sartu bada modu irregularrean, nahiz eta sartu zenetik bi urte igaro diren atxilotzen badute, berehala kanporatu ahal izango dute, izapide azkarrik gabe. Orain arte hori ezin zen legez egin", adierazi zuen Mijangosek.

Giza eskubideen defentsa

Itun berriarekin egon daitezkeen onuradunei buruz galdetuta, Mijangosek dio zenbait arlo izango direla: "Mugen sekularizazio horrek zaintzaren eta erreminta militar edo polizialen merkaturia errazten du, migrazioaren murrizte nahi horretan". Hain zuzen, horren harira, gaineratu zuen *Aita Mari*-tik argi

defendatzen dutela Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 19. artikulua. "Migratzeko eskubidea eta non bizi nahi duzun aukeratzeko eskubideak izatea eskubide unibertsalen gutunean errekonozitutako eskubideak dira, eta guk hori defendatzen dugu. Gauzek erregulatuta egon behar dute, baina legezko bideak daude eskubide hori gauzatzeko", adierazi zuen *Aita Mari*-ko kapitainak.

'Aita Mari' berriz itsasoan

Migrazio-itun berria bere bidea egiten ari den bitartean, *Aita Mari* ontziak lanean jarraitzen du eta dagoeneko hamahirugarren misioa egiteko bidean da. Une honetan, *Aita Mari* erreskate ontzia Sirakusara (Sizilia) bidean da. Uztaillaren 9rako iristea aurreikusten dute. "Eguraldiari begira ari gara, ea Portugaldik jaisteko moduan gauden edo ez jakiteko. Dena dela, *Aita Mari*-ren asmoa egun batzuk barru Sirakusan egotea da, eta, nola ez, bidean gelditu eta egoera zailan dagoen ontzirik ikusten badugu, prest gaude hari ere laguntza emateko", aitortu du Iñigo Mijangosek.

2023KO ABENDUAN ONARTU ZUTEN ITUN BERRIA ETA 2026RAKO EZARRITA EGOTEA GURA DUTE

Alberto Alonso izango da Gogorako zuzendari berria

Politikari oñatiarrak bederatzi urtez zuzendari lanetan aritu den Aintzane Ezenarro ordezkatu du

I.B.K. BERGARA

Alberto Alonso politikari oñatiarra izango da aurrerantzean Gogorako zuzendari berria. Bederatzi urte dira Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortu zela, eta ordutik Aintzane Ezenarro ibili da zuzendari lanetan; orain, Alonsok hartuko dio lekukoa. Imanol Pradales lehendakari izango duen legealdi hau iritsi arte, azken hiru legegaldietan, EAJrenak izan dira memoriari lotutako karguak, baina, koalizio berria osatu ostean, PSE-EEK



Alberto Alonso. IÑIGO BARRENA

hartuko ditu kargu horiek; hori da Alberto Alonso zuzendari izendatzearen arrazoietakoa bat. Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan Arabako zerrendetan aurkeztu zen eta legebiltzarkide moduan hautatua izan zen Alonso; hala, gaur-gaurkoz, bertan duen tokia utzi beharko du politikari oñatiarrak eta beste parlamentari sozialista batek hartuko du haren lekua.

Alderdi Sozialistako kidea 2016 eta 2020. urteen artean Osalaneko (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) zuzendaria izan zen, eta, era berean, 2019ko eta 2023ko udal hauteskundeetan Bergarako PSE-EEren alkategai. Hain zuzen ere, gaur egun Bergarako Udalean sozialisten bozemailea izaten jarraitzen du Alberto Alonsok.

Aldaketa oso txikiak ekaineko langabezia datuetan

Maiatzeko datuekin alderatuta, azken hilabetean zazpi langabe gehiago zenbatu dira Debagoiengan

I.B.K. DEBAGOIENA

Gipuzkoako Lan Behategiak emandako datuen arabera, ekainean 2.243 langabe zenbatu dira Debagoiengan, maiatzean baino zazpi langabe gehiago; langabezia-tasari dagokionez, beraz, %7,35ekoa da. Herrietako egoerari dagokionez, lautan egin du gora langabeen kopuruak aurreko hilabetearekin alderatuz gero: Antzuolan 54 pertsona (+5); Aretxabaletan, 193 (+7); Bergaran, 479 (+3); eta Oñatin, 314 (+12). Arrasaten behera egin du: 1.023 langabe daude, maiatzean baino

hogei gutxiago; gainontzeko herrietan ez da gorabeherarik izan. Langabezia-tasari erreparatuz gero, Arrasaten dago handiena: %10,25ekoa da. Ondoren, hurrenez hurren, honako hau da egoera: Eskoriatzan %7,28koa; Bergaran, %6,73koa; Oñatin, %5,80koa; Aretxabaletan, %5,62koa; Elgetan, %5,02koa; eta Antzuolan, %4,99koa. Armaion eta Leintz Gatzagan, aldiz, ez da jakinekora zenbatekoa den; izan ere, bost langabe baino gutxiago direnean ez dute datu zehatzik ematen.



ZABALIK

IGOR ARIZMENDIARRIETA

Gelditu dezagun denbora

Azken urteetan, denbora azkarrago igarotzen zaidan ustea dut. Urteetan aurrera joan ahala, laburragoak egiten zaizkit egunak, asteak, hilabeteak eta urtaroak. Asteburuak instant batean igarotzen zaizkit. Ostiralean, aurretik mundu oso bat dudala iruditzen zait, eta, konturatu orduko, astelehena da eta lantokiko nire postuan nago. Asteko lanegunak ere tankera berean, bata bestearen ostean arrapalan doaz. Oporretara noanean berdin: etxetik atera aurretik, egun asko ditudala iruditzen zait, eta, konturatu orduko, bueltan nago herrian. Zuei ere halakorik gertatzen zaizue?

Denbora azkar pasatzearen arrazoiez Googleri galdetu beharrean adimen artifizialari (IA) galdetzea erabaki dut. IA nire izen-abizenen lehendabiziko hizkiak izan zitezkeen,

NON GERATU DA ESFORTZUA, INFORMAZIO AUKERAKETA ETA HAUSNARKETA?

Zergatik pasatzen zaigu denbora hain azkar? Hona GPTren erantzunak: eguneroko jarduera errepikakorregatik, errutinagatik, zerbaitez gozatzen ari garelako, zahartu ahala urtetik urtera gure bizitza osoaren proportzioa txikiagoa izan, eta, horren ondorioz, denbora azkarrago igarotzen delako, estresagatik...

Azkar batean egiten dituzten bezala ikasle eta ikasle ez diren dezentek beraien lanak IArekin. Non geratu da esfortzua, informazio aukeraketa, hausnarketa eta irakurketa? Saguaren klik batek horiek guztiak ordezkatu ditu. Egia esan, IAk gauzak azkarrago eta erreflexio gutxiagorekin egiteko aukera ematen digu. Bizitza doan neurri berean. Eta hau hasi besterik ez da egin. Nola jakingo dugu irakurtzen dugun testu bat IAk ekoitzia den edo norbaitek idatzia izan den? Agian, iritzi-artikulu hau ere modu azkar batean IA bitartez egina dago, edo?

baina ez, ez diot neure buruari galdetu. Hizki horiek Inteligentzia Artifizialaren (IA) laburdurak dira oraingo honetan. ChatGPTri galdetu diot. Azkar antzean eman dizkit erantzunak galdera honi:

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Garikano eta Noe

BLANCA URGELL

'BERRIA'-N ARGITARATUA
HTTPS://LABUR.EUS/D9DUP

Larunbatean, ekainak 29, Asun Garikanok Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldia egin zuen Gasteizko Goiuri jauregian. Ekitaldi osoan zehar "Asun" gora eta "Asun" behera aritu ziren han mintzo behar izan zuten gizonak, bai eta "Maidar" gora eta "Maidar" behera Gasteizko alkatea, Etxeberria anderea, aipatzeko. Ez da egun horretako, ezta erakunde horretako kontu, noski, oro har kortesiazko trataerak ostikoka erabiltzen dituen gure herri honetan

emakumeokin areagotzen den zerbait baizik.

Alabaina, nik edukiaz hitz egin nahi nuen. Izan ere, sarrera-hitzaldi ederra entzuen genuen, formaz eta mamiz aparta, Euskaltzaindiak berriki zabaldu duen *Noeren ontzia* egitasmoari buruz.

Hezkuntzarako Euskal Testuak du bigarren izen. Pentsa. Azterketak zuzentzen ez banengo, goitik behera arakatuta neukake dagoeneko. Garikanok gure literatur ondarearen hamaika pasarte zoragarri harilkatu zituen hitzaldian, eskura baleude zer-nolako altxorra geneukakeen erakutsirik. Eskura balituzte, irakasleek erabiliko lituzkete beharbada,

eta irakasleek erabiliko balituzte gazteek ondare horren transmisioa jasoko lukete: horixe da, behintzat, egitasmoaren asmoa.

Esate baterako, nork daki Lehen Mundu Gerra bertatik bertara bizirik haren deskribapen zehatz eta lazgarriak utzi zizkigutela Iparraldeko euskaldunek? Nork ezagutzen ditu Jean Saint-Pierre *Anxuberrok* lubakietan uzurturik eta lokatzez lepo astez aste idatzi zituen kronikak? [...]

Gutxi dugula pentsatu ohi dugu euskaldunok. Alabaina, Garikanok begien bistan ipini zigun soberan geneukeela, badugula jakingo bagenu.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEAwww.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzardea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publikitate
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIKITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK

Ilusioa, ilusio denean

IÑAKI ARTOLA

BERGARA

Ekainaren 20an, EAEko Legebiltzarrean lehendakariaren programen aurkezpena eta lehendakari aukeraketarako ekitaldia izan genuen goiz eta arratsaldean. Irratiz eta telebistaz saioa jarraitzen aritu nintzen, zerbaiten zain banengo bezala. Orain badakit zeren zain nengoen: ilusio apur bat sentitzeko beharra sumatzen nuen, nonbait! Hitz aspertu luzeak, hitz hutsak milaka, hitz eta bits... *Askatasuna, demokrazia, ingurumena eta auzolana* moduko hitzen prostizua, erdi egietan ezkutatutako gezur antolatua, gorren arteko monologoak, gutarrek egindakoaren autokonplazentzia... Eta enpatia? Zer da hori? Gobernu berriak herritarrei eskaini beharreko ilusioaz eta konfiantzaz ez nuen nik, behintzat, zipitzik ere aurkitu. Nire ustez, pertsonen eta herrien motorra ilusioa da, eta, tamalez, ez nintzen horretaz elikatu saio motel eta total hartan. Ezin dut esan, zoritxarrez, oposizioan izango direnen hitzetan ere oso aipamen ilusionagarriak aurkitu nituenik.

Iluntzean, kartzela zaharra gainezka zela, Maialen Lujanbiok performance gisako saioa eskaini zuen. Saio laburra, baina trinkoa, hausnarketa kritiko sakona

hitzeekin trebea denak zehatz adierazitakoa, haren eta herritarren kezken laburpen ederra, galdera deserosoen zakukada, herri baten oihugarrasia, geure kontraesanen agerikoa, emakumearen axalekoa ez den egoera mingotsa, herritarren egonezina eta, batez ere, inpotentzia, inpotentzia, inpotentzia...

Orduan ulertu nuen nik goizean sentitutakoa; sei ordu luzeko saioan ez nuen aurkitu Maialenek arratsaldean aipatuko zituen jatorri desberdinetako minentzat ukendurik. Zorionez, asko izan ginen kartzela zaharrean Maialenen saioa izugarritzko luzera eta benetakotasuna izan zuen txalo zaparradarekin agurtu genuenok. Eskerrik asko, Maialen; bejondeizula! Agintari berrioi ere onena opa dizuet.

Negozioa eten, alokairu publiko eta soziala orain!

GONTZAL SANTO DOMINGO TRECEÑO

LAB ABIATU DEBALDEA-KO

ASANBLADAREN IZENEAN

DEBAGOIENA

Nork ez du bizi etxebizitza problematika bere azalean? Alokairuen prezioa etengabe igotzen ari da, eta gure herrian bizitzea gero eta zailagoa zaigu. Hipoteka aldakorra sinatuta, kuotak bikoiztu egin dizkigute, eta finkoa genuenok ere urte luzeak eman behar ditugu oraindik banketxeari eta

zorrari lotuta. Etxebizitza publikoaren itxarote-zerrenda luzeegia da, eta eskaintza murriztegia. Pentsioaren zatirik handiena etxebizitza gastuetara bideratzen dugun bitartean, seme-alabak eta ilobak emantzipatu ezinik dabilta. Zer esanik ez ama bakarrak garenok, beste herrialde batzuetatik etorri garenok, erroldarik ere ez dugunok.

Etxebizitza: negozio bide oparua batzuentzat eta eskubide ukatua gehienentzat. Ez da bidezkoa.

Aterabideak kolektiboa izan behar duela sinetsita gaude. Etxebizitza eskubidea bermatzeko merkatuaren logikatik ateratzea ezinbestekoa da, eskubide unibertsala eta erreala izan dadin. Pertsonarik ez dadin egon aterpe duinik gabe. Eta badakigu eskubide guztiak lortu diren modu berean lortu beharko dugula hau ere: elkarrekin antolatuz, borroka eginez.

Etxejabeei presio eginez arazo asko konpondu daitezke; instituzioak interpelatuz, politika publikoak aldatu daitezke. Parke publikoak handitzea eta etxe hutsen zergapetzea, besteak beste, borondate politiko kontua direlako. Eta borondate faltaren aurrean erabakiz aldatzea eragin dezakegulako.

Etxebizitzaren arazoan, lan gatazketan bezala, langileon bizi baldintzak hobetu, gure aldeko neurriak irabazi eta garaipenak lortzeko presio sindikala beharrezkoa izango

da. Haiiek antolatuta daude. Guk ere antolatu beharra dugu, eta LABek ez du hutsik egin nahi.

Etxebizitza publiko eta sozialaren alde. Alokairu eta hipoteken prezioak jaisteko. Funts putreen, banketxeen, etxe-agentzien eta etxejabeen espekulazioaren aurka. Higiezinaren patronalaren abusuari aurre egiteko. LAB borrokarako prest!

Arrasateko Gazte Olinpiadak

IÑAKI BARRUTIA, ITZIAR CID, NAHIA IRAZOLA, JOKIN MENDIZABAL, JON URIBESALGO, AITOR ABARRATEGI, ANDER ZEZIAGA, ANDONI ARRATIBEL, GARAZI LARREA, GORKA ETXABE, ANDONI AGIRRE, IMANOL ETXEZARRETA, JOSEBA ORMAETXEA, IRUNE LOPEZ, AITOR MUJIKETA MIREN ARANA

ARRASATE

Arrasateko Gazte Olinpiadak eta 2024ko sanjuanak amaitu ostien, gure bihotzetatik esker beruenak adierazi gura dotsuegu parte hartu dozuen gazte danoi. Aurtengo Olinpiadak antolatzea ez da erronka makala izen geuretako, baina ezin izengo geuke holako ekitaldi zoragarri bat aurrera eruen zuen inplikaziño barik. Olinpiada honein helburu nagusixa Arrasateko gazte danok ekintza bakarrien batuko gintuen egun bat antolatzea zan, faltan botatzen gaelako azken urtietan holako zeozer. Hori lortu douela uste dogu, gure partetik plazerra izen

zalako 700 gazte ekintza bakarrian harremanak saretzen ikustia. Ondorioz, Olinpiaden lehen ediziño hau izugarrixa izen dala uste dou.

Gogoratu, honen harira, Gazte Olinpiadak adiskidetasuna eta elkarrekin ondo pasetako lehiaketa moduan planteau genitxula. Egixa da pertsona batzutan ez zala guztiz egokixa izen eta horren inguruko baloraziñua be itxen douela hurrengo Olinpiadei begira. Baina lelengo urtia izen dan heinian, elkar epaitu barik, egin ahal izen dittugun akatsengatik antolakuntzakuok epaitu ez gaittuzuen moduan, zuen ulermena eta malgutasuna asko eskertzen dittugu eta akats horreitatik ikastera konprometiruten gare, hurrengo urtietan gauzak hobeto egin ahal izeteko.

Ezin dittugu ahaztu Mondrate eta Arrasate Rugby Taldea, euren elkarlanai esker eguna errexaua izen zalako. Bestalde, eskerrrik asko zeuen burua laguntzeko prest erakutsi zauien danoi: jokuetan laguntzeko, hesixak jartzeko, bazkarixa jasotzeko... Zeuen energia, konpromisua eta goguak ezinbestekuak izen die ekitaldi hau arrakastatsua izeteko.

Holaxe, ba, mila esker osteria be danoi, eta espero dou hurrengo urtien antolatzeo asmua daukouen Olinpiadetara berriro animetia.

Zorionak eta eskerrrik asko, Arrasateko gaztiak!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Oitalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI



Auto pilaketak saihesteko asmoz, autobus zerbitzua

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan egongo da autobus zerbitzua eta egunean hamabost joan-etorri egingo ditu, gaurtik abuztuaren 4ra arte. Bidaia bakoitzak 0,5 euroko prezioa izango du eta, probaldia izanik, ezin izango da Mugi txartela erabili

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Erdigunetik Udala auzora joan-etorriak egingo dituen autobusa gaur bertan jarri dute martxan, proba modura, eta abuztuaren 4ra emango du zerbitzua, egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan. "Hasiera batean, zerbitzua uztailleko asteburuetan bakarrik ezartzea zen aurreikuspena, baina, abuztuko lehenengo asteburuan Udala jaiak izanik, astebetetz luza egoki ikusi dugu", adierazi du Kepa Urteagak, Auzoak eta Obra, Zerbitzu eta Mantentze zinegotziak.

Auto pilaketak uzoan

Autobus zerbitzu publikoa jartzeko arrazoia, nagusiki, udan izaten den autoen masifikazioa da. Bizilagunek ere hainbat kexa jarri izan dituzte herregatik, autobus linea bat eskatzeko, besteak beste. Horri erantzutea dator, hain zuzen ere, zerbitzua. "Udala auzoak auto kopuru handia jasotzen du udan, mendira, jatetxeetara edota igerilekura doazen herritarrak asko baitira. Hainbat eta hainbat kasutan, gainera, saturazio puntu batera ere iristen da egoera. Beraz, hori ekiditeko asmotan, autobus zerbitzu hau jartzea erabaki dugu, probaldi modura".

Autobus zerbitzua jartzearekin batera, autoen aparkalekuak berregokitu egin dituzte auzoan, horiek mugatzen dituzten seinaleak margotuta eta autobus geltokiaren gunea seinaleztatuta. "Goiko aparkalekuak txukunketa behar zuen lehendik ere, eta horiek autobus zerbitzu berrira egokitu ditugu, unea baliatuta".

Bidaia 50 zentimo

Herribusarekin zerikusirik ez duen zerbitzua da, beste kontratazio bat, eta 15.000 euroko aurrekontua izango du, Urteagak azaldu duenez. Cuadrabus enpresa arduratuko da zerbitzua



Geltokia seinaleztatuta eta autoak aparkatuta Udala goiko aparkalekuan. E.A.

emateaz eta bidaia bakoitzaren prezioa 0,5 eurokoa izango da. Eskudirutan ordaindu beharko da, nahitaez; izan ere, probaldirako zerbitzu berezia denez, ezingo da Mugi txartela erabili. Autobusak hiru geltoki izango ditu (Ikus goiko taula).

Arrasate-Udalatzen ere proba

Bereziki uda garaian pilatzen dira auto asko Udalan, baina baita Arrasate-Udalatx lasterketaren egunean ere. Hori dela eta, egun hartan ere jarri zuten autobus zerbitzua. "Hura ere

proba moduan egin genuen, eta, egia esan, topera ibili zen autobusa. Egin beharreko hobekuntza batzuk identifikatu genituen, baina zerbitzua beharrezkoa izan daitekeela ikusi genuen. Beraz, beste probaldi bat egingo dugu orain, epe luzeagoan, eta ikusiko dugu beharrezkoa eta eraginkorra ote den auzoarentzat", zehaztu du Urteagak.

Probaldiak utzitako emaitzak onak izanez gero, datozen urteetan autobus zerbitzua uda osora zabaltzea aztertuko du Udala Gobernuak.

Hamabost joan-etorri egunean

Hiru geltoki izango ditu autobus zerbitzuak: San Frantzisko eliza parean, 2. linean –zebra-bidea igarota–; Erguinen, 2. linean; eta Udala auzoan –goiko aparkalekuan–. Bidaia bakoitzak 0,5 euroko prezioa izango du. Honako hauek izango dira ordutegiak:

Arrasate-Udala (igo):

10:00 / 11:00 / 12:00 / 13:00 / 14:00 / 14:30 / 15:00 / 15:30 / 16:00 / 16:30 / 17:00 / 18:00 / 19:00 / 20:00 / 21:00.

Udala-Arrasate (jaitsi):

10:30 / 11:30 / 12:30 / 13:30 / 14:15 / 14:45 / 15:15 / 15:45 / 16:15 / 16:45 / 17:30 / 18:30 / 19:30 / 20:30 / 21:30.



NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA

Txikitasunean handi

Ikasturte amaierarekin batera, badatoz agurrak; motxilak hartu eta bidaia berriak hasteko unea da. Urte osoa eman dut niretzat oso berezi izan den mundu txiki batean, gure bilakatzen dugun mundu txiki horretan. Herri txiki batera heldu nintzen kasualitatez, leku magiko batera, non aske, maitatu zein errespetatu sentitu naizen eta konexio berri asko sortu ditudan. Itzela da zerbaiten parte zarela sentitzea, puzzleko pieza bat gehiago. Talde-lana, komunikazioa, elkar zaintza eta askatasuna. Beti esan ohi dut zuek nigandik bai, baina nik zuengandik zenbat ikasten dudan aldaezina eta bakarra dela; ezezagun eta arrotz sentitzetik, bat gehiago sentitzera. Horrek duen balioa azaldu ezina da. Lantalde batean elkar zaintzen ez badugu, nork zainduko gaitu? Gauzak ez datoz zoriz, eta lanketa bat dago guztiaren atzean. Negar malkoetatik, irribarre batez zirrarez negar egitera. Bizitzako zikloak amaitu ere egiten dira, eta zein beharrezkoa den egunero jasotzen dugun horretan azpimarra jartzea. Eta eskerrak batzuek oraindik maite duten begirada behean jarri eta bidean elkarren bidelagun izatea.

Ekin Emakumeak Elkarte, udazkenerako langile baten bila

2025ean 30 urte beteko ditu elkarteak eta ospakizunak antolatzeko laguntzaile bat behar dute urritik abendura

E.A.B. ARRASATE

Ekin Emakumeak Elkarteak 30 urte beteko ditu datorren urtean. Hala, urteurrenean egingo dituzten ekintzak antolatu, lotu eta garatzeko langile baten bila ari dira, urteurrenerako talde motorrean parte hartu eta dinamizazioan laguntzeko. Horrez gain, zuzendaritza batzordean ere parte hartuko du langileak.

Lanpostua eskuratu ahal izateko, beharrezkoa izango da, gutxienez, euskarako C1 gaitasun maila izatea; Arrasatekoa edo inguruko herri batekoa izatea

eta feminismoarekiko, euskaltzaletasunarekiko zein aniztasunarekiko, orokorrean, jarrera konprometitua izatea. Era berean, bestelako hainbat gaitasun eta esperientzia ere kontuan izango dituzte.

Lanaldiari dagokionez, urrian, azaroan eta abenduan gauzatuiko da, astean bost orduz. Era berean, orduak norberaren beharren arabera gestionatzeko aukera egongo da. Interesa duenak curriculuma bidali beharko du honako helbide honetara: aniztasuna@ekinmakumeak.eus.

Uribarriko labea berreskuratzeagatik esker hitzak Udalari

Arrasate Zientzia Elkarteak txalotu egin du Udalaren erabakia. "Eskerrik asko Telleria labea Arrasateko ondare gisa berreskuratzeagatik eta sendotzeko egin dugun proposamena aintzat hartzeagatik. Espero dugu laster gaitu eta finkatuko dela, Uribarrin egingo diren bisita gidatuen testuinguruan jendea-ri erakusteko".

1965ean jaiotakoekin kintadarako izena eman daiteke jada

Irailaren 21ean elkartuko dira 1965ean jaiotako arrasatearrak, urtero moduan, bazkaria egiteko. Edozelan ere, antolatzen hasteko, dagoeneko izen-ematea ireki dute. Horretarako, 85 euroko ordainketa egin beharko da ES76 3035 0055 1705 5105 8385 (Laboral Kutxa) kontu korrante zenbakian, eta kontzeptuan izen-abizenak jarri.

Errugbi inklusiboaren protagonistak pantailan

'Lumarik gabeko hegoak' lana ekoiztu dute Huheziko hiru ikaslek gradu bukaerako lan gisa; tartean, Eki Letona arrasatearra dago. Arrasate Errugbi Taldeak abiatutako proiektu inklusiboaren nondik norakoak azaltzea du helburu ikus-entzunezkoak

Gontzal Belategi Zubia ARRASATE

Elkarte batekin elkarlanean egin ohi dituzte gradu bukaerako lanak Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (Huhezi) Ikus-entzunezko graduako ikasleek. Aurtengo lanetako bat Arrasate Rugby Taldeak martxan jarritako proiektu inklusiboaren inguruan izan da. Lanaren egileak Eki Letona arrasatearra, Endika Apalategi eta Unai Arteaga izan dira.

"Hirurok oso kirolzaleak gara eta honen inguruko zerbait egin nahi genuen", azaldu du Letonak. Hala ere, kirol zaletasun hutsetik aldentzeko asmoz, egitasmo inklusiboagoa azalerazteko nahiak bultzatu zuen taldea ARTko proiektua aukeratzera: "Pentsatzen egon ginen, eta Arrasate Rugby Taldeko talde inklusiboaren inguruan egitea pentsatu genuen, kirola izateaz gain inklusiboa eta gizarte garrantzia duen proiektu bat delako. Hori bultzatu eta laguntzea zen gure asmoa".

Protagonisten ahotsa

Dokumental taldearen nondik norakoak azaltzen ditu: taldearen sorrera nola izan zen, zergatik sortu zen, nola egituratzen den taldea, nola entrenatzen diren eta abar. Horrekin batera, ikasleak protagonistei ahotsa ematen ahalegindu dira. "Garrantzitsuena jokalariei bizipenak dira, nolako garapena izan duten eta zer sentitzen duten entrenamenduetan. Jokalariez gain, gurasoak, zuzendariak, entrenatzaileak eta dinamizatzaileak agertzen dira. Guztien ahotsak jasotzen ahalegindu gara", dio sortzaile arrasatearrak.

Gurasoen bizipenak azpimarratu ditu Letonak: "Azkenean, gurasoek eginkizun oso garrantzitsua dute. Seme-alabak izan dituztenetik egon dira hor laguntzen eta bultzatzen. Haien adierazpenak, haien usteak, oso



Ikus-entzunezkoaren fotograma bat. ART

YOUTUBEN IKUSI DAITEKE 'LUMARIK GABEKO HEGOAK' LANA, 'R BARRUTIA' IZENEN KANALEAN

garrantzitsuak iruditu zitzaizkigun, eta hori guztia dokumentalean agertzea nahi genuen".

Helburuak

Dokumentalaren helburu nagusia proiektua zabaltzen joatea izan da, jendea proiektura gerturatzeko: "Helburua ARTren talde inklusiboa zabaltzea da, Euskal Herri zein Espainiako Estatu mailan, gazteleraz ere egin dugulako. Lan egiteko duten modua erakutsi eta jende gehiago erakarri nahi genuen". Horrez gain, horrelako talde baten lanari balioa eman nahi izan diote: "Bestalde, horrelako proiektu inklusiboak gizartearen balioztatu nahi genituen".

Helburuak ondo bete dituztela dirudi, eta, Letonak azaldu duenez, feedback positiboa jaso dute: "Esan digutenez, oso pozik daude emaitzarekin".

Bidearen garrantzia

Pozik eta harro dago Letona egindako lanarekin, benetan baliagarria izango dela uste du eta. Proiektua elikatzeke eurek ere "aletxo bat" jarri izanaren sententzia du, eta hori horrela izatea oso gustuko du.

Ikus-entzunezkoa egiterakoan jorratutako bidea oso aberasgarria izan dela dio arrasatearrak, eta salto pertsonal handia nabaritu duela: "Hasiara batean, ez genekien askorik gai horretaz, eta ideia oso nahasiak genituen buruan. Adibidez, Ramon Barrutia zuzendariak lehen egunean inklusiboa zer den galdetu zigun eta ez genuen erantzuten jakin. Lanaren defentsan berriro galdetu ziguten, eta hor ederki jakin genuen erantzuten". Pertsona bakoitzak erantzun ezberdin bat duela dio Letonak, eta hori dokumentalaren amaieran garbi ikusi daitekeela.

Sarean ikusgai

Ikus-entzunezkoa ikusgai jarri dute dagoeneko, nahi duenak ikusteko. Youtuben eskegita dago, *R Barrutia* izeneko kanalean. Guztira, 23 minutu irauten du dokumental.



Langileek atzo egindako manifestazioa. GOIENA

Manifestazioa egin zuten atzo Microliquid enpresako langileek

Astelehena ezker greba mugagabearen dira langileak; atzo, eguena, kalera irten ziren egoera salatzen

G.B.Z. ARRASATE

Ekainaren 19an jakinarazi zuen Microliquid -Te Connectivity- enpresako zuzendaritzak hogeita bat langileri eragingo zion Enplegu Erregulazio Espediente bat, hau da, kaleratze kolektibo bat, aplikatuko zuela. LABek aditzera eman duenez, "krisi-egoera batean kostuak aurrezteko aitzakiarekin" hartu du zuzendaritzak erabaki hori.

Enpresa batzordea "hasieratik kaleratzeen aurka izan da", erabaki hori justifikatzeko nahikoa arrazoi ez dagoela iradokita, eta, langile batzarreko "asanbladaren %95en baino gehiagoren babesa jasota", greba mugagabera jo zuten astelehenean Microliquideko langileek.

Greba hasi zen egunetik hainbat mobilizazio egin dituzte langileek, enpresaren aurrean zein Arrasateko kaleetan barrena protestan. Atzo egin zuten

azkena: Microliquid parean hasi eta Arrasateko kaleetan barrena ibili zen manifestazioa.

Lehen bilera enpresarekin

Martitzenean izan zuten kontsulta aldiaren lehen bilera langileen ordezkariak eta enpresak. Bertan, espedientearen erretiratze-ko eskatu zuten LABek enpresako zuzendaritzako kideei, "eta bien bitartean greba mantenduko duela jakinarazi". 2024rako aurreikuspenak negatiboak direla azaldu zuen enpresak, baina, LABek salatu duenez, "2022ko eta 2023ko ekitaldietan irabaziak izan ditu", eta, horrenbestez, neurri hori ez dela "kontu ekonomikoekiko proportzionatua".

LABek informazio falta igarri zutela eta akastun dokumentuak aurkeztu zirela esan du. Enpresak akats horiek gaur egingo duten bigarren bilerarako zuzenduko dituela azaldu zuen.



HARREMAN

Tonbolak badu irabazlea

Ana Busteros izan da Ibai-artek eta Harremanek Elkartasun Egunean egindako tonbolako irabazlea, 551 zenbakidun txartelarekin. Ibai-arteak dendetan erabiltzeko 300 euroko bonu bat eskuratu du Busterosen sari gisa. Bide batez, Harremanek jakinarazi du 3.586,43 euro bildu zituela Elkartasun Egunean, Mumbai (India) Aknur harrera etxera bideratzeko.

Ford KUGA berria




299€
hilean*



Zatoz Ford Mugarri-ra zure Ford KUGA berria aukeratzera.

 **GRUPO
EASO
MOTOR**

San Andres, 6 · 20500 Arrasate
 682 909 625

www.grupoeasomotor.com


Easo Motor

Bi hizkuntzak kantuan bat egiten dutenean

Arrasateko Gazte Abesbatzak (AGA) kontzertua eman du asteen San Frantzisko elizan, Kataluniako Coral Juvenil de 'Escola Municipal de Musica eta Cor Jove Fusio koruak gonbidatuta. Irailean egingo dute bigarren itzulia, Sant Cugat del Valles-en

Hasier Larrea Herrero ARRASATE

Goikobaluren eta Arizmendi ikastolaren arteko lankidetzatik sortutako Arrasateko Gazte Asanbladak lehen elkartrukea egin du, pandemian martxan jarri zenetik. Sant Cugat del Vallesko (Katalunia) bi abesbatza gonbidatu dituzte elkarbizitza-erperientzia hori gauzatzeko: udal musika eskolako koru gaztea eta Cor Jove Fusio izenekoa.

Arrasateko taldea jarri zen haiekin kontaktuan, Kataluniako Koruen Elkarteari mezua igorrita. Eskaeraren berri jakin bezain laster erantzun zien Raimon Romanik, Cor Jove Fusio-ko zuzendariak. "Ikusi nuen AGA 11 eta 17 urte arteko abeslariak osatzen zutela; gure herriko talde gazteen antzeko adin tartekoak zirela, alegia. Hala, aukera paregabea irudituz zitzaidan taldekideentzat; pandemia ostean, irteteko eta jatorri askotariko nerabeekin nahasteko beharra zeukaten", azaldu du.

Kantuan bakarrik ez

Martitzenetik gaur arte egon dira hogeit hamar neska-mutil inguru Arrasaten, eta ez dute denbora alferrik galdu. "AGAKo kideen etxeetan egin dute lo, elkarre gastronomikoetan bazkaldu, Anabel Ugalderekin bisita gida-



Hiru abesbatzak elkarrekin, Seber Altube plazan. H.L.

tua egin erdigunean, kostaldera txangoan joan...". aipatu du Goikobaluko Maialen Gonzalezek.

Kontzertu bateratua emateko aitzakiarekin, bestelako errealitateak ezagutzeko aukera izan dutela nabarmendu dute kataluniar korulariek: "Historiako ikasgaian jakin dugu nor zen Canovas del Castillo, baina ez genekien hemen erail zutela; bestalde, euskaldunekin elkartruke linguistiko eta kulturala egitea oso aberasgarria izan da, antzeko egoera bizi dugulako".

Ariketa "dibertigarria"

Herenegungo emanaldian, nork bere errepertorioa taularatu eta gero, une berezia partekatu zuten hiru abesbatzak, euskarazko eta gaztelarazko kantu bana abestuta; zehazki, *Kantuz* eta *Cançó de bres per a una princesa negra*. Hizkuntza batean jakin gabe kantatzea zer den galdetuta, hara ikasleen erantzuna: "Hainbat hizkuntzarekin egiten dugu ariketa hori noizean behin, eta dibertigarria da. Garrantzitsua da melodia aldetik zailak ez diren kantuak aukeratzea,

"Abestea gogoko dutenei ikasteko aukera ematen diete abesbatzek"

TXOMIN MAIDAGAN AGA-KO ZUZENDARIA

David Vargasekin batera zuzentzen du AGA Txomin Maidaganek. Egunotan katalanen enbaxadore izan da. **Haiek etorri dira, eta zuek ere joango zarete hara.** Irailean joango gara Bartzelona, hiririk ordu erdira dagoen San Cugat del Valles herrira. Ilusioa egiten dit hiriburua ez izateak, hori baita ohikoena halako irteeretan. Ondo pasako dugu! **Ze ekarpen egiten dizuete elkartrukeek?** Urtero egin beharrekoa iruditzen zait, motibazio mantentzeko, ordainsari gisa. **Abesbatzak gainbeheran daude?** Orokorrean, bai. Gu 20-25 gara, baina beherakada txiki bat izan da. Moda kontua dela esango nuke. Adibidez, 2000. urte inguruan gorakada gertatu



H.L.

zen, nire izebaren arabera, *Operación triunfo* hasi zelako. Orain, biolina ikasten hasi dira asko, *Los Bridgerton* telesailaren eraginez. **Nola erakarriko zenituzke gazteak abesbatzara?** Abestea gogoko dutenek toki egokia aurkituko dute hemen. Hastapenetan abesten jakitea ez da beharrezkoa, hain zuzen, abesten ikasten delako hemen. Solista mordoak irten dira abesbatzetatik, oinarria hor dago. Etorri probatzera, ez duzue ezer galduko.

zailena ahoskera menperatzea baita. Bestetik, ez da euskaraz kantatu dugun lehen aldia izan; hona etorri aurretik landu arren, AGAkoekin entsatu dugunean sentitu gara seguruago".

Koruen osasunaz kezkatuta

Aste honetan bizitakoak pisu handiagoa hartzen du abesbatzek orokorrean bizi duten egoera kontuan izanez gero. Katalunian, behintzat, taldeak gainbeheran daudela uste du Raimon Romanik: "Gutxi deikatzen gara honetara, eta

gehiago izan beharko genuke, lan handia baitago egiteko. Esan behar dut niretzat luxua dela gazteekin lan egitea". Halako elkartrukeek balio dezatela gazteen abesbatzen kontzertuak luxua izan ez daitezen hemendik urte batzuetara.

EUSKARAZ ETA KATALANEZ KANTU BANA ABESTU ZUTEN ELKARREKIN HERENEGUN

Superheroiak eta marrazki bizidunak hizpide 'Troia' obran

Udazabal egitarauko antzezlanek Seber Altubeko plaza hartuko dute; lehen zita, datorren martitzenean, hilak 9

H.L. ARRASATE

Tokiko konpainiek taularaten dituzten kale antzerkien erakusleho izateko ere balio du Udalak uztaileko antolatzen duen Udazabal kultur ekimenak. Kamikaz antzerki taldeko hiru sortzaile

eta antzezlek, Amancay Gaztañagak, Iraia Eliasek eta Erika Olaizolak, *Troia* antzezlan aurkeztuko dute Seber Altube plazan hilaren 9an, 19:30ean hasita. Hiru superheroi gorpuztuko dituzte, misio bat burutzeko

helburuarekin: jendea salbatzea, egun batetik bestera herrian agertutako objektu misteriotsu baten arriskutik.

Abiapuntu horrekin, superheroiaren dohainak zein ahuldadeak eta marrazki bizidunen estetika eta kontatzeko modua aletuko dituzte, *Dragoi bola* telesailako Jesus Eguzkitzaren ahots ezagunak lagunduta. Konpainiak berezko duen genero ikuspuntua eta umore satirikoa ikusteko aukera aproposa izango dute plazara bertaratzen direnek.



Troia antzezlan. KAMIKAZ

Gaur zortzi, jazza eta popa

Asteburu honetako Mondra&Roll jaialdiaren (Ikus 34. orria) kokagune berean, Monterron parkean, izango da Udazabalen hurrengo pilula: Femmm taldearen kontzertua. Hilaren 12an, 20:00etan hasita, Musikeren ikasitako bost emakume musikariek jazzaren eta poparen arteko uhinetan murgilaraziko dute publikoa, haien hitzetan, "oso sonoritate berezia duen energia akuatiko bat" sortzeko nahiarekin.

Lagunarteko pilota txapelketako finala gaur

Olaizolak eta Armendarizek Lopezen eta Del Camporen kontrako finala jokatu dute gaur, arratsaldeko zortzietan, frontoian; txapelketako lehen partidua elkarren aurka jokatu zuten eta Lopezek eta Del Campok irabazi zuten, bi tantoko aldearekin

Idoia Aranbarri Arzuaga ARAMAIO

Maiatzean eman zitzaion hasiera Aramaioko IV. lagunarteko pilota txapelketari, eta dagoeneko amaierara iritsi da; izan ere, gaur arratsaldeko zortzietan hasita jokatu dute finala, Milder Unda pilotalekuan, Julen Olaizolak eta Josu Armendariz Sarabia-k Ander Lopezen eta Asier del Camporen aurka.

Ez da elkarren aurka jokatzeko duten aurreneko aldia, txapelketa elkarren artean jokatu hasi baitzuten, eta orduko hartan Ander Lopezek eta Asier del Campok irabazi zuten, bi tantoko aldearekin. Gainera, iaz ere finalera iritsi ziren Julen Olaizola eta Ander Lopez, baina biek osatzen zuten bikotea.

Final "gogorra" aurreikusten dute Julen Olaizolak eta Asier del Campok. "Fisikoki partidua gogorra espero dut. Nik nire erritmoa sartzen badut eta gero tantoak amaitzen ibiltzen banaiz, uste dut aukerak izango ditugula. Fisikoki gogorra izango dela ziur. Gakoa partiduko fase garrantzitsuenetan ondo eustea izango da, eta gero tantoak bukatzea", dio Olaizolak. Del Campok, berriz, azaldu du bikote aurkaria "oso gogorra" dela: "Julen pilotaria izanda... Gogorra izango da eta parekatua. Final polita aterako da".

Lehia parekatua

Elkarren aurka jokatu dute partidua gogoan dutela, lehia "parekatua" aurreikusten dute, eta, horregatik, faborito garbirik ez dagoela diote. "Nahiz eta guk hasierako partidua haien aurka galdu, gero txapelketa oso ona egin dugu. Asierrek eta Anderrek eskuetatik asko sufritu dute, eta, eskuetako minaren arabera, agian, fisikoki ez dira ondo iritsiko finalera, baina, halere, uste dut nahiko parekatuta egongo dela finala, eta eta ez dut faboritorik ikusten", azaldu du hi-



Arriolabengoa, Herrarte, Lopez eta Del Campo, finalaurrekoan. APE

HAMAIIKA BIKOTEK HARTU DUTE PARTE LAUGARREN LAGUNARTEKO TXAPELKETAN

rugarren aldiz finala jokatu duen Olaizolak.

Gaur arratsaldean frontoian egongo den giroa ere nabarmendu dute bi pilotariek. "Giroa bikaina egongo dela ziur. Urtero horrela izaten da, eta, horregatik, hori ere bazen helburua. Finalera heltzea giro horretan jokatzeko. Eta oso gogotsu gaude", gaineratu du Olaizolak. Del Campok adierazi du konforme egongo dela "partidu polita" ateratzen bazaie eta pilotalekuan "giro ederra" egoten bada.

Txapelketaren balorazioa

Joan den astean jokatu zituzten finalerdiak, eta Olaizola eta Armendariz 22-14 nagusitu ziren; bigarren finala estuagoa izan zen, eta 22-21 irabazi zuten Lopezek eta Del Campok iaz finallean izan ziren Danel Herrarteren eta Markel Arriolabengoaren

kontra. "Finalaurreko luzea izan zen. Uste nuen partida hura galdu egingo genuela. Bikote gogorra da, baina, azkenean, gure alde jausi zen txanpona. Partida luzea eta oso fisikoa izan zen. Espero ez genuen emaitza da, eta, orduan, motibatuta eta pozik gaude", dio Del Campok.

Txapelketari dagokionez, "behetik gora" egin dutela dio Olaizolak, lehen partidua galdu bazuten ere gainerako guztiak irabazi egin dituztelako. Egindakoaz Del Campori galdetuta, honako hau dio: "Txapelketa polita izan da. Azkenean, herriko jendeak horrelako gauzetan parte hartzeak txapelketa polit egiten du".

Hamaika bikoteko txapelketa

Hamaika bikotek hartu dute parte laugarren edizio honetan, eta Aramaioko Pilota Elkarteko Alfonso del Campok balorazio ona egin du. "Aramaio bezalako herri batean hamaika bikotek izena ematea asko da", azaldu du Del Campok. Txapelketako norgehiagokak "politik eta borrokatuak" izan direla aitortu du, eta gustura agertu da herri-tarrek gogoa jarri dutelako hila-bete hauetan.



ORIXOL MENDIZALE ELKARTEA

Europako Mendietara irteera

22 pertsonako lagun taldea izan da Europako Mendietan, Orixol Mendizale Elkartek antolatuta. Naranjo de Bulnes inguruan ibili dira; antolatzaileen esanetan, "gehiengoendako ezezaguna zen inguru batean". Zapatuan ez zuten eguraldia lagun izan, baina prestatuta zuten ibilbidea egin zuten. Domekan ere beste irteera bat egin zuten: "Primeran pasa dugu".

Bihar errepide mozketak Trilegutio kirol-probatik

Bihar jokatu da Trilegutio, Legutioko triatloia, eta bizikletako ibilbideak Legutio-Otxandio-Oleta-Kruzeta-Legutio egingo du bi aldiz. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 14:30etik 17:30era bitartean ezin izango da Aramaiotik Legutiora Kruzetatik jaitsi, errepidea itxita egongo delako, baina kontrako noranzkoan zabalik egongo da; hau da, Legutiotik Aramaiora joan ahal izango da, baita Aramaiotik Otxandiora erw, Oletatik. Kirol-probako ibilbidea markatuta egongo da. Zalantza edo arazoren bat duenak edo nahi eta nahi ez autoa hartu behar duenak 688 64 62 06 zenbakira deitu beharko du.

Bi ordutegi izango ditu liburutegiak uztailen zehar

Uda garaian uztailearen 31ra arte egongo da zabalik Aramaioko liburutegia; eta hilaren 12ra arte arratsaldez egongo da zabalik, 17:00etatik 19:30era. Hilaren 15etik 31ra, berriz, goizeko ordutegia izango du; 10:30etik 13:00etara. Uztailearen 5ean eta 8an itxita egongo da; baita abuztuan zehar ere.

Gainera, Aramaio, Antzuola, Arrasate, Bergara, Eskoriatza, Oñati eta Legazpiko liburutegiekin elkarlanean egindako *Biblioporak 2024* gida kalean da. 0, 5 eta 8 urtetik aurrerakoan eta gazteen ataletan banatuta, seinu liburu gomendatu dituzte. Helduentzat, hamasei liburu, hiru disko eta zazpi film.

BiNTELENA

merkatua - frutategia

Astehenetik igandera irekita:

09:00 - 13:00 / 17:00 - 21:00

KALITATEZKO PRODUKTUAK

NARDEAGA 11 - ARAMAIO - 945 06 96 82



EGITARAUA

EGUBAKOITZA 5

19:00 ANBOTOKO MARIREN ETORRERA.

19:00 TXUPINAZOA eta PREGOIA bertso-eskolaren eskutik.

19:05 KALEJIRA TRIKITIXA ESKOLAKO KIDEEKIN triki-kalejira, Trikitixa Taldeak antolatuta.

19:05 KALEJIRA HERRIKO TXISTULARIEKIN.

19:05 BURUHANDI eta ERRALDOIAK.

20:00 PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK, kiroldegian, Aramaio Pilota Taldeak antolatuta.

20:00 TXOSNEN IREKIERA.

20:00 DIRTY DURUM BRASS BAND taldearekin kalejira.

23:00 ERROMERIA PLAZAN: Ziortza eta Leire.

23:00 Kontzertuak txosnetan: BELE eta RAIMUNDO EL CANASTERO.

ZAPATUA 6

10:00 HOCKEY PARTIDAK, Burdinola Irristaketa Klubak antolatuta.

11:30 UMEENDAKO JOLASAK.

12:00 PATATA-TORTILLA TXAPELKETA, plazan.

12:30 SUTAN TXARANGAREKIN kalejira, Vital Fundazioak eskainita.

16:30 MUS eta BRISKA txapelketetako izen-ematea.

17:00 MUS & BRISKA TXAPELKETAK.

17:00 PING-PONG TXAPELKETA Gazte Asanbladak antolatuta.

17:00 PLATER TIROKETA TXAPELKETA Kurtzetagain elkartearen eskutik.

18:00 ZUMBA 'MASTERCLASS'-A Malenarekin, plazan.

18:00 'GREEN GRASS' FESTIBALA, Gazte Asanbladak antolatuta.

19:30 Estampas de Mexico MARIATXIEN KALEJIRA.

22:30 Estampas de Mexico MARIATXIEN EMANALDIA, plazan.

23:00 Kontzertuak txosnetan: SUKENA, HANKAZ GORA eta THE CLAYTON.

DOMEKA 7

11:00 DIANA HERRIKO TXISTULARIEKIN.

12:00 MEZA, BIZENTE GOIKOETXEA ABESBATZAK LAGUNDUTA.

13:00 HERRIKO UME JAIORBERRIEN ONGIETORRIA, plazan.

Ondoren, LAGUN ARTEAN DANTZA TALDEAREN EMANALDIA.

17:00 JOLAS PARKEA, parkean.

18:00 HERRI KIROLN ENERGIETALDIA, plazan.

20:00 EUSKO LABEL PARRILLADA.

20:30 DANTZA PLAZA KITTU TALDEAREKIN, plazan.

21:00 'ZUK IN ZUK JAN', txosnetan, Gazte Asanbladak antolatuta.

22:30 'ZERGATIK URSULA?' ekitaldi instituzionala, elizako eskaileretan.

Zirkulazio mozketak

San Martin jaiak direla-eta, Bizente Goikoetxea plazan trafikoa moztu egingo dute. Festetan plazan jarriko duten agertokia harategi parean egongo da kokatuta, eta, horregatik, Aramaio Udalak adierazi du bertako garajeetako bizilagunek ibilgailuen sarrera-irteerak Matxinkaletik egin beharko dituztela uztailaren 9ra arte. Halaber, uztailaren 10era arte, Nardeaga 32tik 33ra ere trafikoa moztuta egongo da, txosnagunea dela eta.

23:30 KORTO LEHIAKETA txosnagunean, Gazte Asanbladak antolatuta.

Ostean, BERBAPASIE, Gazte Asanbladak antolatuta.

ASTELEHENA 8

12:30 'MUTE' ANTZERKIA, kanpoko frontoian, Orain Bi taldearen eskutik.

13:00 KANTU-JIRA, Alaiak Kantu Taldearen eskutik.

16:30 KUADRILLEN ARTEKO PIKEA, parkean, Gazte Asanbladak antolatuta.

20:00 ORKRESTA ELEKTROTARANGAREKIN ANIMAZIOA.

21:30 HERRI AFARIA, plazan.

Gero, 'URREZKO GIBELA'; parrandazale onenarendako sari-banaketa.

22:30 ORKRESTA ELEKTROTARANGA.

23:30 ANBOTOKO MARIREN AGURRA.

01:00 DJ YNOX, txosnetan.



BEHI-ALDE, KOOP. E.
Oleta-Aramaio (Araba)
Zuzenbide postala

44 pk
20500 Arrasate

Gora sanmartinak!



Tel.: 945 45 01 00
bulegoa@behialde.com

ARAMAIOKO SANMARTIN JAIK 2024

GOIENA TELEBISTA, 'JAIK' SAIO BEREZIA

UZTAILAREN 9AN, MARTITZENA, 19:00ETAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.



Bertso-eskolako kideek botako dute txupinazoa

Aurten ere Anbotoko Mariren jaitsierarekin hasiko dira sanmartinak, gaur arratsaldean, eta astelehenera bitartean festa giroa izango da herrian; herri kirolez, musika emanaldiez, parrilladaz eta herri afariaz gozatzeko aukera egongo da

Idoia Aranbarri Arzuaga ARAMAIO
Gaur arratsaldeko zazpitan emango zaie hasiera uztailaren 8ra arte iraungo duten San Martin jaiei. Ordu horretan jaitsiko da Anbotoko Mari menditik udaletzeko balkoira, eta horrekin batera botako dute txupinazoa eta pregoia.

Aurten, Aramaioko bertso-eskolak izango du horretarako ardura, eta albistea "pozik" hartu dute, bigarren aldia izango badute ere. "Proposamena gustura hartu genuen. Ederra da herriak halako aitortza bat egitea. Urteetan zehar egindako lana herriak aitortzea pozgarria da", diote bertso-eskolakoek.



Anbotoko Mariren jaitsiera iaz. GOIENA

Ume jaioberriak

Iazko sanmartinetatik hona herrian jaio diren hiru jaioberriri egingo diete ongietorria domekan plazan, eta, ostean, Lagun Artean dantza taldeko 72 ikaslek dantzan egingo dute. "Zazpi talde dira eta bakoitzak koreografia bat prestatu du egun horretarako. Ezin dugu gehiagorik esan, baina kolaboratzaileak egongo dira", dio dantza taldeko Oihane Vicente irakasleak.

Festak, musikaz blai

Jaietako beste protagonista kontzertuak izan ohi dira, eta plazan eta txosnagunean jarriko dituzte oholtzak. Plazan gaur Ziortza eta Leire erromeria taldeak joko du, eta bihar, Estampa de Mexico mariatxiek. Kittu taldeak egingo du emanaldia domekan.

Txosnetan, berriz, gaur Bele eta Raimundo el Canastero ari-tuko dira, eta bihar, Sukena, Hankaz Gora eta The Clayton taldea. Festen azken egunean, DJ Ynoxek jarriko du musika.

Halere, festetan zehar, elektrotzarangak, kantu-jirak eta beste zenbait musika emanaldik girotuko dituzte kaleak.

'Aramaixokue izengo bazan', laburren gaia

Beste urte batez antolatu du Aramaioko Gazte Asanbladak korto lehiaketa. Domekan izango da, 23:30ean, eta aurtengo gaia da *Aramaixokue izengo bazan*. Gazte Asanbladak adierazi du aurreko urteetan lehiaketak izan duen beherakada dela-eta aurten ziurtatu egingo dutela lan bat, behintzat, eta Asanbladak parte hartuko duela. Luzera librea da eta herritarrak animatu dituzte lehiaketa horretan parte hartzera: "Edonork hartu dezake parte, baita Aramaiokoak ez diren taldeek ere".

Halaber, azken urteetako ohiturari jarraituz, kuadrillen arteko pikea antolatu dute astelehen arratsalderako.

SAN MARTIN JAIXEK 2024

ARAMAIXO

Uztailak 5, 6, 7 eta 8

Aramaioar guztioi helduko zaigu gure San Martina!

"Aramaixoko Udalak jai zorionsuek opa dotsue aramaioarrei, eta gure dauen danak herrire etorteko eta jaitez gozatzeko gonbita eitten dau"

ARAMAIXO
bizi
www.aramaio.eus

BELDUR BARIK
GUNEA

Eraso sexistarik gabeko gunea

ARAMAION ERE!
KALEAK, GAUAK
ETA JAIAK
GEUREAK DIRA!

AHT gelditu!

etxera



Aretxarte merkatarien elkarteko hainbat kide jaiaren berri ematen. MIRARI ALTUBE

Badator Aretxarte Jaia herriko kaleak girotzera

Umeendako jolasek, musikak eta jatekoak bat egingo dute uztailaren 5ean eta 6an, merkatarien elkarteari esker; helburua herrian jai giroa sortzea da, eta, aldi berean, aretxabaletarrei gogoraraztea bertan daudela, haien zerbitzura

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Hirugarrenez antolatu du merkatarien elkarteak Aretxarte Jaia. "Herriarentzat egindako festa da, eta, era berean, gu, merkatari eta ostalariok, herritarrei hemen gaudela esateko eguna", adierazi du Aredar arrandegiko Aitziber Gaunak, Aretxarte presidentea. Horretarako, ekitaldiz betetako egitaraua prestatu dute, gaur arratsaldean hasita jai giroari ekin diezaioten aretxabaletarrek.

Bingo-musikatua sariekin

Lehenengoz 2022an antolatutako jaia urtetik urtera hobetzen joan gurako lukete: "Iazkoa, baina, handia izan zen, eta ez da izango samurra haren gainetik gertatzea". Horregatik, ildo beretik dator aurtengoa. Umeendako jolasek zeresan handia izango dute; gaur, hainbat gunetan egongo dira gaztelu puzgarriak, eta bihar apar-festa izango da.

Musikak ere ez du hutsik egingo. Batetik, batukada taldeak

Egitaraua

Uztailak 5, egubakoitza

- **17:00** Haurrendako jolasak: Kurtzebarriko kantxa, Herriko Plaza, Iargi plaza, Durana kalea.
- **18:30** Batukada: Danbayan. Kaleak.
- **20:00** Kontzertua: Zerendepya. Mitarte kalea.

Uztailak 6, zapatua

- **12:00** Batukada: Suthai. Kaleak.
- **14:00** Sagardo kupela. Herriko Plaza.
- **14:30** Bazkaria: paella. Herriko Plaza.
- **16:30** Apar-festa. Kurtzebarri eskolako kantxa.
- **17:00** Bingo. Herriko Plaza.
- **19:00** Kontzertua: DJ Txurru. Herriko Plaza.

izango dira kalejiran bi egunetan, eta, bestetik, Aretxabaletako Zerendepya taldearen kontzertua gaur, Mitarte kalean. Zapatu iluntzea, ostera, DJ Txurru eibartar ezagunak girotuko du.

Jatekoa ere nabarmendu gura dute; izan ere, herriko sukaldari ezagunek prestatutako paella-janean 200 bat lagun elkartuko dira. Bazkalostean bingo-musikatua egingo dute eta 20 euroko 46 bonu irabazteko aukera izango da.

Elkarteko kideek aretxabale-tarrak gonbidatu dituzte jaira: "Herritarren gustuak ase nahian, guztiengan pentsatuta ilusio handiarekin prestatu dugu; hortaz, parte hartu beldurrik gabe".

Ixadebalde uztailaren 19an

Uztailaren 19an, ostera, Ixadebalde merkealdien azoka egingo dute. Asmoa da Durana kalean elkartzea parte hartuko duten merkatari guztiak: "Eguraldiak laguntzen badu, behintzat, plaza barrenean egongo gara".

Jaietan murgilduko dira egunean Portasol inguruan

Uztailaren 11tik 14ra bitartean ospatuko dituzte, eta, hasteko, radarraren aurkako lasterketa egingo dute

M.A. ARETXABALETAKO

"Auzoa bizirik mantentzea". Helburu horri helduta antolatu ditu Portasolgo jaiak iaz ere horretan ibilitako lantaldeak, eta herritarrei eskerrak eman gura izan dizkie: "Eskerririk asko, modu batean edo bestean, aurreko urteko ezustekoaren ondoren babesa eskaini zein lagundu zeniguten guztiei! Izugarria izan zen. Zuengatik ez balitz hau guztia ez zen posible izango. Orain, merezi dugun moduan gozatzeko ordua da!". Egunean ekingo diete, uztailaren 11n, eta domekara bitartean askotariko ekitaldiak izango dira.

Kontzertu akustikoak

Hasteko, egunean, umeei ur-jolasak izango dituzte kiroldegi aurreko zelaian, 18:00etan. Musika osagai garrantzitsua izan ohi da Portasolen, eta lehen

egunean kontzertu akustikoak izango dira, 20:30ean hasita: batetik, Garazi eta Sala arrasatearrak, eta, bestetik, Edu Zardoya gitarra-jole tuterarra igoko dira txosnaguneko oholtzara.

Radarraren aurkako lasterketa

Aurten ere jokatu dute radarraren aurkako lasterketa, Ibarra tabernaren aurrealdean. Iazkoak ikusmin handia sortu zuen, eta bigarrena jokatzeko gogotsu izango dira gazteak zein helduak. Irabazleak saria izango du, gainera: txapela eta Goyaran jatetxean bi afari.

Hurrengo egunetan ere ekintza mordera izango dira; besteak beste, patata-tortilla eta paella txapelketak, artisauen eta bigarren eskuko produktuen azokak eta musika emanaldiak: Bengo, Pخلي & Ekso, Garratz, Sukena eta Kaos Urbano.

Defentsa pertsonal ikastaroa

Jaiei ekiteko, defentsa pertsonal ikastaroa izango dute emakumeek Arrasateko Borroka Arte Eskolako aikido irakasle Jose Matasek gidatuta. Uztailaren 11n izango da, eguna, 17:00etatik 19:00etara bitartean, kiroldegi aurreko zelaian. Izena aldeztu aurretik eman behar da honako telefono-zenbaki honetara idatzita –izena eta *Autodefentsa* idatzita–: 679 05 71 20.

Lanketa horrek bi zati izaten dituela azaldu du Matasek: "Atal bat teoria da, eta hor azaltzen dugu egoera bakoitzaren aurrean zelan jokatu; eta bestea, praktikoa; hainbat teknika irakatsiko ditugu". Edozein emakumek har dezake parte: "Ez dago baldintzarik, ez adinari, ez ezaugarri fisikoei dagokienez, eta oso teknika samurrak dira". Hortaz, guztiak gonbidatu ditu.

Batzar orokorra egingo du UDAk gaur, egubakoitza

Aretxabaleta kirol elkarteak urteko batzar orokorra egingo du gaur, uztailak 5, 18:30ean –lehen deialdia, 18:00etan–, Arkupen. 2023-2024ko denboraldiko emaitzen eta diru kontuen berri emango dute, baita 2024-2025eko denboraldia aurkeztu ere. Horrez gain, proposamenak, eskaerak eta galderak egiteko tarte izango dute bazkideek.

**Mobiliario
ARENZA**

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

Senegalgo Mbam herriko alkatea bisitan izan da

Aretxabaleako alkate Garikoitz Iturbek harrera egin zion Ngor Dioneri udaletxean, eta Yaakar elkartearen ekimenez laguntza eman duten hainbat eragile ere batu ziren; guztiei eskerrak eman zizkien, osasungintzarako eta hezkuntzarako emandakoengatik

M.A. ARETXABALETA

Senegalgo Mbam udalerriko alkate Ngor Dione Aretxabalean izan da astean. Yaakar elkartearen ekimenez eta hainbat eragileri esker osasun eta hezkuntza alorretarako laguntza jaso dute, eta hori eskertu gura izan du.

Amategia eta eskola

Yaakar elkartearen proiektuak babestu eta laguntzen dituzten Aretxabaleako Udaleko ordezkariekin eta eragileekin elkartu zen astelehenean udaletxean. Jasotako laguntza zertara bideratu den azaldu zien: "Osasun zaintzarako ekipatuta dagoen amategi bat finantzatu da eta herriko eskola hornitu egin da. Horiek aukera ematen dute lan-baldintzak hobetzeko, baita komunitatearen osasuna hobetzeko ere".

Aretxabaleako alkate Garikoitz Iturbek Yaakarrek egindako lanari balioa eman zion: "Herrian errotutako elkarrekin da, hainbat proiektuekin lanean dihardute eta inguruko eragileengan ere interesa piztea lortu dute". Hain zuzen ere, herriko ikastetxeetako hainbat ordezkari ere elkarrekin ziren astelehenean, Aretxabalea Lanbide Eskolakoak eta Kurtzebarri eskolakoak.



Dione, Iturbekeren alboan, Yaakareko eta ikastetxeetako ordezkariekin. TXOMIN MADINA

Lanbide Heziketa jomuga

2019an sortutako Yaakar elkarteak erronka berriak ditu eskuartean: Lanbide Heziketa abian jartzea, hain zuzen ere. Horretarako, ordenagailuen gela bat hornitu gura dute. Bien bitartean, Gipuzkoako Foru Aldundian eskatu dituzte dirulaguntzak, Mbamgo hamasei ikasle Senegalgo hiriburuan, Dakarren, jarraitu ditzaten ikasketak. Aukeren artean ere badago Aretxabaleako hezkuntza zentroetako irakasleak Afrikako herrialde hartara joatea informazioa ematera.

Mbamgo alkateak, era berean, bi herrien arteko elkartrukean sakondu nahi du: "Hori da, hain zuzen ere, kooperazioaren interes guztia. Mbamek erakutsi ahalko luke Aretxabalean zer-nolako baliabideak dituen, eta alderantziz". Iturbek ere begi onez ikusi du: "Ikasketa prozesu bat izan daiteke guretako ere. Eta asko jaso dezakegu bueltan".

Dione alkatea beste laguntzaile batzuekin ere elkartu da, Debagoieneko ospitalekoekin eta Arizmendi ikastolakoekin.

Kamikaz kolektiboak 'Troia' antzezlanak dakar eguaztenean

Uztaileko kaleko kultura ekitaldien baitan, Kamikaz Kolektiboak *Troia* ikuskizuna egingo du hilaren 10ean, 19:00etan, Kurtzebarri eskolako kantxan. Hiru superheroiren gorabeherak gertutik jarraituko dituzte ikusleek; izan ere, herrian agertutako objektu misteriotsu bat ikertzeko herritarren laguntza beharko dute.

Uztailaren 17an, ostera, ibilbide luzea duen Kresala dantza taldeak *Hitaz orhoit* ikuskizuna eroango du Herriko Plazara, 20:00etan. "Basakeriaren eta zentzugabekeriaren biktima ikusezinen oroimenez" sortutako obra da, gehienetan emakumeak protagonista dituen.

Zazpiko futbol txapelketa antolatu dute hilaren 13rako

Portasol auzoko jaien bueltan, zazpiko futbol txapelketa antolatu dute. Uztailaren 13an jokatuko da, 10:00etan hasita, Ibarra futbol zelaian, eta izena emateko epea zabalik dago hilaren 10era arte. Whatsapp bidez egin daiteke, telefono-zenbakira honetara idatzita: 684 07 59 06.

Gehienez hamabost laguneko taldeak osatuko dira eta 16 urte-tik gora izan beharko dute jokalariek. Izena ematerakoan 130 euro ordainduko dituzte.

Sariak jasoko dituzte lehenengo hiru taldeek: diruaren %50 lehenengoak, %30 bigarrenak eta %10 hirugarrenak. Eta MVP, *Pitxitxi* eta *Guante de oro* sariak ere banatuko dituzte.

San Kristobal jaiak ospatuko dituzte Larrino auzoan

Zaindaria izango dute gogoan Larrinon. Bihar, zapatua, 11:30ean irekiko dute txosna, trikitilariak lagun eginda, eta 12:00etan aizkora eta harri-jasotze erakustaldiak izango dira Jokin Larrieta- ren, Isidro Velascoren eta Cesar Fernandezek eskutik. Paella izango dute bazkaritarako, eta arratsaldean, 17:30ean, Larrinoko olinpiadak jokatuko dituzte, helduen eta haurren artean taldeak osatuta: sokatira, txapel-jaurtiketa eta lokotx-batzea.

Uztailaren 10ean, San Kristobal eguna, meza izango da 20:00etan, eta ondoren, autoen bedeinkapena eta luntxa. Autoa dotoreen apainduta duena saritu egingo dute.

Basotxoko kideen pintura erakusketa ikusgai dago

Basotxo erretiratuen elkarteko pintura ikasleen lanak Arkupeko erakusketa-aretoa itzuli dira. Ekainera arte jardun dute lanean, Idoia Elexpuru Ugarte irakaslearen aginduetara, eta orain, uztailean, egindakoak erakutsiko dituzte, ikasturteari bukaera emateko. Hamahiru ikasleren 34 lan daude zintzilik, figuratiboak eta abstraktuak, asko paisaiak, akuarelekin, olioarekin zein akrilikoarekin margotutakoak.

Hilabetea bukatu arte egongo dira ikusgai: astelehenean egu-bakoitzera, goizez, 11:00etatik 13:00etara, eta arratsaldean, 18:00etatik 20:00etara; eta zapatuetan, goizez.

Durana
Hertz Klinika

INPLANTOLOGIAKO ESPEZIALISTAK 3D TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

SANPEDROAK 2024



San Pedro bezperan, nagusien danborradan parte hartu zuten herritarrek Fernando Eskoriatza plazan.

Eguraldiak baldintzatu arren, jaietan ondo erantzun dute herritarrek

Udalak azaldu duenez, jendetza izan da San Pedro jaietan eta "jasotako feedbacka positiboa izan da; leku aldaketak egin ditugu; ekintzaren bat bertan behera geratu da, baina pozik gaude hartu ditugun erabakiekin eta jaiak eman dutenarekin"

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Ekainaren 28an hasi zituzten eskoriatzarrek sanpedroak, txupinazoarekin eta ondorengo nagusien danborradarekin. Ohi-turei jarraituz, ez ziren falta izan sokamuturra, kuadrillen arteko jokoak eta Euskal Jaia uztailaren 1era arte.

Euriak baldintzatu ditu zenbait ekintza herriko jaietan, eta, horren ondorioz, lekualdatu egin behar izan dituzte zenbait hitzordu. Hala ere, egon diren ikuskizunak, bazkariak, musika kontzertuak... arrakastatsuek izan direla adierazi dute Eskoriatzako udal ordezkariak.

Hartu beharreko erabakiak

"Antolatu ditugun ekintzengatik zoriondu egin gaituzte; beraz, orokorrean, dena ondo joan da. Eguraldiak ez du askorik lagundu, eta erabaki batzuk hartu behar

izan ditugu. San Pedro eguneko sokamuturra eta bandaren emaldia euripean izatea pena izan da; uztailaren leko herri bazkaria ere plaza aurrean hobeto egongo zen kiroldegian baino; apar-festa bertan behera uztea erabaki genuen... Edozelan ere, jende dezente batu da herrian; nabarmentzekoa da, esate baterako, Zopilotes Txirriaus taldearen kontzertuan plaza nola zegoen. Egin direnekin pozik gaude eta hartutako erabakiekin konforme", adierazi du Arantxa Unzuetak, Eskoriatzako Udaleko Kultura teknikariak.

HAURREN DANBORRADA GOIZEAN EGIN IZANA, ALDAKETA ONA IZAN DELA DIO UDALAK

Haurren danborrada

Ordua aldatuta egin dute aurten haurren danborrada. Normalean, arratsaldean izan ohi da, eta 12:00etan egitea erabaki ona izan dela azaldu du Unzuetak: "Arratsalderako nekatuta izaten dira haurrak, eta haurren danborrada ordu horretan egitea eskertu egin digute guraso askok".

Txosnagunekoak "pozik"

Eskoitzako Txosna Batzordeko kideek ere ondo baloratu dituzte jaiak. "Beti daude hobetzekoak, baina ezarritako erronkari eutsi diogu", adierazi du Mikel Letonak, Eskoitzako Txosna Batzordeko kideak. "Jende asko aritu da, bai lanean, baita giroan ere. Kuadrillen arteko jokoak izan duten xarma eta giroa baloratzen ditugu, batez ere, eta gero, bazkaltzen izan ginen jende kopurua. Ia 300 lagun".



Tximeleta gelako kideek eman zieten hasiera San Pedro jaiak.



Kuadrillen arteko jolasetan.



Sokamuturra euripean egin zuten.



Zopilotes Txirriaus taldearen kontzertuan plaza jendez beteta izan zen.



Herri bazkaria kiroldegian egin zen plazan beharrean. ARGAZKIAK: GOIENA

Open Axtrokirako gertu daude 130 borrokalariak

Kenpoaren diziplinak ezagutzeko txapelketa izango da zapatuan Manuel Muñoz kiroldegian. Tatamia jarriko dute zenbait modalitate jokatzeko, eta, hain zuzen ere, Debagoienara lehen aldiz ekarriko dute oktogono bat, kaiolan borrokatzeko

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA
Atama Kenpo Eskoriatza taldeak antolatuta, eta IKJOk (International Kenpo JiuJitsu Organization) babestuta, lehenengoz jokatuko da kenpo eta kenpofightma diziplinen Axtroki opena Eskoriatzan. Manuel Muñoz kiroldegian hasiko dira, 10:00etan, lehenengo erakustaldiekin; 11:00etan, berriz, O'Dogherty tabernan partaideen pistzeak egingo dituzte; *face to face* deritzenak egingo dituzte eta *photocall*-a egongo da. 14:00ak arte borrokkak egongo dira, eta, 14:00etatik 16:00ak bitartean atsedean hartu ostean, 21:00ak arte kaiolako borrokkak izango dira.



Bi borrokalari tatamian. ATAMA ESKORIATZA

Modalitateak ezagutzeko

Guztira, 130 parte-hartzaile izango dira, leku askotatik etorritakoak: Andaluzia, Galizia, Katalunia... baita bertakoak ere. Hain zuzen, Eskoriatza Atama taldeko hoge borrokalariak ere parte hartuko dute lehiaketan,

bakoitzak bere modalitatean. "Borroka ugari izango ditugu egun osoan. Kenpo tradizionalariekin hasiko gara, eta katen, kobudoaren eta goshinaren -defentsa pertsonala- lehiaketak egingo dira, baita borroka, se-

mikenpo, submission eta kenpofightmma modalitateak ere", dio Atama Kenpo Eskoriatza taldeko Rafa Carriet entrena-tzaileak.

Oktogonoaren xarma

"Epaile lanetan ariko naiz, eta niretzat sekulako oparia da epaile lanetan aritzea. Lehenengoz izango dugu oktogonoa bailaran, eta, guztira, hamasei borroka izango ditugu kaiola horretan. Hasiberrientzako txapelketa da, baina parte-hartzaile guztiak munduko txapeldunak balira bezala sentiarazten saiatuko gara", dio Carrietek.

Atamakoak gogoz daude

Juan Antonio Garcia *Mondra*, Jose L. Maqueda, Danel Izurra-tegi, Leire Rato, Ioritz Diaz eta Ion Garcia izango dira Atamako ordezkari nagusiak, eta gogoz daudela azaldu du *Mondra*-k: "Ez dago faboritorik, baina maila ona eman nahi dugu".

Ibilaldi osasuntsua, herriaren historia ondo ezagutzeko

Eskoriatza Lagunkoia taldeko kideek antolatutako irteera uztailaren 6an izango da, zapatua

I.B. ESKORIATZA

Eskoriatza Lagunkoia kideek ibilaldi osasuntsua antolatu dute uztailaren 6rako. Bertan, herriko aberastasun monumentalak ezagutzeko aukera izango dute, Arantxa Otaduy Arrasateko historialariaren laguntzarekin.

Ibilbidea bi kilometrokoa izango da eta bi orduko denbora-tartean egingo dute. "Bisita adinekoen mugikortasunean pentsatuta dago, eta, horregatik, aurreikusita dago horrela izatea. Bi kilometro, bi ordutan, eta hamabost minutuan behingo

atsedenaldiekin. Gainera, gure eraikin garrantzitsuenei eta haien historiari buruzko azalpen interesgarriak jasotzeko aukera izango dute datozenek. Azalpen horiek jasotzeko, itzalak eta eserlekuak dituzten espazioak aukeratu ditugu. Hau da, oso lasai egingo dugu ibilbide osasuntsua", dio Jose Mari Kortazarrek, Eskoriatza Lagunkoia kideak.

Ibarraunditik abiatuta

Ibarraundi museotik abiatuko da irteera, 10:00etan, eta hau izango da ibilbidea: Iturrizar,

San Pedro parrokia, Huhezi unibertsitatea, tren geltoki zaharra eta, aukeran, kanposantua. Hilerrira sartu nahi ez dutenentzat, berriz, burdinola zaharre-tza zuzenean joatea aurreikusita dago, eta Fernando Eskoriatza plazan irteerari amaiera eman. "Gomendioei dagokienez, oinetako erosoak, bisera eta ur pixka bat eramateko eskatzen diegu parte-hartzaileei".

Eraginkortasuna ahalik eta onena izan dadin, ahalik eta plaza gehien egotea ahalbidetuko dutela azaldu dute, eta izena emateko gaur izango dute azken eguna interesdunek, Manuel Muñoz kiroldegira joanda. Edozein argibide edo informazio nahi duenak *eskoriatzagalunkoia@gmail.com* helbidera idatzi dezakeela ere azpimarratu dute.



Duela hiru urte ermita kanpoan ospatu zuten San Martin eguna. GOIENA

San Martin eguna ospatuko dute gatzagarrek Goierri auzoan

Domeka honetan, hilaren 7an, Goierri auzoko San Martin ermita kanpoan egingo dute ospakizuna

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Goierri auzoko ermitan ospatu izan dute gatzagarrek San Martin eguna. Hala ere, duela hiru urtetik hona ermita kanpoan egiten dute ospakizuna; izan ere, eraikinaren egoera ez da ona, eta ezin da barrura sartu. "Eguraldia ona edo txarra izan, ermita kanpoan dagoen belardian ospatuko dugu San Martin eguna, ermita barrura sartzea ezinezkoa da eta. Txarra egiten badu, karpa bat izango dugu prestatuta", adierazi du Juanito Bengoak, Leintz Gatzagako Mendi zinegotziak.

Modu xumean, gertukoa

Bengoak adierazi duenez, 40-50 lagun inguru batzen dira urtero ermitaren bueltan, eta egitaraua urterokoa izango da. 12:30ean, meza nagusia izango da, eta, amaitzean, musikaz girotuta pintxo batzuk jan ostean, dokean aritzeko tartea hartuko dute animatzen direnek. "Normalean, 30 lagun-edo animatzen gara doke txapelketan parte hartzera. Gure erara jokatzen dugu beti; hau da, gure oinarriak eta baldintzak ezartzen ditugu, eta puntuazio sistema ere gure erara egindakoa da."

Erabilera askotariko espaziorako ia 32.000 euro jaso dituzte

Herriko eragileen eta bestelako zerbitzu ugari batzen dituen lokaleko lanak maiatzean amaitu zituzten

I.B. GATZAGA

2023 urteko Erein egitasmoaren deialdiaren barruan, *Erabilera anitzeko udal lokala egokitzea* izeneko proiektua garatu dute Leintz Gatzagan. Proiektu horren baitan, Leintz Gatzagako eskola zegoen espazioan erabilera askotariko lokala egokitu dute. Hain zuzen ere, 2021ean itxi zuten eskola, eta, bertan herriko zenbait zerbitzu batzeko asmoz, honako zerbitzu hauek eskaintzen dituzte: bilera gela bat, podologia, ile-apaindegia, fisioterapia eta nutrizionista

zerbitzuak eta kultur taldeen-tzako bilgunea ahalbideratzeko eremua. Horrekin batera, hitzaldiak, ikastaroak... emateko eremua ere badute gatzagarrek erabilgarri.

2024ko maiatzean eman zaie bukaera lan horiei, eta inbertsioen aurrekontua 51.140,12 eurokoa izanda, onartutako laguntza 31.706,87 eurokoa izan da. Azken horri dagokienez, Europako Batasunaren laguntza 25.365,50 eurokoa izan da eta Eusko Jaurlaritzatik jasotakoa, berriz, 6.341,37 eurokoa.



EH Bilduk kudeatzen duen Udal Gobernuaren bilera bat, udaletxean. B.U.

"Oinarri sendoa" sortuta, "eraldaketarako" unea

EH Bildu "pozik" dago agintaldiko lehen urtearekin, eta diote "aldaketatik eraldaketarako" jauzia emateko "oinarri sendoa" sortu dutela. Inbertsionarako ia sei milioi euro eta erdi aurreikusituz, eta hortik 4.600.000 euro inguru urbanizazio lanetarako izango dira

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA 2023-2027ko agintaldia hasi eta urtebete pasatxo igaro da, eta orain arte egindako lanaren balorazioa egin du EH Bilduren Udal Gobernuak. Gorka Artola alkatea buru duen gobernu taldea "pozik" dago lehen urte honekin: "Lehen urte hau plangintza estrategikoaren lekuko izan da, funtsezko erronkak identifikatu

dira, eta Bergara inklusiboagoa, iraunkorragoa eta dinamikoagoa izateko oinarriak ezarri".

"Aldaketatik eraldaketara"

Horretarako Artolak ondoan duen taldearen "sendotasuna" azpimarratu du: "Aurreko agintalditik datozen zinegotzien esperientzia eta legegintzaldi honetan gehitu diren ilusioa

partekatzen ditu taldeak. Herri-gintza modu parte-hartzailean ulertzen dugu, eta eredu hori kalera atera nahi dugu, elkarte, eragile eta bergararrekin harreman zuzena izaten saiatuta. Aurreko agintaldian Bergara hobe baten aldeko oinarriak jarri genituen, eta orain jauzia emateko garaia da, aldaketatik eraldaketara igarotzeko unea".

Bost lan-ildoak garatzen ari dira

Agintaldirako planak bost lan-ildo nagusi ditu: arnaguneak, euskara, zaintza eta bakardadea, etxebizitza eta alde zaharra eta merkataritza. Arnaguneak nola ulertzen dituzten gogora ekarri dute: "Lasaitasuna, elkar ezagutzea, feminismoa, alaitasuna, euskara eta ongizatea sustatzen dituzten guneak sortzera bideratutako esparrua da". Eta horren adibide moduan jarri dute Arri-zuriagako proiektua: "Obra aurrrera doa eta kultura zein sormen eremua izango den proiektuaren diseinuarekin lanean ari gara. Feminismoak herriari egindako ekarpena aintzat hartuz emakumeen txokoa ere bertan kokatuko da; txokoa diseinatzeko prozesua martxan dago".

Gainera, Euskara Plana amaitzear dutela adierazi dute: "Euskal komunitate aktiboago eta konprometitua baten aldeko apustua egiten dugu. Eta, besteak beste, herriko enpresetan euskara sustatzeko *Harixa* ekimenak oso emaitza onak lortu ditu, eta eredu Debagoienara ere zabaltzea erabaki da". Zaintza eta bakardadearen lan-ildoari dagokionez, gogoratu dute Zaintza Plana martxan dagoela eta Adinekoen Kontseilua egonkortzeko pausoak eman direla; hurrengo urratsa Haurren Kontseilua eratzea izango dela jakinarazi dute.

Era berean, Gobernuak "argi" du etxebizitza baterako sarbidea izatea, bereziki gazteentzat eta herritar zaugarrientzat, "lehen-tasuna" dela: "Datozen lau urteetan etxebizitza eskuratzeko aukerak handitzeko konpromisoa hartzen dugu". *Alde zaharra eta merkataritza* deritzon lan-ildoaren bueltan, Gobernuak uste du "funtsezkoa" dela alde zaharra

zaharberritzea: "Plaza eta Barrenkalea eraberrituko dira, eta hutsik dauden lokalak biziberritzeko neurriak hartuko dira, urbanizazio-plan orokorra berri-tzeari arreta berezia eskainita".

Inbertsio-plana zehaztu dute

Hain zuzen ere, agintaldiko helburuak lortzeko 6.416.000 euroko inbertsio-plana zehaztu du Udal Gobernuak, eta horietatik 4.600.000 euro inguru "hainbat urbanizazio-lan" egiteko baliatuko dituzte; horien artean, bereziki azpimarratzekoak dira Martokoa berriro urbanizatzea eta San Martin plaza eta Barrenkalea berritzea.

Agintaldiko beste inbertsio garrantzitsu bat izango da Arri-zuriaga "kultura eta feminismoaren arnas zentro berri" moduan eraberritzea; 895.000 euroko aurrekontua du proiektu osoak. Horrez gain, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) berritzea 500.000 euro bideratuko dira eta, bestetik, udal zerbitzuek 2025ean izango dituzten espazio beharretarako 395.000 euro gorde dituzte -garai bateko Lua arropa denda erosi du Udalak udaletxeko espazio gabeziari aurre egiteko, eta erosteketa 2025ean gauzatuko da-.

Azokako Elikaenea, irailan

Bestalde, Oxirondo azokako Elikaenea denda-topaguneak irailan irekiko ditu ateak, tokiko ekonomia, elikadura eta sukaldaritza oinarri hartuta.

AZOKAKO ELIKAENEA DENDA-TOPAGUNEAK IRAILEAN IREKIKO DITU ATEAK, TOKIKO EKONOMIA ARDATZ

'Bertatik bertara', ostalaritzan euskara presenteago egon dadin

Bergarako Udalak aurten ere bat egin du UEMAK uda sasoian martxan jarri ohi duen kanpaina bereziarekin

J.B.L. BERGARA

Bergarako Udalak bat egin du aurten ere Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) bultzatutako *Bertatik bertara* egitasmoarekin. Udako martxan jartzen den ekimen bat da, eta

herrira etortzen diren bisitariak eta herriko ostalariak, tabernariak eta bezeroak euskara gehiago erabiltzera animatu nahi dira kanpaina horren bitartez. Horretarako, UEMAK mahai gaineko mantel txikiak atera ditu

eta bertan sei hizkuntzatan agertzen dira ostalaritzan sarri erabiltzen diren hitz eta esamolde batzuk, eta QR bidez hitzegtiko bat deskargatzeko aukera ere eskaintzen du.

Euskara Zerbitzuaren laguntza

Udaletik bidali zaie ostalariari parte hartzeko gonbita, eta eskatzen zaien bakarra da jendarean erabiltzen dituzten karteletan, menuetan, oharretan, webguneetan... euskara erabiltzea. Eta testuak euskarara



Aurtengo kanpainako kartela. UEMA

itzultzeko laguntza ere eskaintzen zaie; Udaleko Euskara Zerbitzura (euskara@bergara.eus) edo UEMARA (943-81 66 99) jo dezakete ostalariak; www.bergara.eus webgunetik ere deskargatu daiteke hiztegia.

Gonbidapena jaso ez duen norbaitek kanpaina honetan parte hartu nahi badu, Udaleko Euskara Zerbitzuan eska dezake. Horretaz gain, herritarrek eta bisitariak euskaraz egitera animatzeko beste informazio-orri bat ere banatuko da.

Zirkuitu komertzialetik at mugitzeko, oztopo barik

Eskaintza komertzialetik kanpoko kultura ekintzak 'Zuk zeuk egizu' filosofia oinarri hartuta sortzeko, Oztoporik Ez! kolektiboa sortu dute kartzela zaharrean: "Egun, aretoak betetzea eta sarrerak agortzea bihurtu da lehentasuna, eta ez sortzen den kultura-giroa zaintzea"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA
Eskaintza edo zirkuitu komertzialetik kanpo eta *Zuk zeuk egizu* filosofia oinarri hartuta askotariko kultura ekintzak sortzea. Horiek dira, labur esanda, kartzela zaharrean bueltan sortu berri den Oztoporik Ez! kolektiboaren ezaugarri nagusiak. "Duela hiru hilabete, hamar bat lagun elkartu ginen kartzela zaharra etxe moduan hartuta askotariko arte adierazpenei lekua egiteko", adierazi du kolektiboko Jone Albenizek.



Maite Zaloña, Jon Bedialauneta eta Jone Albeniz, kartzela zaharrean, asteon. J.B.L.

'Sold out'-a, "arriskutsua"

Ekainaren 29an egindako "jai berezi batekin" aurkeztu zuten taldea. "Ez dugu ezer berririk asmatu, inguruan badaude hainbat adibide gauza asko antolatzen ari direnak. Baina argi dugu zirkuitu komertzialetik kanpokoak erakartzen gaituela; beste formatu eta helburu batzuekin antolatzen diren jaialdi handiek jende asko mugitzen dute, eta guk nahiago dugu gure espazioa hortik kanpo izan. Gogotsu gaude gaztetxean ekintzak antolatzeko, eta hori taldearen babesarekin egitea beti da lagungarri", gaineratu du Maite Zaloñak.

Bestalde, gaur egungo *sold out*-aren kulturaren gainean ze iritzi duten galdetuta, honako

hau dio Jon Bedialaunetak: "Pandemia inflexio-puntu bat izan zen denontzat, eta, nor bere lekutik, jende asko irten ginen gauzak antolatzeko gogoz. Kultura eskaintza asko indartu da, baina dena ez da ona; *sold out*-aren fenomenoaren arriskutsua izan daiteke; artista estutu dezake edo bide hori hartzeraren eraman. Gaur egun aretoak betetzea edo sarrerak agortzea da lehentasuna hein handi baten, eta ez da horrenbeste zaintzen sortu daitekeen kultura-giroa denontzat den segurua eta eroso. 30 lagunendako kontzertu bat emankorra goa eta politagoa izan daiteke izerdi betean 300 lagunez goraino dagoen ikuskizun bat baino".

Uztailaren 12an dokumentala

Artea eta kultura gaztetxean modu autogestionatuan sortu eta eskaintzea "askoz zintzoagoa" dela uste dute; ez da zenbat, zelan baizik.

Egitaraua modu horretan osatzea da asmoa; hurrengo zita uztailaren 12an izango da, Arrasateko musika irakasle Jesusi Etxebarria protagonista duen *Punkaren beste alde* dokumentalaren proiektioarekin; patioan emango dute, gauez. Irailerako edo urrirako aurreikusita dute Tatxers eta Zikin taldeak ekartzea: "Oraindik, baina, ez dugu guztiz lotuta". Hori bai, gogotsu dagoen edozein kulturazalerentzat atak "erabat" dituzte zabalik.



NIRE USTEZ

MIKEL GOENAGA

Alarde handirik gabe

San Martzial eguna ospatu genuen bergararrok joan den igandean. Eta han izan ginen gure kuadrillakoak. Aurten ere bai. Inork ez du zehazki gogoratzen zenbat urtetan igo izan garen: 40, 45...? Nik neuk ez dakit. Baina urteroko ohiturari eusten diogu. Aurrekua hasi aurretik, bertsotan honela kantatu zuten: "Nola aldatu den San Martzial". Eta aurrekua ikusten geundela, pentsatzen aritu izan nintzen nolakoa zen aurrekua lehen eta nolakoa den gaur egun; nola aldatu den emakumeen presentzia soka dantzan. Eta nola burutu den aldaketa, normaltasunez, zalapartarik gabe.

Eta hau pentsatzean, gogoratu nintzen badirela gure inguruan beste herri batzuk, non San Martzial eguna ospatzen duten baita. Distira eta zalaparta handiko jaiak dira. Oihartzun zabalekoak. Eta harritu egiten naiz nola han ez duten gauzatu hemen gauzatu dena. Gure San Martzial askoz ere xumeagoa izango da, zalaparta eta oihartzun gutxiagokoa. Baina normalagoa, berdintsuagoa. Arrazoi zuen bertsolariak: "Nola aldatu den San Martzial". Alarde handirik gabe.

OHARRAK

Sanmartinak: helduen danborradan izena eman

Irailaren 15ean egingo den danborradan parte hartzeko izena ematen daiteke uztailaren 15era arte; galdetegia www.bergara.eus-en dago. Baldintzak: entsegu guztietara joatea, zuzendari bat izendatzea eta antolakuntza-bileretan parte hartzea.

Herri Eskolako arropa ume eta helduentzat

San Martin guraso elkartearen eskutik, izerdi-jertse eta kamiseta berriak heldu dira: "Lehen banaketa oso arrakastatsua izan zen, eta beste aukera bat ireki dugu". Irailaren 20ra arte dago aukera eskatzeko: goiena.eus/komunitatea/san_martin_ge.

Ortika taldearen kontzertua, astelehen batez

Italia eta Britainiatik datorren Ortika taldeak kontzertua emango du uztailaren 8an kartzela zaharrean (20:00); Ortika taldearen anarko-punk doinuez gain, Bilboko T.K.M. punk taldeak ere joko du. Sarreraren prezioa, borondatea.

Tasen erreziiboak: zaborra, ura eta estolderia

Udalak gogora ekarri dio dagokionari hiru tasa horien erreziiboak ordaintzeko epea irailaren 10era arte dagoela zabalik. Argibide gehiagorako: www.bergara.eus.

"Giro ezberdinak" kartzela zaharrean

Kolektiboa aurkezteko festa "oso ondo" joan zen: "Azken egunetan buru-belarri ibili ginen lanean kamisetak, pegatinak eta beste hainbat kontu egiten. Gero, eguna bera oso polita izan zen. Gaztetxe barruan giro ezberdinak sortu ziren eta jende askotxo etorri zen kanpotik ere". Giro berri baten adierazle, areto nagusian Ereindajanekeo hanburgesak jateko aukera egon zen.



Afartzeko gunea aurkezpenean, Oztoporik Ez! kolektiboko DJ batekin. M.A.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

21
K
KALITATEA

Enpresa Registrada N°90/025



Astelehenean hasi ziren Ipintzako belar artifiziala kendu eta berria jartzeko lanak; irudian, langile bat makinarekin lanean. BKE

Ipintzako zelai berritua, abuztu hasierarako gertu

Ipintzako zelai artifiziala berritzeko lanak astelehenean hasi ziren eta Udalak espero du hilabete batean amaitzea. Aldaketa lau urte berandu badator ere, BKEk pozik hartu du albistea, 2024-2025eko denboraldia "ganorazko" bi futbol zelairekin abiatuko dutelako

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA 2024-2025eko denboraldiari begira Ipintza futbol zelaiak itxura berria izango du, astelehenean hasi ziren-eta instalazioak berritzeko lanekin. Udalak 230.000 euro bideratu ditu zelai artifizial berria jarri eta bestelako hobekuntza batzuk egitera. "Belar artifizial zaharra kendu zen eta orain ureztatzeko-sisteman probak

egiten ari dira; horren ostean, belar artifizial berria jarriko dute. Belarra berritzeaz gain, zelai inguruko sarea eta ate guztiak berritu egingo dira. Behar handia zegoen belarra aldatzeko, gomendioa delako gehienez hamar urtez izatea, eta Ipintzakoak 15-16 urte zituen. Astelehenean hasi ziren lanak eta aurreikuspena da hilabete batean guztiak

amaitzea", adierazi du Kirol zinegotzi Aitor Arantzabalek.

Gipuzkoako onenen artean

Hain zuzen ere, azpiko zoruaren planimetria zuzendu eta ura eramateko kanaleten sistema aldatu beharra dagoen edo ez probatzen ibili dira egun hauean, eta beharra egongo balitz hura ere aldatu egingo dute.



Ipintza futbol zelaia belar zaharra kendu berritan, airetik ikusita. BKE

16 urte igarota, agur belar zaharrari

2008ko ekainaren 28an inauguratu zuten Ipintzako zelai artifiziala. Orduetik ez da aldatu, eta adituek gomendatzen dute gehienez hamar urtean behin aldatzea. Astelehenean hasi ziren belar zaharra kentzen, eta asmoa da abuztuko lehen asterako lanak amaituta izatea.

Gainerakoan, belarra ez ezik, ateak, inguruko sarea eta asperstoreak ere berrituko dituzte.

Aldaketaren albistea pozik hartu dutenak BKEko futbol saileko kideak dira, eurak dira-eta Ipintzako eta Agorrosingo zelaien erabiltzaile nagusiak. Aldaketa "berandu samar" datorrela dioten arren, aurrera begira izango dituen onurekin pentsatzen jarrita daude, Iosu Elorza presidentek zehaztu duenez: "Urteetako atzerapenarekin badator ere, pozik hartu dugu Udalaren erabakia; bereziki, Ipintzako belar artifizial zaharra pairatu duten neska-mutikoei begira. Izan ere, azken bi edo hiru urteetan egoera kaskarrean aritu dira entrenatzen, eta espero dugu aldaketa onuragarria izango dela gure jokalarien formakuntzarako eta bilakaerarako". Behin Ipintza

berrituta, Elorzak dio Gipuzkoako instalazio onenetakoak izango dituztela: "Bi zelai izango ditugu ganorazkoak, belar onarekin, eta uste dugu klubaren harrobirako oso ona izango dela".

Hurrengo urratsa, aldagelak

Bi zelaiak berrituta, Elorzak gogora ekarri du aldagelak berritzea izan beharko litzatekeela hurrengo urratsa: "Agorrosin berrirako bigarren fasea noiz gauzatuko zain gaude. Gure asmoa bigarren fasea aurten hastea zen, baina Udalaren partetik ez dugu konfirmaziorik".

UDALAK 230.000 EURO BIDERATU DITU ZELAI BERRIA JARRI ETA HOBOKUNTZA GEHIAGO EGITERA

Talde nagusia indarberritzera

Emakumezkoen Ohorezko Erregional taldeak 2024-2025eko denboraldirako hiru fitxaketa iragarri ditu asteon: Uxue Iparragirre eta Nagore Otadui antzuolarrak eta Malen Arriola eibartarra. Iparragirrek Eibarren emakumezkoen bigarren taldean jokatu du eta Otadui Eibarren jokatu du hiru urtez, Euskal Ligan; eta Arriola itzuli egingo da Bergara datorren denboraldirako.



BKE FUTBOL SAILA

Udako txapelketa amaituta, Semicup-ek hartuko du lekukoa

Ekainaren 28an jokatu zituzten, Agorrosin, udako txapelketa finalak. Txutxufletas, Leones de Montepinar eta Arabes taldeak izan ziren nagusi, nor bere kategorian. Aurten azpimarratu behar da nesken aldetik inoizko parte hartze handiena izan dela. Uztailaren 13an Semicup txapelketa jokatu da, Seminarioko patioan: [instagram.com/semi_cup](https://www.instagram.com/semi_cup).



Txapelketako finaletako bat. GOIENA

Berumuga zikloko lehena gaur, Eskoziatik Espolaira

Berumuga musika zikloaren 24. edizioa irekiko du gaur Edinburgoko the Winntown Marshals taldeak. "Eskarmentu handiko" boskoteak Euskal Herrian emango duen lehen kontzertua izango da Bergarakoa; Espoloiaren izango da, 22:00etan, eta doan

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA
Gaur hasiko da Berumuga musika zikloa. Aurten ere lau proposamen interesgarri izango dira: gaur, uztailak 5, The Winntown Marshals taldeak joko du; uztailaren 12an, John Nemeth & The Blues Dreamers taldeak; uztailaren 19an, Rhythm Shakers taldeak; eta uztailaren 19an, azkenik, Northagirres-ek. Kontzertu guztiak Espoloiaren izango dira, 22:00etan, eta doan.

Bergarako Udaleko Kultura Sailak eta Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak antolatzen dute Berumuga, udako kultura eskaintzan oso errotuta dagoen ekimena; aurten, pop-rock, rhythm and blues, soul eta garage-rock doinuak izango dira nagusi.

Gaurkoak "oso gogotsu" datoz Edinburgoko (Eskozia) The Winntown Marshals taldeak joko du gaur. Gaztelupeko Hotsakeko Ubane Uzinek honela gomendatu du gaurko kontzertua: "Eskarmentu handiko taldea da, eta Euskal Herrian emango duten lehen kontzertua izango da Bergarakoa; baita, seguruenik, penintsulan emango duten lehen emanaldia ere. Bergaran jo ostean Donostian egongo dira. Oso gogotsu datoz eta uste dugu aukera paregabea dela gure mugeta-



The Winntown Marshals taldeak irekiko du Berumuga, gaur (22:00). GAZTELUPEKO HOTSAK

rik kanpo musika arloan gertatzen denaren adibide eder bat zuzenean gozatzeko. Hainbat disko atera dituzte, ibilbide luzea daroaten seinale; hala ere, ez dira Eskoziatik askorik irten izan eta esan daiteke Bergarako publikoa izango dela haien irteera apurretako baten lekuko. Espoloiara joatea aukera ona izango da, ez zaizue damutuko".

Gainerako hiru proposamenak Berumugako beste hiru taldeen gainean honako hau aurreratu du Uzinek: "AEBetako John

Nemeth izen handi bat da blues munduan, eta, jaialdiz jaialdi dabilen arren, gurekin zuen konpromisoa beteko du. Madrilgo Rhythm Shakers ere izango dugu Espoloiaren; Tequila musika taldeko abeslariaren taldea da, proposamen interesgarria bezain lasaia. Zikloa itxiko du Zumarragako Northagirres taldeak; poztekoa da etxeko talde bat ere izatea. Azpimarratzekoa da Berumugan, beti bezala, emakumeen presentzia bermatu dugula, eta aurten ere horrela izango da".



Bele taldeko buru Lide Hernando, promoziorako argazki batean. BIDEAN

Bele, Usondoko kontzertuei ekiteko

Aurten ere Usondo parkeko kontzertuek ez dute hutsik egingo (22:00). Bihar, uztailak 6, Bele taldeak joko du; uztailaren 11n, Kuttunek; eta uztailaren 18an, azkenik, Aldakan taldeak.

Bele: orain arteko bidean, "sentsazio politik"

Entsegu batera bidean harrapatu du GOIENAK Bele taldeko buru Lide Hernando: "Ekainean geldi egon gara eta beharrezkoa zen entsegu luze bat egitea asteburuko bi kontzertuetarako". Izan ere, gaur Aramaioko jaietan joko du. Kontzertuan *Herrari* diskoa izango da protagonista eta pare bat bertso ere joko dituzte. "Ordubeteko kontzertua izango da, une dantzagarri eta intimoez osatua", aurreratu du Hernandok. Ezagutzera eman zuen Liher taldetik "modu askotan" ezberdintzen da Bele, Hernandoren arabera: "Bele une honetan nire bizitzako proiektu musikalki garrantzitsuena da; musikalki sentitzen dudanetik gertuen dagoena da, abesten eta interpretatzen gehien gustuko dudana. Liher taldetik modu askotan ezberdintzen da; Liherren rocka egiten genuen, eta Bele musika beltza da. Eta, bestetik, sormen aldetik; Liherren talde moduan sortzen genuen eta Belerekin bakarka sortzen dut. Azkenik, esango nuke eszenaratzea ere oso ezberdina dela bien artean. Orain arteko bidez asko ari da gozaten: "Politik izan da orain arteko bidea. Iaz singleak ateratzen joan nintzen, jendeak zetorrenaren berri izan zezan eta Beleren abaniko zabal guztia ezagutu zezan. Aurten birari ekin diogu, eta dagoeneko hamaika plazatetik igaro gara. Sentsazio politik ditut, jendea gustatzen ari zaiola uste dut; baina musika beltzean ez dago eszena trinkorik... oraindik".

Etorkizunari gogotsu begiratzen dio: "Ikusleek eta programatzaileek utzi bitartean, bizitza luzea izango du Belek; gu gogotsu gaude, eta etorkizunerako ideia potoloekin. Baina, esan bezala, ideia politekin soilik ezin da aurrera egin; industriaren laguntza ere behar da.

Xamatx taldeko dantzarien sorpresa ederra San Martzialen

Kide batzuek 50 urte bete dituztela-eta, emanaldi berezia bezain barregarria egin zuten soka dantzaren aurretik

J.B.L. BERGARA

San Martzialgo erromeriako ezusteko ederra izan zen Xamatx dantza taldearen *Tia Laran seme-alabak* ikuskizuna. Pozik zegoen amaieran Xamatzeko kide Arkaitz Arana: "Aprobe-

txatu dugu Xamatzen ibilitako kide batzuk 1974koak garaela soka dantzaren aurretik dantzan egiteko. Koreografia berri bat asmatu dugu ezin bereziagoa den San Martzial eguna omentzeko. Jendeak barre egin du,

txalo, eta esan digute asko gustatu zaiela; beraz, oso pozik. Datorren urtera begira ez dugu ezer pentsatu; ikusiko da. Soka dantza da garrantzitsuena, mantendu beharrekoa".

Albiste lazgarri bat ere utzi zuen egunak, alboradan parte hartu behar zuen Lizarrako gaiteroetako bat ezustean hil zen-eta herriko ambulatioan; erromerian gogoan izan zuten hildakoa. Izan ere, soka dantza egin zuten dantzari eta udal ordezkariak dolu-xingola jantzi zuten besoan.



Xamatx taldekoen emanaldiaren amaiera; txalo zaparrada luzea jaso zuten. GOIENA



Zurrategiko kioskoaren eraberritze lanak atzo. A.R.K.

Etzi inauguratuko dute kioskoa, kontzertuekin

Apirilaren amaieran hasi zituzten kioskoa eraberritzeko lanak, eta aurreikusitako epean dira bukatzeak. Amustei eta Lemak taldeen kontzertuekin inauguratuko dute domeka arratsaldean; datorren astean, berriz, Ki.imak eta Azkaiter Pelox izango dira

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarría ANTZUOLA

Lan gutxi batzuen faltan, etzi, hilak 7, inauguratuko dute Zurrategiko kiosko eraberritua. Kontzertuak izango dira: Bergarako Amustei taldea izango da oholtza gainera igotzen lehenengo, arratsaldeko zazpitan; ondoren, 20:00 aldera, Lemak taldearen txanda izango da. Bi

bergarar eta antzuolar bat –Antxon Arregi Iturbe– dira taldekideak eta ekainaren hasieran kaleratu zuten *Bizi zauri bizi, bi lore txiki, bi harribitxi* izeneko lana; hori aurkeztuko dute domekako zuzenekoan.

Hain justu, apirilaren amaieran hasi zituzten kioskoa eraberritzeko lanak, espazioa erabilgarriago bihurtu zedin, Udala

Gobernuaren hitzetan "herrian behar bat baitzegoen kioskoa erabilera zabalagoa" izateko, eta, hala, "egiten diren ekintzei probetxu handiagoa ateratzeko".

Eginiko lanei dagokienez, ebaiki bat egin dute jatorrizko eskaileretan, eta bederatzi metroko ahoa duen agertoki bat du plazarantz; horrez gain, lehen kioskoak alboetan zituen loreon-

Herriko bandera eta gutuna jasoko ditu Jose Luis Elkorok

EH Bilduk alde eta EAJK aurka bozkatu zuten, jeltzaleen aldaketa proposamen bat ez zelako onartua izan

A.R.K. ANTZUOLA

Herri gutuna eta herriko bandera jasoko ditu Jose Luis Elkorok Unamuno bergararrak irailaren amaieran, Mikel Zubimendik idatzitako *Han egon zen. Jose Luis Elkorok, bizitza*

bete bat liburuaren aurkezpenean, herri gisa Elkorori "zerbait berezia" egiteko asmoa baitu Udala Gobernuak.

Elay eta Oerlikon enpresak sortzeko eginiko urratsengatik jasoko ditu oroigarriak, "horrek

Antzuolari emandako aberastunarengatik eta Antzuolaren izen ona munduan zabaltzeagatik". Are gehiago, eremu horietan euskararen auziak izandako garrantzia ere azpimarratuko dute ekitaldian: "Zenbait antzuolar euskaldundu dira bertan, horrek Antzuolarendako eta gure hizkuntzarendako izan duen garrantziarekin".

Erabakia, osoko bilkuran


Ekainaren 27an eginiko osoko bilkuran hartu zuten herriko

tziak kendu egin dituzte, eta jarri eta kendu daitezkeen barandak instalatu dituzte perimetro osoan. Beharra dagoenean erabili daitezkeen toloak ere jarri dituzte izkina guztietan eta eskaileraren gainean; izan ere, eskaileretan puntualki oholtza bat instalatu ahal da. Azkenik, gorritz margotu dute zorua.

Uztailaren 14an ere musika

Inaugurazioa, ordea, ez da egun bakar batera mugatuko, uztailaren 14an ere kontzertuak izango baitira. Antzuolako Ki.imak


Prest zaudete kontzerturako?



ANTXON ARREGI
LEMAK TALDEKO KIDEA

"Zuzeneko nahiko borobila landu dugu; gogoz gaude"

"Disco berriarekin lehenengo kontzertua izango da Antzuolan, eta badugu gogoia. Azken hilabeteetan landutako kantez gain, aurreko diskoko abesti kuttunenak ere eskainiko ditugu. Zuzeneko nahiko borobila prestatu dugu. Bergaran eta Zumarragan aurkeztu dugu, eta Antzuolako honekin eta Osintxun egingo dugun kontzertuarekin gertukoenen artean diskoa aurkeztuzat emango dugu. Irailtik aurrera beste data batzuk ixten saiatuko gara".



AINHOA ETXEZARRETA
KI.IMAK TALDEKO KIDEA

"Antzuolan inoiz jo gabeko kantuak eskainiko ditugu"

"Oso gogotsu gaude herrian jotzeko, txikitatik ezagutu izan dugun kioskoaren inaugurazioan. Herritarren aurrean jotzea beti da berezia, eta, gainera, Antzuolan inoiz jo ez ditugun kantu propio batzuk eskainiko ditugu; irailen gure lehen lan laburra grabatzen hasiko gara, eta barne izango dituen abesti batzuk aurkeztuko ditugu jendaurrean. Sorpresa bat ere izango da. Aurrerantzean, beste kontzertu batzuk emango ditugu Antzuolatik kanpo, baina entseatzea dugu helburu".

taldea igoko da lehenbizi oholtzara: Ainhoa Etxezarretak eta Nahia Garaikoetxeak osatzen dute, eta euren lehen lan laburra grabatzen hastekoak dira uda amaieran. 19:00etan hasiko da, eta Azkaiter Pelox izango da ondoren agertokian.

HELBURUA KIOSKOA "ERABILGARRIAGO" BIHURTZEAN IZAN DA, "ZABALAGO" IZAN DADIN ERABILERA

gintzan egindako lana ere eredugarria" izan dela.

Proposamena, ordea, ez zen onartua izan, eta, beraz, ezezkoren alde egin zuten jeltzaleek. "Pena da EAJKren ezezkoa, aurrez haiekin egon eta helburua aho batez erabakitzea baitzen", azaldu du Olatz Lezeta Antzuolako alkateak. Haren arabera, aurrez jakinarazi zitzaizkien jeltzaleei aldaketaren bat eginez gero aurrez proposatzeko, Udala Gobernuak azter zezan, baina ez zuten horrela egin.

Txukuntze lanekin itxura aldatua du Azaldegietak

Mahaiak konpondu dituzte atsedengunean, eta egurrezko hesiak jarri dituzte inguruetan, ibilgailuak ez daitezen sartu; horrez gain, zuhaitzak landatuta dauden eremua ere hesitu dute alanbrearekin. Irailaren 22an egingo dute inaugurazio festa

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

Txukunketa lanak egiten aritu dira Azaldegietan auzolanean, iazko abenduan ohartu baitziren autoek atsedengunea "txikitu" egin zutela, Juan Kruz Lizarralde Udaleko Ingurumen zinegotziaren hitzetan. "Astakeria" hura saihestu zedin zer egin pentsatzen aritu ziren, eta hesiak jartzeko erabakia hartu zuten: "230 metro inguru hesi jarri ditugu; itxitura. Zati bat alanbrearekin eta bestea egurrearekin, ez dadin hain takarra izan". Horrez gain, mahaiak berritu dituzte, lehenik zeudenen euskarriak konponduta eta egur berriak jarrita. "Hiruzpalau domekatan egin ditugu lanak; lan txiki batzuk egitea falta da egunotan, bizpahiru orduz, baina uste dut nahiko txukun gelditu dela eremua".

Hain justu, atsedengunea – mahaiak eta iturria dauden lekua – hesitu egin dute egurrearekin eta behealde, berriz, alan-

brearekin; han daude otsailean landutako zuhaitzak, eta ingurune hura babestea ezinbestekotzat jo du Lizarralde, behorrak-eta ez daitezen sartu eta ez dezaten ingurua zapaldu. "Zuhaitz batzuk, ordea, galdu egin dira. Banbuz eta kartoi ekologikoz eginiko babesak jarri genizkien, baina euriarekin eta haizearekin okertu egin dira; agian, kendu egin beharko dizkiegu".

Horrez gain, era horretako beste lan batzuei dagokienez, gaineratu du Trekutzen "momentuz" ez dutela horrelakorik egiteko asmorik, parke eolikoaren proiektua dela eta. Gorlaurin, berriz, konponketaren bat egitea du buruan, baina zehazteko dago.

AUTOEK "TXIKITU" ZUTEN EREMUA; BERAZ, INGURUNEA ERRESPEATZEKO ESKARIA EGIN DUTE

Errespetatzeko deia

Lizarralderen hitzetan, "errespetu faltarengatik" egin dituzte lan horiek, ibilgailuek ingurunea hondatzeagatik. "Hori nabarmentzekoa da: Azaldegietan ez bada, Arrolan da, eta Arrolan ez bada, beste nonbait da: autoak eta motorrak nonahi ibiltzen dira, eta salatu egin behar da hori". Hala, ingurune naturala errespetatzeko eskatu die ibilgailu horien erabiltzaileei, "ibili daitezela markatutako bideetatik, hala ezean sekulakoak egiten baitituzte".

Egun-pasa irailean

Herritarrendako, horrenbestez, erabilgarri dago Azaldegietan. Hala ere, Lizarralde iragarri du inaugurazio festa bat egiteko asmoa duela Udalak, eta eguna ere zehaztuta dutela: irailaren 22a, domeka. "Ekitaldi xumea izango da: asmoa da bazkari bat eta erromeriaren bat-edo egitea, zehaztu gabe dugun arren egitaraua".



HASIER LARREA

Lizarragan Kalebarren garaile

San Martzialgo Jai Batzordeak antolatuta, Lizarraga eta Kalebarren auzoen arteko desafioa egin zuten ekainaren 30ean, San Martzialen. Zaku lasterketan, kaskara-batzean, arrautzaren jokoan eta sokatiran aritu ziren, baina berdinketan amaitu zuten; sokatira egin zuten berdinketarekin hausteko, eta, azkenean, Kalebarrengok eskuratu zuten garaipena.

Salgai daude 'Ez dot moztuko bizarra' bazkariko txartelak

Ez dot moztuko bizarra taldeak herri bazkaria antolatu du herriko jaietako domekarako: uztailearen 21ean izango da, 14:30ean, elizpean, eta salgai daude txartelak. Aitz Garbi tabernan eskuratu daitezke uztailearen 17ra arte: 20 euro balio du txartelak; haurrenak, aldiz, 10 euro. Bazkalostean, Garazi Barrena eta Asier Sala musikari arrasatearren kontzertua izango da.

Horrez gain, Udalak antolatuta, herri bazkaria egingo da uztailearen 19an, eta oraindik txartelak eskuratzeko aukera dago datorren egubakoitzera arte, hilaren 12ra arte. Internet bidez lortu behar dira: labur.eus/5XXXZC.

Alardeko entseguak egingo dituzte datorren astean ere

Uztailearen 19an, egubakoitza, egingo dute Mairuaren Alardea herriko jaietan, eta aste honetan hasi dira danbor-joleak entseguetan; datorren astetik aurrera, ordea, gainontzekoen txanda ere izango da.

Uztailearen 10ean, eguaztena, danbor-joleak eta txistulariak batuko dira Torresoroa aretoan, arratsaldeko sei etan, eta berdin egingo dute mairuaren musikariek zein buruzagiak, mairu erregeak, mairuaren guardiak, estandartedunek, banderadunek eta gastadoreek; horiek guztiak, alabaina, Olanaren elkartuko dira. Ondoren, entsegu orokorra egingo dute Herriko Plazan arratsaldeko zazpitan.

Ibai Larrea laugarren Lavaredo 20K proban, Cortina d'Ampezzon

Dolomitetan, Cortina d'Ampezzo herrian, laugarren postua eskuratu du Ibai Larrea Aranguren korrikalariak; La Sportiva Lavaredo Ultra Trail by UTMB lasterketan, hain justu. Hogei kilometroko proban hartu zuen parte antzuolarrak, eta ordubete, 34 minutu eta segundo bat behar izan zituen mila metroko desnibeletako ibilbidea

egiteko, Nadir Maguet irabazle italiarrarengandik lau minutu eta 26 segundora. Haren hitzetan, lehenengo aldia du Dolomitetan, baina ziur da ez dela azkenengoa izango.

Hain justu, antolatzaileen –La Sportiva– hitzetan, Larreak ekainaren 27an eginiko lasterketa "laburra" da, baina, aldi berean, baita "zitalena" ere, igoera eta jaitsiera teknikoak dituelako. Horrez gain, beste distantzia batzuetako probak daude: 10, 50, 80 eta 120 kilometrokoak.



Azaldegietako atsedengunea, egurrezko hesiak jarrita eta mahaiak konponduta. GOIENA

FERIXA NAGUSIA 2024



Gazte Asanbladako hiru kide herri bazkarian. BEÑAT ARIZABALETA



Urdax Magunazelaia erakustaldian harria altzatzen. ELGETAKO UDALA



Udal ordezkariak eta omendutako herritarrak zapatuko aitortza ekitaldian. BEÑAT ARIZABALETA



Umeak barikuko haur parkean jolasean. AITOR AGIRIANO

Aterpean, baina hasieratik amaierara umoretsu joan dira jaiak

Lau egunez kalean eta festa giroan egin dute topo elgetarrek. Askotariko ekitaldiak, ikuskizunak eta hitzorduak izan dira eta adin guztietako herritarrek aurkitu dute non gozatu. Eguraldiak aurten ez du askorik lagundu, baina euriak ez ditu jaiak zapuztu

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

"Bukatu dira gogoz eta ilusioz antolaturiko herriko jaiak. Eskerrik asko herritar guztioi, boluntarioei eta Jai Batzordean buru-belarri aritu zaretenoi. Zuek barik ez lirateke jaiak posible izango!". Ferixa Nagusiko jaiak amaitu bezain pronto Udalak zabalduzako mezua da. Ondo

eta umoretsu joan dira jaiak, nahiz eta giro euritsuak hainbat ekitaldi baldintzatu dituen. Halakoetan udal pilotalekua izan da herritarren aterpe nagusia eta eguraldi goibelak ez du festa giroa zapuztu. Hala, lau eguneko jaiak ondo baino hobeto aprobetxatu dituzte elgetar gehienek -batzuek beste batzuek

baino gehiago, dena esan behar bada-. Jai Batzordea laster elkartuko da balorazioa egiteko. Batzorde irekia da eta gutxi barru zabalduko dute deialdia.

Gazte Asanbladari dagokionez, bigarren urtez antolatu dute txosnagunea eta harrera bikaina izan du herritarren partetik. "Eskerrak ematera gatzoz aurten

ere jaietan gurekin egon zareten guztiei. Oso eskertuta gaude jasotako laguntza guztiagatik, txandetan zein antolakuntzan denon elkarlana barik ezin izango genukeelako hau guztia aurrera eraman. Eskerrik asko, bihotzez, denei", adierazi dute. Txosnaguneak bere lekua egin du jaietan eta zuzeneko emanaldietarako eszenatokia ipini izanak nabarmen hobetu du kontzertu-gunea. Argiztapena hobetzea izango da hurrengo erronka.

Irudimen erakustaldia hasteko

Urtero moduan, mozorro jaitziera izan da Ferixa Nagusiko jaietako lehen ekitaldia. Errugbilarriak, zirku oso bat, rantxera taldea, urpekariak eta olagarro taldea, baserritarrak, motorzaleak, gaztatxoak, narkotrafikatzaileak, Valentziako fallerak, Elgetako erraketista taldea... Landutako mozorroak izan dira nagusi aurten ere.

Mozorro jaitziera ostean, Xabat Askasibar izendatu zuten alkate txiki elgetarrek, eta Ibon Unzetabarrenetxearen eskutik jaso zuen aginte-makila. "Heldu dira, azkenean, Elgetako jaiak. Datozen lau egunetan gozatze-ko ekintza asko edukiko ditugu. Aprobetxatu, jolastu, dantza egin, barrez lehertu... Ondo pasatzeko egunak izango ditugu. Goazen sortzera denon artean jai giro paregabea. Gora Elgetako jaiak!", esan zuen Askasibarrek.

Esan eta ekin. Erromeria-giro itzela jarri zuen plazan Mugi Panderoa taldeak. Ondoren heldu zen Elgetako Babesgabe taldearen kontzertua txosnagunean.

UMORE ETA IRUDIMEN ERAKUSTALDIA EGIN DUTE AURTEN ERE ELGETARREK JAIETAN



Valentziako fallera taldeak jaso du mozorro onenei emandako bi sarietako bat. ALICIA GARCIA



Beste saria erraketista taldearendako izan da. IRATXE BRAVO



Bi idi pare domekako ganadu azokan. GORKA ARIZMENDIARRIETA



Gazta salmenta postua domekako azokan. BEÑAT ARIZABALETA



Giza dorrea zapatuan. UDALA

Gazte Asanbladak mozorro onenei emandako bi sariak, bestalde, Valentziako fallera taldearendako eta Elgetako erraketista taldearendako izan ziren.

Umeen eta Erretiratuen Eguna

Herri kirolen erakustaldia izan zen barikuan. Irati Astondoa, Ioritz Gisasola eta Urdax Magunazelaia aritu ziren. "Bigarren umea eduki dut urtarrilean. Elgeta plaza ezin hobea da erritmoa hartzeko", esan zuen Astondoak. Magunazelaia ere gustura ibili zen. "Hasieran, plaza apur bat hilda ikusi dut; jendea biharamunarekin egongo zen. Gero, berotu egin da eta oso gustura aritu naiz".

**PINTAKETA
MATXISTAK AGERTU
DIRA SKATE PARKEAN
ETA ANTZOKI
INGURUAN**

Bi herri bazkari izan ziren barikuan: 60 bat erretiratu elkartu ziren gimnasioan eta beste hainbeste ume plazan. Atsedeneua izan zen gaztetxoendako; izan ere, goiz eta arratsaldean lau puzgarri handi izan zituzten frontoian eta beste atrakzio bat kanpoko aldean.

Arratsaldeko talde jolasetan lau talde aritu ziren nor baino nor gehiago herritarren aurrean, eta, askotariko jokoak egin eta gero, Pintxo Pote taldeko lagunek jaso zuten saria: 150 euro. Geurera taldearen dantza bertikalen ikuskizuna frontoian izan zen, euriagatik. Xiberroots taldearen plazako emanaldia, berriz, euripean egin zen.

**JAIETAKO ARGAZKI
ONENAK 100 EUROKO
SARIA JASOKO DU;
LANAK AURKEZTEKO
EPEA ZABALIK DA**

Gauerdia pasata egindako galzontzillo eta kulero lasterketa laburra bezain ikusgarria izan zen. Parte hartzaile gutxi animatu zen, baina ikusleak asko izan ziren. Amets Agirre Osa izan zen azkarrena helmugara heltzen.

Herritarrak protagonista

Herri Egunean herriko bedertzi jaioberririk jaso zuten jaietako zapia udaletxean. Bestetik, eguraldi petralarengatik, frontoian egin ziren kilikien eta erraldoien zein euskal dantzen erakustaldia, baita herri bazkaria ere, 400 bat lagunekin. Ikusmina sortu zuten umeen euskal dantzek, baita udal ordezkarien soka dantzak ere. Udalak, bestetik, herriko gizonezko eta emakumezko nagusienak omendu zituen: Jose Mari Arantzabal eta Kristina Gallastegi. Zapi bana jaso zuten.

Bazkarian herritarrek gogotsu jan zuten Paellas Vicenteko lagunek egindako paella zein Peio

Bilbaok eta konpainiak erretako saiheskia. Ostean, Falcons de Vilafrancako kideek egindako erakustaldiak aho zabalik utzi zituen elgetarrak.

Azoka egun jendetsua

Baserritarrek, artisauek eta abeltzainek azoka dotorea egin zuten domeka goizean. Arratsaldean, berriz, Peña II.ak eskuratu zuen hilaren 7an Nafarroa Arenan jokatzekoa den San Fermin torneoko finalerako txartela, Lasori 22-11 irabazita.

Elgetarrek, orain, jaietako argazki lehiaketan parte har dezakete. 100 euroko saria dago. Argazkiak danonartian@elgeta.eus helbidera bidali behar dira hilaren 7ko 13:00ak baino lehen.

Jaien amaieran heldu dira salatzeakoak diren pintaketak. Emakumeen kontrako mezuak dira, eta gogor salatu ditu Aman-talak talde feministak. "Hainbat txokotan agertu dira lodifobia eta emakumeen aurkako pinta-

ketak. Gure haserrea erakutsi nahi dugu. Ez dugu horrelako jarrera matxista eta lodifoborik onartuko. Gizarte feminista baten alde borrokan eta lanean jarraituko dugu, indarkeriaren eta diskriminazioaren aurka. Gora borroka feminista!", adierazi dute. Elgetako Udala hasita dago pintaketak ezabatzen.

**ION
ANDER
CASTRO
ZABALA**

Era guztietako
aulkien konponketa
Zumezko
artikuluen salmenta

**TAPIZERIA
OROKORREAN**

**943 78 71 65
639 01 69 69**



EAJren udal taldea osatzen duten sei zinegotziak. M.U.

Ez dituztela aintzat hartzen dio oposizioak

Agintaldiko lehen urtearen balorazioa egin du EAJko udal taldeak, eta Udal Gobernuak "oposizioa ikusezin bihurtzeko estrategia" duela dio, besteak beste. Kale Zaharreko eta musika eskola berriko proiektuei lehentasuna ematea ere eskatu du

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Agintaldiko lehen urtearen balorazio idatzia egin du EAJ alderdiko udal taldeak; EH Bilduren Udal Gobernuak duen jarra salatu du, eta "elkarlanaren aldeko apustua" egin.

Estrategia bati erantzuten

Bidalitako prentsa oharrean diote Gobernuak udal taldeak orain arte ez duela "inolako borondatearik agertu akordioetara iristeko, ezta oposizioarekin elkarlanean aritzeko ere. Ez dituzte gure proposamenak kontuan hartzen, aurrekontu itxiak aurkezten dizkigute; hainbat eta hainbat batzorde egiten baditugu ere, proiektu askoren berri prentsaren bidez izaten dugu eta hainbat proiektu ere komunikabideen aurrean aurkezten dituzte batzordeetara eraman ordez edo eraman baino lehen". Hau gaineratu dute: "Bakarrik egongo balira bezala gobernatzen dute, korporazio osoa gonbidatuta gauden herriko ekitaldi eta

jardueren gonbidapenik ere ez dugu jasotzen eta EAJ-PNVk Udalean duen bulegoa ia ezkutatuta dago eta ez da irisgarria".

Aipatutako guztia, jeltzaleen esanetan, "EAJren udal taldearen lana ikusezin bihurtu eta udal talde jeltzalearen lana oztopatzeko estrategia bati erantzuten dio". Eta gaineratu dute elkarlanaren aldeko apustua berresten dutela, "Oñatiren alde lan egiteko".

Kale Zaharra eta musika eskola
Era berean, "aurrekontuetan jasotako eta oraindik hasi ez diren hainbat proiektu lehentasuna" emateko ere eskatu diote EH Bilduren Udal Gobernuari jeltzaleek oharrean. Dio-

**UDAL GOBERNUAK
"BAKARRIK EGONGO
BALIRA BEZALA"
GOBERNATZEN DUELA
ESAN DU**

"irisgarritasuna, etxebizitz-politikak, azpiegituren hobekuntza eta tokiko ekonomia bultzatzea" direla euren jardunaren "lehentasunezko ardatzak" eta gai horien inguruan proposamen ugari egin dituztela: "Betiere, errespetutik eta herritarren beharrei erantzuteko asmoz". Horiematik Udal Gobernuak bakarra onartu duela gehitu dute: "Aldakiñokoa".

Kale Zaharra eta musika eskola ere aipatu dituzte jeltzaleek: "Kale Zaharraren berrurbanizazioa Kale Zaharreko Irisgarritasun Planaren barruan aurreikusita dago, baina plan hori oso zabala da. EH Bilduren Udal Gobernuari eskatzen diogu hirigune historikotik gertuen dagoen zatiari lehentasuna emateko eta aurtan Kale Zaharraren azken zatiaren berrurbanizazioari ekitea". Musika Eskola berriak izan ditzakeen kokapenen azterketa konparatiboa egitea ere eskatzen dute jeltzaleen udal taldeko kideek.



Ikatzez betetako zakuak pilatuta domeka goizean. IMANOL SORIANO

Ikatza zakuetan, ilinti-txondorra egitea da hurrengo asmoa

Txondorraren prozesuak izandako ibilbidearekin eta harrerarekin pozik daude egitasmoko kideak

O.E.G. OÑATI

Pozik daude Txondorraren Bueltan ekimeneko lagunak txondorraren prozesuak izandako ibilbidearekin. Diote asko ikasi dutela eta oso harrera ona izan duela herritarren artean, baita Oñatitik kanpo ere. "Oso giro ona egon da. Herritar asko etorri da ikustera, gazte zein heldu, eta laguntzera eta janaria ekartzera ere bai. Herriaren erantzuna oso ona izan da", dio taldeko Arantzazu Sagarzazu Sakristanek. Orain, "ikasitakoa ahaztu aurretik", beste txondor bat egin gura dute: ilinti-txondorra: "Ondo

egosi barik gelditu den egurra-ekin -batez ere, beheko aldekoa-ekin -egiten den txondorra da ilinti-txondorra". Oraindik ez dute erabaki noiz egingo duten, baina ideia badute buruan.

Azaroan hasitako prozesua asteburuan bukatu zuten, txondor barruan egindako ikatza atera eta zakuetan sartuta; hemezortzi kiloko 150 zakukada egur-ikatz. Denak dituzte salduta dagoeneko: "Jendea etorri zaigu eske". Zapatuan egin zuten euriak ateratzeko lana atzeratu egin zuten, baina lagundu egin zuten, era berean, txondorra hozten.

Uztaileko ordutegia dute kiroldegia eta haur liburutegia

Uztailean sartuta, neguko ordutegia utzi eta udakoa dute Zubikoa kiroldegia eta udal liburutegia.

Kiroldegian asteburuetan igarriko da uztaileko ordutegia. Bihartik hasita, zapatuetan, domeketan eta jaiegunetan 09:00etatik 20:00etara egongo da zabalik kiroldegia; astelehenetik egubakoitzera, berriz, orain arte moduan: 07:30etik 21:30era.

Haurren liburutegia itxita dago hilarren hasiera ezker, eta helduenean egokitu dute txikiendako liburuak eta DVDak dituen txoko bat. Liburutegia 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara egongo da zabalik; zapatuetan, berriz, itxita.

Online ere hartu ahal izango da odola emateko txanda

Hilabete honetatik aurrera, telefonoz ez ezik Internet bidez ere hartu ahal izango da odula emateko, www.gotatanta.eus webgunean sartuta. Data baino hiru egun lehenago egongo da modu horretan egiteko aukera. Hau da, Oñatiri dago-kionez, martitzenean, eguaztenean eta eguenean.

Hurrengo odol emate eguna uztailearen 12a da; beraz, datorren martitzenetik eguenera bitartean ordua online hartu ahal izango da. Hala ere, telefonoz ere egin daiteke, orain arte moduan. Horretarako, egunean bertan, egubakoitzean, deitu behar da, 08:30etik 13:30era, telefono-zenbaki honetara: 943-00 78 84.

LGTBI komunitatearen diagnosia egingo dute

Oñatiko udalbatzak, aho batez, konpromisoa hartu du LGTBI komunitatearen herri mailako diagnosia egiteko. Hor oinarritutako ekintza plan integralak abiaraztea da asmoa, eta lana kolektiboko kideekin batera egitea

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI LGTBI Komunitatearen Nazioarteko Egunari lotuta ekaineko osoko bilkuran EH Bilduk aurkeztu zuen adierazpenak jasotzen du komunitate horren herriko diagnosia egingo duten konpromisoa. Alderdi biek onartu zuten adierazpen hori.

Kolektibo antolatuturik ez

Osoko bilkuraren amaieran Iza-ro Elorza alkateak azaldu zuenez, kolektibo horren herri mailako irakurketa egitea da helburua; zer saretze dagoen, zenbat diren eta zein egoera dauden hobetzeko ikustea. "Aurten egitea zen gure asmoa. Egia esan, berdintasun arloan lan-karga nahiko handiarekin ibili gara eta atzeratu egin da asmo hori, baina ekingo diogu. Diagnosia egitea da asmoa, bai". Komunitate horren kolektibo antolatuturik egun ez dago Oñatin, eta horrek zailtasunak ekar ditzakeela gaineratu du Elorzak; kontaktu zuzenik ez edukitzeak, batez ere.

Baina dio "modu batera edo bestera" diagnosi horri bide ematea dela helburua.

Plan integralak aktibatu

Diagnosiarekin, hor oinarritutako ekintza plan integralak abiatzea da asmoa. "Izango litza-teke politika publikoei dagokie-nez zerbitzuak eta bestelako beharren gabeziak detektatu eta plangintza bat egitea, hobekuntza horiek txertatzeko". Oraindik erabat erabaki gabe dute nola egingo duten prozesua, baina udazkenean hasiko dira diagnosirako lehen urratsak egiten.

LGTBI komunitateak jasaten dituen erasoak gehitzen ari dira, eta "antolatzea eta borrokatzea ezinbestekoa" dela jasotzen du

KOLEKTIBO HORREK HERRIAN ZER SARETZE DUEN ETA HOBETZEKO ZEIN EGOERA DAUDEN IKUSI GURA DUTE

udalbatzak aho batez onartu duen adierazpenak; eta, hain zuzen, horren baitan dator konpromisoa. "Gure kasuan, erakundeetatik politika publiko integral eta sendoak, perspektiba feministan oinarritutako zerbitzuak, babes kolektiborako eta autodefentsarako mekanismoak ezartzeko bideak... ezartzea ezinbestekoa dugu. Anekdotikoak diren politikak alde batera utzi, eta estrukturalak diren horiek erdigunean jartzeko garaia da".

Bestetik, alderdi jeltzaleak Eusko Jaurlaritzaren *Berdindu!* zerbitzuaren adierazpena aurkeztu zuen larrialdi mozioen puntuan. Ez zuen Udal Gobernuaren babesik jaso. Gai bakoitzari buruz adierazpen bakarra onartzea egokiagoa litza-tekeela esan zuen alkateak: "Are gehiago, adierazpen bat aho batez onartu dela kontuan hartuta". EAJren udal bozerra-maileak, berriz, adierazi zuen bi adierazpen aurkeztea ez zuela gaizki ikusten.



Ekainaren 28an ospatu zen LGTBI Komunitatearen Nazioarteko Egunean udaletxean jarri zuten bandera. A.T.



NIRE USTEZ

AINHOA SEMPER GENUA

Kulturak lotzen gaitu

Gorrotza azkar hedatzen den garai hauetan ezagutza eta kulturaren aldeko aldarria egin nahiko nuke. Egun hauetan Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan (Oñatin) Kanadako ordezkari batzuk izan ditugu bisitan, bertan baitaukagu gordeta Kanadako historiako agiririk zaharrena. Bai, hemen, Oñatin daukagu munduko beste puntako herri baten dokumenturik zaharrena. Zehazki, XVI.mendeko testamentu bat da, arrantzale euskaldun batena, Kanadan idatzitakoa.

Eta hau guztia euskaldunok 1980-1990.hamarkadetan jakin genuen atzerritik etorritako ikertzaile bati esker, Selma Huxleyri esker. Dudarik gabe, ezagutzak mito asko apurtzen ditu. Iraganaren ikerketaren bidez dakigu mundua aspalditik guk uste baino konektatuagoa zegoela, jendea orduan ere izugarri mugitzen zela. Baina ezagutza sortzeko ikerketa beharrezkoa da. Artxiboetan informazioa daukagu eta hori aztertuz, agian, oraingoz ezezagunak zaizkigun beste lotura batzuk aurkitu ditzakegu.



OIHANA ELORTZA

Aitortza 'Kalibre' zenari

Gurutze Gorriak hilondoko aitortza egin dio Iñigo Guridi *Kalibre* oñatiarrari, urteetako boluntariotza lanagatik; elkarte horren Euskal Autonomia Erkidegoko zilarrezko domina jaso zuten haren alargunak eta seme-alabek, zapatuan Santa Ana antzokian egin zen ekitaldi hunkigarrian. Elorregiko egoitzaren 40. urteurrena ospatzeko ekitaldia ere izan zen.

San Kristobal eguna ospatuko dute gidariek eguaztenean

Eguaztenean da San Kristobal eguna, eta gidariek, mekanikariek eta, oro har, ibilgailuen bueltan lan egiten duten herritarrek euren zaindariaren eguna ospatuko dute. 19:45erako jarri dute Olabarrieta auzoko santutxuan elkartzeko ordua. Ibilgailuak bedeinkatuko ditu han parrokoak, eta, ondoren, afaria egingo dute Soraluze jatetxean.

Herri Eguneko taberna kudeatzeko deialdia zabalik dago

Herri Eguneko taloen taberna kudeatu gura duten taldeendako izen ematea zabalik dago. Taberna hartzen duen taldearen ardura izango da hura hornitzea eta ustiaketa osoa egitea. Lortutako irabaziak taldearentzat izango dira. Izena emateko azken eguna uztailearen 14a da: 943-78 03 53 zenbakia edo kultura.idazkaritza@onati.eus helbidea.



Aste honetan egin duten sukaldaritzatailerretako bat. IÑIGO BARRENA

Emantzipatzeko bidea egosten ari dira gazteak

Gaztelekuak antolatuta, 16 eta 30 urte arteko hamalau gazte ari dira sukaldaritzatailerrean parte hartzen. Astelehenetan eta astearteetan izaten dituzte saioak Haitzalde elkartearen, eta, datorren asteko bi saioekin emango diote amaiera ikastaroari

Iñigo Barrena OÑATI

Gazteen eta hain gazteak ez diren buruhausteetako bat izaten da kozinatzea eta otorduak prestatzea; are gehiago, emantzipazio garaian daudenean. Behin gurasoen etxetik irtenda amaitzen dira bazkariak eta afariak prestatuak izatearen luxua, eta sukaldeko mantala janzteko ordua iristen da. Pau-

so horretan bidelagun izan guran, Oñatiko gaztelekuak 16 eta 30 urte arteko gazteentzako sukaldaritzatailerra antolatu du ekainaren 17an hasi eta uztailaren 9ra bitartean, astelehenean eta astearteetan, bi ordu eta erdiko zortzi saiotan banatuta; Haitzalde elkartearen egiten dituzte saioak eta datorren asteko biekien emango diote amaiera.

Hamalau gazte izan dira tailerrean izena eman dutenak, eta adi-adi jarraitzen dituzte Aimar Anduaga eta Jon Madina irakasleek ematen dizkieten gomendioak; sukaldaritzatailerra munduan murgilduta dabilta biak, eta begi onez ikusi zuten ikastaroa emateko aukera. "Jonen bitartez iritsi zitzaidan tailerra emateko aukera, eta, lagunak garenaz,

animatu egin ginen. Azken finean, sukaldean ondo moldatzea emantzipatzeko oinarritzko elementua da", dio Aimar Anduagak.

Oinarritzko sukaldaritzatailerretako

Zortzi eskolatan banatutako hogeitau orduko ikastaroa da ematen ari direna, eta aldi bakoitzean zerbait ezberdina egiten edo prestatzen erakusten die, eta, horrez gain, sukaldarako gomendagarriak izan daitezkeen aholkuak eman ere bai. Dena dela, tailer horretan ez dute Michelin izarririk duen sukaldaritzarik egiten; oinarritzkoa eta egunerokotasunean baliagarria izan daitezkeen sukaldaritzan trebatzen dira: "Arroza, lekaleak, pasta, haragia, arraina... Oinarritzkoak diren jakiekin trebatzen gara. Denetariko saltsak ere egin eta probatu ditugu. Hasierako saioetan, berriz, erosketak non eta nola egin gomendio batzuk eman genituen, eta kozinatzen ari garenean izan ditzakegun arriskuen berri eman ere bai", adierazi du sukaldari oñatiarrak.

Ikasitakoa etxera

Parte hartzaileen artean ikastaroari buruz galdetuta, aukera "ona" dela azpimarratu dute, eta Anduagak aitortu du hasieran beldur pixka batekin iritsi ziren arren, ikasitakoa etxean egiten saiatzen direla: "Batzuk esperientziarekin eta beste batzuk gabe etorri ziren. Hasieran kosta egin zitzaien, baina dagoeneko oinarri bat badute eta fin ari dira. Gainera, batek edo bestek kalean esan dit plater hura edo bestea egin duela; beraz, aholkuak etxera eramaten dituzten seinale da hori". Saio bakoitzaren amaieran, prestatutakoa etxera eramateko aukera izaten dute ikasleek.



LEIRE ZABARTE
PARTE HARTZAILEA

"Gauza berriak ikasteko eman nuen izena ikastaroan, baina arrazoi nagusia egunerokoan kozinatzen egiten ditudan akatsak hobetzeko izan da; uste dut hor dagoela kozinatutakoa ondo prestatzearen gakoa. Dagoeneko jarri ditut hemen ikasitakoak praktikan etxean, eta ondo moldatu naiz".



HARITZ AZURMENDI
PARTE HARTZAILEA

"Duela urte eta erdi emantzipatu nintzen eta aurretik ez nuen ohitura handirik sukaldean aritzeko. Orain, askoz gehiago aritzen naiz sukaldean, eta gustua ere hartu diot hari. Bakarrik bizitzera joaten zarenean beti gauza berberak prestatzen dituzu, eta ikastaro honek errezeta eta plater berriak ikasteko aukera ematen digu".

Denetariko filmak uztailean zehar martitzenetan

Aurten ere *Martizinemak* izango dira uztaileko martitzenetan Antixena gaztetxearen kanpoaldean, gaueko hamarretan. Asteon proiektatu dute lehena, *Le Havre*. Hurrengoak, hurrenez hurren, honako hauek izango dira: *Little miss sunshine*, *Germinal*, *La haine* eta *20.000 especies de abejas*. Filmekin gozatzeko, palomita jarriko ditu gaztetxeak.

Vulcanizadas taldea hurrengo Kalean egitasmoan

Ekainaren 19an hasi zen Kalean egitasmoaren denboraldi berria, eta zazpi ikuskizunetatik hiru egin dira dagoeneko: Oñatiko musika eskolako ikasleen emanaldia, *Txakolinaren ospakizuna* eta *Leiho afganiarrak* ikuskizuna. Laugarrena, Vulcanizadas taldearen kontzertua, datorren eguaztenean izango da, 19:00etan, San Lorentzoko ermitan.

Bluesa eta soula lantzen dituen taldea da eta 2023an entsegu-lokaletik irten eta kontzertuak ematean hasi ziren. Era berean, kontzertuak ematen hastearrekin batera, hamaika abestiz osatutako lehen diskoa kaleratu zuten: *Vulcanizadas*. Elsa Garcia –saxofoi tenorea–, Izaskun Simon –saxofoi altua–, Jone Ibarretxe –ahotsa eta baxua–, Nerea Arrieta –ahotsa eta teklatura– eta Virginia Fernandez –ahotsa eta bateria– musikari bizkaitarrek osatzen dute taldea.

Kiroldegiko ekintzetarako izen ematea zabalduko da

Datorren ikasturteko kiroldegiko igeriketa eta fitness ekintzetako izena emateko epea zabalduko dute hilaren 10ean. Egun horretan hasi eta uztailaren 31ra bitartean, aurreko ikasturtean ekintza horietan aritu direnek izango dute lehentasuna. Abuztuaren 1etik irailaren 8ra, berriz, izen-emate irekia izango da erabiltzaile guztientzat.

Taldeak osatzeko orduan, igeriketako ekintzetan gutxienez hamar pertsonako taldea eta gehienez hamabikoa izango da. Fitness ekintzetan, berriz, gutxienezko taldeak hamar pertsonakoa eta gehienez hamazortzikoa izan beharko da; *fit bike*-an gehiengo 28koa izango da. Gutxienezko partaideak lortu ezean, ekintzak bertan behera geldituko dira. Kiroldegia webgunean, *zubikoa@onati.eus* helbidean edo 943-71 63 75 zenbakira deituta eman ahalko da izena.



Udazabal

2024 Ekainak 28 Uztailak 30



Ekainak 28 | 22:30ean
Monterron parkean kontzertua

ARRASATE
musikal
BigBand



Eguraldi Txarrekin:
Amala antzokia



Uztailak 16 | 19:30ean
Seber Altube plazan

**"Lanean jarraitu
75 urte arte"**

Borsanti (Euskal Herria)



Eguraldi Txarrekin:
Biteri plazan



Uztailak 4 |
Monterron parkean urban jaialdia

Egurhotza



Uztailak 18-21 |
Hainbat lekutan kontzertuak

**ARRASATE
BLUES**



Uztailak 5,6 |
Monterron parkean rock jaialdia

MONDRA & ROLE



Uztailak 23 | 19:30
Seber Altube plazan (haur antzerkia)

artilusio

Morkeline (Euskal Herria).



Eguraldi Txarrekin:
Biteri plazan



Uztailak 9 | 19:30ean
Seber Altube plazan antzerkia

TROIA

Kanikoz (Euskal Herria)



Eguraldi Txarrekin:
Biteri plazan



Uztailak 27 | 22:00etan
Monterron parkean, kontzertua

Las Osinadas



Eguraldi Txarrekin:
Amala antzokia



Uztailak 12 | 20:00etan
Monterron parkean kontzertua

FERRARIA



Eguraldi Txarrekin:
Amala antzokia



Uztailak 30 | 19:30
Monterron parkean kontzertua

Ad Hoc Vakantieorkest
(Holanda)



Eguraldi Txarrekin:
Amala antzokia



Urre koloreduna irabazi dute

ATLETISMOA Espainiako aire libreko txapelketan lehenengoz irabazi dute urrea. Malen Ruiz de Azua arrasatearrak 4,35eko saltoa egin du pertikarekin eta Andoni Calbano bergararrak Real Sociadadeko taldekideekin 4x100 metro txandakako proba irabazi du

Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE

Asteburuan Alacanten jokatu duten Espainiako txapelketatik urrezko domina ekarri dute etxera Malen Ruiz de Azuak (Arrasate, 1995) eta Andoni Calbanok (Bergara, 2000), baina euren egunerokoa ez da askorik aldatu. La Nuciatic bueltan, biek ala biek normaltasunez ekin diote asteari. Ruiz de Azua, esaterako, Athloneko bulegoan harrapatu du deiak. "Domekan 11:00etarako Arrasaten nengoen -txapelketa zapatu iluntzean izan zuten-. Hegazkinez egin genuen bidaia, eta pertikak han utzi genituen, asteburuan autonomien arteko Espainiako txapelketan izango naizelako. Egia esan behar badizut, kirol erronkei dagokienez burua dagoeneko oporretan daukat, atsedean hartzeko beharra daukat eta azken txapelketa honetara... Tira, selekzioarekin dugun konpromisoa da eta bertan egongo gara, lana ahalik eta ondoen egiten saiatuko gara, baina bai, neurri handian, onena eman dudala sentitzen dut".

Arrasateko atletari kosta egin zaio Espainiako txapelketan- aire librean- urrea eskuratzea. "Ez dizut esango urrea eskuratzeko antsietateak jota nengoenik [Barre], baina, neurri batean, kirol ibilbidea borobiltzeko falta zitzaidan lorpena zen. Kategoria txiki guztietan izan naiz Espainiako txapelkun; pista estalian hainbatetan lortu izan dut, baina aire librean domina hau falta zitzaidan. Asteburuan lortutako emaitza honekin neure buruarekin lasai geratu naizela esan dezaket".

4,35eko markarekin

Zapatuan La Nuciako atletismo pistako baldintzek dezente bal-

dintzatu zuten proba; bereziki, haizeak. Pertika-jauzilariak, esaterako, ez ziren gustura lehia-tu, ezta abiadura probetako atletak ere. Pertikan, esaterako, Malen Ruiz de Azuak urrea irabazita zeukala jakinda ere marka pertsonalaren bila joateko aukerak zituen, baina haizeak alde batetik jotzen zuen, eta baldintza horietan zaila da onena ematea. "4,35ekoa lehenengo saiakeran egin nuenean lasaitu egin nintzen, banekien Monika Clementeri eta Andrea San Joseri kosta egingo zitzaiela marka hori gaintitzea, eta euren saltoen zain egon nintzen -ordurako Maialen Axpe 4,20an geratuta zegoen-. Txarrena da zain egote horretan hotz geratzen zarela, eten asko izaten ditugu salto batetik bestera, eta garbi ikusi nuen urrea poltsikoan izanda ez nuela marka pertsonala egiteko saiakerarik egingo. Baldintzak ez ziren onak, eta min hartzeko ere... Oraindik hiru saiakera egin nitzakeen, baina Jonatan Perez entrenatzaileari ere ordurako esanda nion kosta egingo zitzaidala ostera txapelketan sartzea, hor geratuko nintzela". Eta halaxe gertatu zen, Clemente eta San Jose ez ziren izan kapaz salto hobia egiteko, eta Ruiz de Azuak, azkenik, maila absolutuko urrezko domina jantzi zuen podiumean.

Esan moduan, asteburuan eszenatoki berean izango da autonomien arteko txapelketan,

**MAILA ABSOLUTUAN
LEHENENGOZ JANTZI
DUTE URREA
CALBANOK ETA RUIZ
DE AZUAK**

baina estres txikiagoarekin: "Lasaiago ibiliko gara; helburu nagusia Espainiako txapelketa absolutua zen, eta oraingo asteburukoarekin denboraldia amaitutzat emango dugu, atsedean hartzeko ordua izango da".

Calbanok ere urrea

Andoni Calbano bergararra ere urrezkoarekin itzuli da La Nuciatic, baina hari ere ez zaio egunerokoa askorik aldatu; Espainiako txapelkun izanagatik ere, lanean jarraituko du uztailean, denboraldia agurtu aurretik 100 eta 200 metroko lasterketan marka pertsonala ondu nahi du eta. Domekan, baina, ondo ospatu zuen Realeko taldekideekin 4x100 metroko txandakako lasterketan eskuratutako urrea. "Sekulakoa izan zen, emozio handiko egunak izan dira. Domekan bertan Benidormera jaitsi ginen, eta txapelketa amaieran egiten den jaian ospatu ahal izan genuen lorpena. Ni neurrian ibili nintzen, oraindik ez dudalako denboraldia amaitu, baina hainbat hilabetez parrandarik egin ez duten atletak batzen dira bertan, eta giro polita egoten da".

Calbanok urrea irabazi zuen txandakako lasterketan, eta lehenago, 200 metroko lasterketan laugarren sailkatu zen. "Pozik geratu nintzen finalerako sailkatu eta laugarren sailkatu nintzelako (20.98). Txapelketa aurretik, seigarren postuan nengoen rankingean, eta urtean zehar erregularra izan banaiz ere ez dut lortu txapelketa bikain bat egin eta marka pertsonala (20,77) ontzea; alde horretatik, ez da urte ona izan. Horregatik, laugarren postuarekin pozik geratu nintzen, baina, noski, oraindik



Ruiz de Azua, podiumaren erdian, zapatuan La Nuciatic. SERGIO MATEO



Calbano, ezkerretik bigarrena, Realeko taldekideekin. SERGIO MATEO

pastelaren ginga geratzen zen". Eta ginga hori txapelketako azken lasterketetako batean etorri zen, domeka gauean jokatu zuten 4x100 metro txandakako proban. Realeko laukoa osatu zuten Javier Mariscalek, Andoni Calbanok, Joseba Larraurik eta Daniel San Juanek, eta klubeka txapelketa horretan egin den inoizko hirugarren marka onena eginda (39.62) irabazi zuten urrea. "Ederra izan zen, ez genuen halakorik espero. Taldean lasterketa aurretik denetariko iritziak genituen, eta, akaso, ni nintzen baikorrena, uste nuen lan ona egin genezakeela. Izan ere, iaz oso gertu izan genuen urrea,

eta aurten ere onenen gertu ibili gara".

Historiarako marka bat

Realekoek lasterketa ikusgarria egin zuten. "Urreak sekulako ilusioa egin zidan, baina bereziki markatza hori egin izana da garrantzitsua. Puntako taldeak utzi genituen atzean, Espainiako selekzioa osatzen duten korrikalariak zeuden tartean, eta, hala ere, irabazi egin genuen", dio bergararrak. Gainera, txandakako modalitatea ez dute entrenatzen: "Ez, oso zaila da hori entrenatzea, motibo askorengatik. Egia da ligan hiru lasterketa inguru egingo genituela txandakakoak, eta hori



Carrascal, saltoetako batean. S. MATEO



Maialen Axpe langa gainditzen. S. MATEO

izan da gure entrenamendua. Izan ere, azken orduan erabakitzen dute zein izango den Realeko laukotea, ordura arte lortutako marken arabera erabakitzen dute hori, eta denboraldian zehar ez dago jakiterik egun konkretu horretan nor hartuko duen parte lasterketan. Egia da teknika aldetik beti dagoela testigu aldaketak lantzeko aukera, baina benetako hobekuntza egiteko lan handia egin behar da, eta horrenbeste lan egin barik ere bistan geratu da ondo moldatzen garela".

Lanean jarraitzeko asmoz

Esan moduan, datozen asteotan Calbanok lanean jarraitzeko asmoa du: "Marka pertsonalak hobetzeko moduan ikusten dut neure burua, badakit nire hantketan abiadura hori badaukadala, eta saiatu gabe ez noa denboraldia agurtzera". Hala, uztailaren 11n egingo du lehenengo saiakera, Donostian. "Markak egiteko txapelketa bat prestatu dugu, eta 100 eta 200 metroko lasterketak egingo ditut. 100 metrokoan 10.42ko marka daukat eta 200 metrokoan, 20.77 -Euskadiko inoizko marka onena da-. Lehenengo, 100 metroko lasterketa egingo dut, eta ordu-

AXPE ETA CARRASCAL PODIUMETIK KANPO GERATU ZIREN; EZ ZUTEN AMESTUTAKO TXAPELKETA EGIN

betera egingo dugu 200 metrokoa. Dena pentsatuta dago: lehenengo, 100 metroko lasterketa hori erabiliko dugu, 200 metroko probara begira ondo berotzeko. Eta helburua lortzen ez badut, uztailaren 20an beste aukera bat izango dut, Santanderren".

Dominetarik urrun

Txapelketan egon ziren Maialen Axpek (Arrasate, 1993) eta Eneko Carrascalek (Arrasate, 1999), berriz, ez zuten amestutako parte-hartzea izan. Axperi iaz pertika-saltoan lortutako urrezko domina defendatzea zegokion. Bedoñakoa pista estalian lehiatu gabe egon eta gero aire librean bere mailara gerturatzen zebilen -4,30 egin zuen Madrilen ekainean-, baina Espainiako txapelketa hirutan irabazi duen atletak ezin izan zuen nahi moduko lan-saioa egin, eta 4,20ko saltoarekin agurtu zuen txapelketa, seigarren postuan.

Eneko Carrascalek ere ez zuen nahi moduan gozatu salto hirukoitzean. Lesioengatik ahazteko moduko bi urteren ostean, neguan zilarra jantzi zuen pista estalian eta errekueratuta zegoela erakutsi zuen. Gainera, aire librean Realeko atletak ekainean 16,14ko marka egin zuen -rankingean hirugarren marka onena-, eta bazekien gorputzaldi politean zegoela. Baina domekan ez zuen nahi moduko eguna izan eta bosgarren postuarekin konformatu behar izan zuen, 15,78ko saltoa eginda. Lan-saioko lehenengo saiakeran egin zuen marka hori.

Udako Master Laborala izango da andramaixetan

PILOTA Astean aurkeztu duten txapelketa Aretxabaletako Iturrigorri pilotalekura iritsiko da abuztuaren 15ean (17:00); Debagoienekoak daude torneoan

X.U. ARETXABALETA

Irailaren 15era bitartean Udako Master Laboral Kutxa torneooa jokatu dute hamasei herritan; tartean, Aretxabaletan. Txapelketa barruko jaialdia andramaixetan jokatu dute, Iturrigorri, 17:00etan hasita. Finala Donostiako Atano III.a pilotalekuan jokatu dute -ETBk zuzenean emango du-, eta finalerdiak Galdakaon eta Zarautzen daude iragarrita; biak, irailaren 15ean.

Hamar pilotari, bost bikote

Gainera, txapelketan egongo diren pilotarien berri ere eman zuten aurkezpenean. Parte-hartzaileak lehen mailako hamar pilotari izango dira: Larrarte-Mendizabal, Aldai-Oses, Etxe-



Aurkezpen ekitaldia. EMAKUME MASTER CUP

garai-Gaminde, Arrizabala-ga-Bergara eta Garai-Capellan; bikote orekatu eta lehiakorrek bostak ere. Pilotariak gustura agertu dira aurretik duten uda ilusionagarriarekin. Antolatzaileen aldetik, Iker Amarika Ema-

kume Master Cup zirkuituko arduraduna ere oso gustura dago prestatu duten lehen mailako programazioarekin: "Uda betea daukagu eta pilotariak asko gozatu dute aurtengo txapelketarekin".

Ulma Challengeko bigarrena, domekan

TXIRRINDULARITZA Kadete eta gazte mailetako neskek lan-saio bikoitza izango dute etzi; goizean kronoigoera (11:00) eta arratsaldean 62 kilometroko lasterketa (16:00)

X.U. OÑATI

Ulma Challenge lasterketako bigarren edizioa egingo dute domekan, goiz eta arratsalde. Izan ere, goizekoa bi kilometroko erlojupekoa izango da, eta arratsalderako Aloña Mendiko antolatzaileek 63 kilometroko errepideko lasterketa prestatu dute.

Iaz, Ulma Challengeko lehenengo edizioa Bergara eta Oñati artean antolatu zuten, eta oraingoan Oñatin batuko dira bi probak. Izan ere, Euskal Herri mailan ez dago kadete eta junior mailetako ziklistendako halako ezaugarriarik duen probarik. "Eta garrantzitsua da halakoak egotea, bereziki emakumezkoetan ez gaudelako horrenbeste ziklista, eta ikusga-



Ulma Challengeko irteera, iaz. GOIENA

rritasuna ematen laguntzen dute", adierazi dio GOIENARI etxean lehiatu ahal izango den Igamo Packaging taldeko ziklista Madidi Oleagak.

Bi kilometroko igoera

Esan bezala, goizean erlojupeko proba izango dute -1,9 kilometro-. Ziklistak herrigunetik Garagaltza auzoraino igoko dira. "Tartean badaude malda gogorrak, baina baita errekueratze tartear ere, eta estrategiak pisua izan dezake". Eta arratsaldean 62 kilometroko lasterketa izango dute: "Oñati eta Bergara artean pare bat joan-etorri egingo ditugu, eta bietan Santipillauko maldak igoko ditugu. Bigarren igoera erabakigarria izango da".



Cock Sparrer taldea, 2022ko Mondra&Roll jaialdian eman zuen kontzertuan. IMANOL SORIANO

Soinu urbanoen lekukoa hartuko du hirugarren Mondra&Roll jaialdiak

Eskualdeko eta nazioarteko hamalau talde izango dira Monterron parkeko agertokian gaur eta bihar, Mauka Musikagintzak, Jimmy Jazz aretoak eta HFMN Crewk, Arrasateko Udalaren laguntzarekin, antolatu duten hirugarren Mondra&Roll jaialdian

Aitziber Aranburuzabala Juldain ARRASATE

Aspaldiko marka da punk, rock eta oi! estiloa eskualdeko musika eszenan, eta oraindik ere indar handia du, entsegu-lokaltan dauden taldeei eta kale-giroan musika hori aukeratzeko duten zaleei begiratuta. Haien guztien topagune izango da asteburuan Monterron parkean egingo duten hirugarren Mondra&Roll jaialdia. Sare sozialetan eta leihatilan daude sarrerak eskuragarri.

"Txikitasunetik" eta "mimoz"

Bi eguneko egin zuten lehenengo aldian, eta egun bat gehitu zioten iaz, Manu Chao eta Eire talde gaztea gonbidatuta domekarako. Pauso bat gehiago eman nahi izan dute antolatzaileek hirugarrenarekin, eta, azpiegiturak baliatuta, Egurhotza mu-

sika urbano jaialdia egin zuten atzo, eguena, agertoki berean.

Bogan daude jaialdiak, askotariko tamaina eta aurrekontuetakoak, baina Mondra&Rollek "gertuko jaialdia" izateko apustuarekin jarraitzen du. "Urtean zehar askotariko ekitaldietan elkarlanean jarduten dugun lantaldea gara, eta horrek, kartel esanguratsuz gain, bihotza duen jaialdia bideratzeko aukera ematen digu. Musikariak eta publikoak ere eskertzen dute hori; bada, hor dago gure jaialdiaren marka", dio antolatzaile taldeko Iker Arronizek.

"ASKOTARIKO TALDEEKIN 'LINE-UP' POLITA OSATZEA DUGU HELBURU"

IKER ARRONIZ, ANTOLATZAILEA

Hamalau kontzertu bi egunean

Aurreko aldien ezaugarriak eutsiz, punk, rock eta oi! eszenako talde beteranoak, horren ezagunak ez direnak eta talde gazteagoak izango dira hirugarren jaialdian; guztira, hamalau talde izango dira agertokian. "Lehenengo alditik buruan genuen Sham 69 gurean izatea lortu dugu, eta oso pozik gaude, talde hori erreferente izan da-eta gure eskualdeko musikariendako eta zaleendako, baina kartel-buru asko daude; aurten bigarren zuzen erorriko diren The Baboon Show eta Cock Sparrer, besteak beste. Disko berria dakarte biek ala biek, oso maitatuak dira Euskal Herrian, eta talde horiek ekartzeko beste talde batzuk ekartzeko bultzada eman digu; esaterako, Erresuma Batuko The Chisel, Bad Nerves eta High Vis. Hamarkada bateko ibilbidea

dute hirurek, bakoitzak bere ezaugarriekin, baina helmuga berera heltzen direnak. *Line-up* edo osotasunean kartel polita egiten saiatzen gara, taldeen arteko sinergiak aprobeztatuta eta bultzatuta".

Nazioarteko gonbidatuen zereendarekin jarraituz, Madball amerikarrak eta Roy Ellis jamaikarra goraiatu ditu Arronizek: "Zuzeneko potentia du Madballek, Freddy Cricien *frontman* itzelarekin eta New Yorkeko hardcore markarekin. Sarritan izan dira Euskal Herrian eta zale asko dituzte hemen; European zehar egingo duten biraren baitan etorriko dira Arrasatera. Ia 80 urte dituen Roy Ellis jamaikarrak gidatzen duen banda ere oso interesgarria da; aurrez aipatutako taldeekin alderatuz, erritmo lasaiagoak edo dantzagarriagoak dituzte ikur; bada, reggaetik gertu dauden doinuekin borobilduko dugu egubakoitzeko egitaraua".

Debagoieneko lau talde

Euskal taldeei tokia egitea hasitapenetatik duten helburua da eta aurten ere hala egin dute. "Punkaren eta oi!-aren bueltan talde interesgarri asko daude Euskal Herrian, eta horren erakusle da Debagoiena. Oñatiko Larru Beltzak taldeak argitaratu berri duen *Inoren itzala* lana aurkeztuko du gaurko egitaraua zabalduko duen kontzertuan. Bergarako Brigade Loco eta Kaleko Urdangak ere esanguratsuek dira euskal eta baita gure mugetatik haragoko musika eszenan ere; horren erakusle da sarritan betetzen dituztela aretoak. Jende asko erakartzen dute egiten dituzten zuzeneko oso biziak. Eta gauza bera esango nuke Arene 6 taldeari buruz; gorantz eta bide onean doaz bizkaitarrak".

Ezin aipatu barik utzi biharko egitaraua zabalduko duen Arrasateko Kontralde talde gaztea. "Sekulako zorzea dugu halako jaialdi bat etxean izateagatik; miresten ditugun taldeak, kanpokoak zein euskaldunak, gertutik ikusteko beste aukera paregabe bat. Eta zer esan, bada,

"GURE EGUTEGIAN GORRIZ MARKATUTA DAGOEN KONTZERTUA DA BIHARKOA"

OXEL ARRIARAN, KONTRALDE TALDEA

Kontzertuak

EGUBAKOITZA

- **18:20 Larru Beltzak** Euskal Herria.
- **19:15 Arene 6** Euskal Herria.
- **20:10 Kaleko Urdangak** Euskal Herria.
- **21:15 Brigade Loco** Euskal Herria.
- **22:30 Madball** AEB.
- **23:45 Sham 69** Erresuma Batua.
- **01:10 Roy Ellis** Jamaika.

ZAPATUA

- **18:20 Kontralde** Euskal Herria.
- **19:15 The Chisel** Erresuma Batua.
- **20:15 Bad Nerves** Erresuma Batua.
- **21:20 High Vis** Erresuma Batua.
- **22:30 The Baboon Show** Suedia.
- **00:00 Cock Sparrer** Erresuma Batua.
- **01:35 Les Testarudes** Katalunia.

Oharra: 17:30ean zabalduko dituzte ateak.

antolatzaileek eman diguten aukeragatik; oso eskertuta gaude. Urduri, baina oso gogotsu, aldi berean, taularen gainean eta azpian dena emateko asmoz. Azkenaldian kontzertu asko egiteko aukera izan dugu, baina Mondra&Rollekoa, duda barik, gorritz markatuta dago aspaldi gure egutegian; horregatik, zerbait berezia prestatu dugu, kanpotik etorriko diren lagunak gonbidatuta", dio Kontraldeko abeslari Oxel Arriaranek.

Oinarrizko arauak

Ohikoa den moduan, parkearen sarrerako postuan trukatu behar da sarrera eskumuturrekoarekin, eta horrek ahalbidetuko du kontzertu-gunetik sartzea eta irtetea. "Ezingo da edanik eta janik sartu -alergikoak salbuesita-, eta arropategirik ez da izango. Bestetik, furgonetentzako, autokarabanentzako eta kanpin-dendentzako akanpalekua izango da Arruena parkean, iazko jaialdian izan ziren zerbitzuekin", gaineratu du Arronizek.

Beste 11 enpresa egin dira Goienakide 44 gara dagoeneko!

Debagoieneko askotariko enpresa, komertzio eta elkarteek ezinbesteko laguntza eskaintzen diote Goienakide proiektuari.

Bidelagun zaitugu, gertukoa eta sinesgarria den euskarazko kazetaritza egiten jarraitzeko. Eskerrik asko! *Zero kilometro* da batzen gaituen distantzia.



JMA
Giltzen fabrikazioa
ARRASATE



ARIZMENDI IKASTOLA
Hezkuntza
ARRASATE



METAGRA
Hotzeko estanzak
BERGARA



SEIN
Industria hornidurak
ARRASATE



UDALAITZ
Auto-kontzesionarioa / tailerra
ARRASATE



GUALBI AHOULKULARIAK
Aholkularitza / Gestoriak
ARRASATE



ITESA
Industria termiko elektrolitiko
BERGARA



ARTZAMENDI ERAIKUNTZAK
Eraikuntzak
BERGARA



PINPILINPAUZA
Konponketak eta jantzigintza
BERGARA



IXOTU GOI
LED material banatzaileak
BERGARA



DURANA HORTZ KLINIKA
Hortz klinika
ARETXABAETA

UZTAILEKO SARIAK



Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: errigora



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE
"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzearen artean egingo da zozketa. Indarrean dagoen LOP 13/1999 legearen arabera, zozketaren diruak zuzenean Goleia Komunikazio Zerbitzuaren bidez automatikoki banatu behar dira. Zozketaren helburua, bakarra da indarrean dagoen sartapenaren gainontzeria. Erakunde bakoitzak bere sariak hain zuzeneko eduki zozketak. Helbide: hertza@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

SORALUZE HOTELA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: uztaileak 9



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



"Goiena app"-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...

GOIENAKIDE KUOTA: 30€

Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



Zure enpresa ere Goienakide egin nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 telefono-zenbakira edo idatzi goienakide@goiena.eus helbidera.

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia



DESKARGATU GOIENA
APLIKAZIOA!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Calpe (Alacant). Abuztu-ko lehenengo hamabostaldirako (astea edo hamabostaldia) oportetarako apartamentua ematen da errentan. Hondartzatik 100 metrora. Bi logela, egongela, sukalde, bainu-egela osoa eta balkoi ederra. Interesatuok deitu edo jarri harremanetan Whatsapp bidez: 655 74 57 97 (Txaro) edo 615 75 98 32 (Jesus)

Eskeintza. 4 logelako pisua alokatzen da Eskoriatzako Aranburuzabala kalean. Bista ederrak ditu eta oso egoera onean dago. Deitu zenbaki honetara: 618 76 34 40

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Igogailua duen bi edo hiru logelako etxe bila ari den familia gara. Lan kontratuarekin. Telefonoa: 632 03 90 28

Bergara. Igogailua duen bi edo hiru logelako etxe bila ari den familia gara. Lanean ari gara. Telefonoa: 645 72 92 87

3. LOKALAK

301. SALDU

Oñati. Estetikako negozio saltzen dut erretiro-gatik. 943 78 01 46

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate eta Bergara. Soziosanitario titulua daukat eta, orduka, pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 670 96 68 08. 641 97 29 77

Arrasate. Emakumea gertu, pertsona nagusiak etxean bertan zaintzeko. Garbiketa lanak egiteko ere prest, orduka. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 79 87 75

Arrasate. Neska arrasatearra, arduratsua eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatzera lagundu edota konpainia egiteko gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 695 73 87 95

Arrasate. Pertsona nagusien zaintzan lan egingo nuke. Asteburuetan lan egiteko prest, etxean bertan bizi izaten edo bestela. 658 92 43 73

Arrasate. Umeak zaindu edo klase partikularrak emango nituzke uztailan. Lehen hezkuntza ikasten dagoen neska arrasatearra naiz. Deitu 688 86 15 00 telefonora.

Antzuola-Bergara. 20 urteko neska naiz. Udan umeak zainduko nituzke. Interesatuok deitu 609 32 73 39 telefono zenbakira.

TABERNARIA

Bergarako Aitonak jatetxean asteburuetarako langilea behar da. Interesatuok utzi curriculum tabernan.

Bergara. Esperientziadun emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Erreferentziak ditut. 666 07 42 98

Bergara eta Arrasate. Neska goizetan orduka garbiketa lanak egiteko prest. 642 37 01 92

Bergara. Urtean zehar, goizez, umeak zaintzeko prest dagoen 18 urteko neska bergararra naiz. Lehen hezkuntza ikasten ditut. 634 43 71 49

Debagoiena. Emakume arduratsua pertsona nagusien zaintzan eta arretan lan egiteko gertu. Asteazken zehar 9:00etatik 16:00etara bitartean lan egingo nuke. Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. 689 50 70 54

Debagoiena. Emakume arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. 632 32 70 13

Debagoiena. Emakumea orduka lan egiteko gertu. Lanean esperientzia dut. Sukaldari-laguntzaile, pisuko zerbitzari edo garbitzaile gisa lan egingo nuke. baita garbitze-erretan ere. Euskara oinarrizko maila. 688 71 08 09

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. Orduka lan egingo nuke. 643 50 56 62

Debagoiena. Emakumezkoa orduka lan egiteko prest. Garbiketa lanetan, jatetxeetan, hoteletan, biltegietan edo sukaldari laguntzaile bezala lan egingo nuke. 643 25 01 17

Debagoiena. Emakumezkoa orduka lan egiteko prest. Garbiketa lanetan, jatetxeetan, hoteletan, biltegietan, harrerara lanean edo sukaldari laguntzaile bezala lan egingo nuke. Ikasketak ditut. 688 76 35 74.

Debagoiena. Goizetan orduka garbiketa edo zaintza lanak egingo nituzke. 651 96 78 69

Debagoiena. Emakumezkoa prest, haurrak edo nagusiak zaintzeko nahiz garbiketa lanetarako. Esperientziaduna. Telefonoa: 602 44 48 98

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 10 urteko esperientzia dut. Legezko agiriak ditut. 632 51 84 14

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaintzeko gertu dagoen emakume arduratsua naiz. Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. 631 43 45 84

Debagoiena. Gizon arduratsua pertsonak zaintzeko gertu. Hamahiru urteko esperientzia eta gomendio onak ditut zaintzan. Kotxea, soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Telefonoa: 662 43 08 54

Debagoiena. Gizonezkoa pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. Orduka lan egingo nuke. 647 55 43 86

Debagoiena. Neska arduratsua eta alai etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egiteko gertu. Asteazken zehar zein asteburuetan lan egingo nuke. Pertsona nagusien zaintzan esperientzia dut. 677 14 64 27.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Soziosanitario ikasketak ditut. 672 96 46 49

Debagoiena. Neska gaztea etxe, taberna edo atarietako garbiketarako egin edota pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Berehalan lanean hasi naiteke. 613 66 91 91.

Debagoiena. Neska gaztea pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. Orduka lan egingo nuke. 643 50 58 27

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka lan egingo nuke. Telefonoa: 642 11 57 74

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edota etxe zein atarietako garbiketarako egingo nituzke. Eraikitzen ere lan egingo nuke. Berehalako prestasuna duen mutil gaztea naiz. Deitu 613 66 10 50 telefonora.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke asteburuetan edota gaueetan astelehenetik ostiralera. Ospitaleetan ere lan egingo nuke, orduka. 647 31 48 17

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumeak opari. Katakumeak oparitzen dira. 643 75 61 56

ZORION AGURRAK



ARETXABALETA

Liher eta Peru Iturbe Unanue

Uztailaren 10an, urtebete. Zorionak, bikote! Jarraitu gure bizitzak oin arte moduan pozten! Muxu potolo bat bakointzantat familia osuan partetik! Asko maite zaitzuegu!



ARAMAIO

Maren Muñoz Lopez de Bergara

7an, 8 urte. Zorionak! Neska handi eta polit bihurtu zara! Musu bat etxeko eta familia osoaren partetik. Aiurren partetik musu super handi bat.



ARRASATE

Ibai Madinabeitia Lasa

Uztailaren 5an, 5 urte. Zorionak, xagutxo! Jada 5 urte! Muxu erraldoia etxekoon partetik!



ANTZUOLA

Leire Biteri Sopalana

Uztailaren 4an, 5 urte. Urte Askotako, Leire! Ondo pasau zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat etxeko danen partetik, batez ere Ainhoaren partetik.



ARRASATE

Ametz Casas Vazquez

Ekainaren 30an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Asko disfrutatu eguna eta patxo potolo bat familia guztian partetik!



ELGETA

Ekain Askasibar Zabala

Ekainaren 28an, 12 urte. Zorionak, Ekain! Ondo pasau eguna eta Jaixak! Patxo handi bat familia guztian partetik.



ARRASATE

Eneko Abarrategi Segura

27an, 13 urte. Zorionak, Eneko! 13 urtetar eta beti bezain zintzoa eta alai izaten jarraitzen dozu. Patxo handi bat familia guztian partetik!



ANTZUOLA

Maule Iparragirre Arietaleaniz

Uztailaren 9an, 2 urte. Zorionak, Maule! Besarkada handi bat etxeko danen partez. Asko maite zaitzuegu!

IMH INGENIARITZA DUALAREN ESKOLA ESCUELA DE INGENIERIA DUAL

Lan Eskaintza

INGENIARITZA ESKOLAKO IRAKASLEA
Irakatsi · Ikertu · Proiektuak garatu

Gure lantaldera batu nahi?

Bidali zure proposamena uztailaren 18a baino lehen.



IMH Campus
Azkue auzoa, 1- 20870
ELGOIBAR (Gipuzkoa)

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Korosti
Inmobiliaria

Bergara: Irizar Ibilbidea
78m², erabilgarri, 3 logela, igogailua, balkoia, trastelekua.
310.000€

Bergara: Urteaga,
184m² erabilgarri, 3 logela, igogailua, jardina, terraza, trastelekua
375.000€

Bergara: Lizaria,
95m² erabilgarri, 3 logela eta terraza patiora, igogailua.
210.000€

Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio gehiago: 

ESKER ONA

**Ramon
Altuna Gardoki**

2024ko uztailaren 3an hil zen, 82 urte zituela.

*Iribarre bat itzali da gure artean
baina berri bat piztu da zeru ederrean.*

Familiaren izenean, mila esker hiletara joan zineten guztioi.

Aramaion, 2024ko uztailaren 5ean.

ESKER ONA

**Jose Luis
Bikuña
Uribeetxeberria**

2024ko ekainaren 27an hil zen, 73 urte zituela.

Jose Luisen azken agurrera gerturatu eta zuen babesa eta berotasuna eskaini diguzuen guztioi, familiaren izenean, bihotz-bihotzez, besarkada bat eta eskerrik asko.

Ondra-meza zapatuan izango da, uztailaren 6an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi, eskerrik asko alde zurretik.

Oñatin, 2024ko uztailaren 5ean.

OROIGARRIA

**Ana Maria
Eraña Errasti**

2024ko ekainaren 29an hil zen, 81 urte zituela.

*Denbora pasa arren,
gurekin jarraituko duzu.*Lagunak.
Eskoriatzan, 2024ko uztailaren 5ean.

ESKER ONA

**Fernando
Hernandez Muñoz**

2024ko uztailaren 2an hil zen, 89 urte zituela.

Bere emaztea: Maria Conde; seme-alabak: Fernan eta Marian; anai-arrebak: Angel (†) eta Dionisia de la Torre (†), Isidro (†) eta Teresa Juaristi (†), Maxi (†) eta Cecilia Agirre (†), Aurea (†) eta Fernando Nieto (†); ezkon anai-arrebak: Luis (†), Manuel (†) eta Juanita Mugica (†); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Mila esker babesa erakusten ari zareten guztioi.

Bergaran, 2024ko uztailaren 5ean.

ESKER ONA

**Dimas
Larrañaga Urrutia**

2024ko ekainaren 27an hil zen, 87 urte zituela.

*Bergaran jaioa,
Bergaran bizia,
Bergaran dago loaren pakean.
Zure familiak beti izango zaitugu gogoan eta ondoan.*

Egun hauetan gurekin egon zaretenoi eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2024ko uztailaren 5ean.

OROIGARRIA

**Javier
Gardoki Ortueta**

2024ko ekainaren 29an hil zen, 80 urte zituela.

*Anbotoko inguruetatik urrundu bazara ere,
beti egongo zara bertan.*

Familiaren izenean, mila esker hiletara joan zineten guztioi.

Aramaion, 2024ko uztailaren 5ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 5 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Zapatua, 6 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Domeka, 7 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Astelehena, 8 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30

Martitzena, 9 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15

Eguaztena, 10 JUNCAY: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99

Eguena, 11 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 5 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

Zapatua, 6 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Domeka, 7 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Astelehena, 8 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

Martitzena, 9 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

Eguaztena, 10 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Eguena, 11 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 5 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

Zapatua, 6 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

Domeka, 7 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

Astelehena, 8 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Martitzena, 9 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Eguaztena, 10 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

Eguena, 11 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SANCHEZ ALVAREZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

HILDAKOAK

Juana Garro Retolaza. Aramaion, ekainaren 27an. 95 urte.**Javier Gardoki Ortueta.** Aramaion, hilaren 29an. 80 urte.**Ramon Altuna Gardoki.** Aramaion, uztailaren 3an. 82 urte.**Florencio Gordejuela Moreno.** Arrasaten, ekainaren 29an. 85 urte.**Maria Teresa Azula San Miguel.** Arrasaten, uztailaren 1ean. 87 urte.**Miguel Angel Domínguez Martínez.** Arrasaten, uztailaren 1ean. 71 urte.**Mari Tere Alberdi Garitano.** Bergaran, ekainaren 30ean. 89 urte.**Fernando Hernández Muñoz.** Bergaran, uztailaren 2an. 89 urte.**Jose Angel Gomez Marin.** Bergaran, uztailaren 3an. 79 urte.**Dimas Larrañaga Urrutia.** Bergaran, ekainaren 27an. 87 urte.**Ana Maria Eraña Errasti.** Eskoriatzan, ekainaren 29an. 81 urte.**Jose Luis Bikuña.** Oñatin, ekainaren 28an. 73 urte.**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
edo eskelak@goiena.eus

- Hileta egunean eskala Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 220 € / Goienakideko bazkideendako 195 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 195 € / Goienakideko bazkideendako 160 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

Oroilore
Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiari curen bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiak izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gudan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Mario, Iban, Maribi eta Cristian

617 44 21 55
BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN

**ARAMAIOKO JAIK**

Sanmartinek asteburuan emandakoaren gaineko erreportaje zabala egingo dute: Mariren jaitsiera, dantza erakustaldia, lehiaketak...

'Hemen Debagoiena' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**MARIA UBARETXENARI ELKARRIZKETA**

Jaurilaritzako bozeramaile eta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu sailburu berriari elkarrizketa.

'Hemen Debagoiena' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**II. ULMA-TXALLENGE ZIKLISMO SARIA**

Kadete eta gazte mailetakoko emakumezko ziklistendako proba bikoitza: erlojupekoa goizean eta errepedeokoa arratsaldean.

'Harmailatik' Astelehena, 19:30, 21:30 eta 23:30

**'DEBAGOIENDARRAK MUNDUTIK'**

Mexikon bizi eta lan egiten duen Gorka Azpiazu oñatiarrarekin egingo du berba Eneko Azurmendik.

'Debagoiendarrak mundutik' Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**JUANTXO AGIRRERI ELKARRIZKETA**

Tolosako arkeologo eta Aranzadiko kidearekin egingo du berba Juan Kruz Lakastak, Arriaundi mendian (Larunbe).

'Elkarrizketa' Eguaztena, 19:30, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 5**ESKORIATZA Gastañuixera irteera**

12-16 urte arteko gaztetxoendako. Bizikletaz edo oinez joateko aukera. Aurrez eman behar zen izena. **Gaztelekuan, 11:00etan.**

ARETXABALETA Aretxarte Jaia

17:00etatik 19:00etara, haurrendako jolasak herriko hainbat gunetan; 18:30ean, Danbayan batukada; eta 20:00etan, Zerendepya taldea. **Herriko kaleetan.**

ARRASATE Mondra&Roll

18:20an, Larru Beltzak; 19:15ean, Arene 6; 20:10ean, Kaleko Urdangak; 21:15ean, Brigade Loco; 22:30ean, Madball; 23:45ean, Sham 69; eta 01:10ean, Roy Ellis. **Monterronen.**

ARETXABALETA UDaren ohiko batzar orokorra

2023-2024ko denboraldiaren berri eman eta 2024-2025ekoaren aurkezpena egingo dute. **Arkupen, 18:30etan.**

ARAMAIO Sanmartinak

Egitarau osoa 14. orrian. **Aramaion, 19:00etan.**

BERGARA The Wynntown Marshals taldea

Berumuga jaialdiaren baitan. Debalde. **Espolioan, 22:00etan.**

ZAPATUA 6**ESKORIATZA Ibilaldi osasuntsua**

Arantza Otaduyk gidatuta, herriko eraikin esanguratsuenak ezagutzeko aukera egongo da. **Ibarrandi museoan, 10:00etan.**

ESKORIATZA Fullkenpo MMA

Borroka txapelketa Txapelketetan esperientziarik ez dutenei zuzendutakoa. **Kiroldegian, 10:00etan.**

ARAMAIO Sanmartinak

Egitarau osoa 14. orrian. **Aramaion, 10:00etan.**

OÑATI Sai arreak behatzen

Arantzazuko parketxearen inguruko harkaitzetako sai arreen bizimoduari eta ohiturei buruz gehiago jakiteko jarduera gidatua. Izena emateko: arantzazu@gipuzkoanatura.eus edo 943-78 28 94. **Arantzazuko Parketxean, 10:30etan.**

ARETXABALETA Larrino auzoko jaiak

11:30ean, kanpai-jotzea; 11:03ean, txosnaren irekitzea; 12:00etan, herri kirolak; 14:30ean, bazkaria; 15:30ean, arratsalde musikatua; 17:30ean, Larrinoko olinpiadak; eta 21:00etan, itxiera. **Larrino auzoan.**

ARETXABALETA Aretxarte Jaia

12:00etan, Suthai batukadaren kalejira; 14:00etan, sagardo kupela; 14:30ean, paella bazkaria; 16:30ean, apar jaiak; 17:00etan, bingo jokoa; eta 19:00etan, DJ Txurru. **Herriko kaleetan.**

ARRASATE Mondra&Roll

18:20an, Kontralde; 19:15ean, The Chisel; 20:15ean, Bad Nerves; 21:20an, High Vis; 22:30ean, The Baboon Show; 00:00etan, Cock Sparrer; eta, 01:35ean, Les Testarudes. **Monterronen.**

BERGARA Bele taldea

Lide Hernandok gidatzen duen taldearen emanaldia. **Beruna urre** bigarren diskoa aurkeztuko dute. Debalde. Eguraldi txarra bada, Seminarixoan. **Usondo parkean, 22:00etan.**

DOMEKA 7**ARRASATE 'Anporretako bira.**

Burdinaren bidea' ibilaldia Debalde. Izena emateko: **Arrasate.eus** edo 943-25 20 00. **Herriko Plazan, 09:00etan.**

OÑATI Ulma Challenge-Oñati saria

Kadete eta junior neskendako. Goizean erlojupekoa eta arratsaldean 63 kilometrokoa. **Foruen plazan, 11:00etan.**

ARAMAIO Sanmartinak

Egitarau osoa 14. orrian. **Aramaion, 11:00etan.**

LEINTZ GATZAGA San Martin eguna

12:30ean, meza nagusia eta 13:00etan, pintxo musikatua eta doke txapelketa. **San Martin auzoan.**

ANTZUOLA Amustei eta Lemak taldeak

Zurrategiko kiosko eraberrituaren inaugurazioa dela-eta. Debalde. **Zurrategin, 19:00etan.**

ASTELEHENA 8**ARAMAIO Sanmartinak Mutrikura irteera**

12-16 urte arteko gaztetxoendako. Mutrikuko igerileku naturalean pasako dute eguna. Aurrez eman behar da izena (688 84 38 21). **Gaztelekuan, 11:00etan**

ARAMAIO Sanmartinak

Egitarau osoa 14. orrian. **Aramaion, 12:30etan.**

BERGARA Ortika eta T.K.M. taldeak

Punk doinuak nagusi. Sarrera, borondatea. **Kartzela zaharrea, 20:00etan.**

MARTITZENA 9**BERGARA 'Welcome and sorry' antzezlana**

Ganso & Cia taldearen eskutik, klasiko handien parodiatik eta haien inguruko estereotipoetatik antzerki-lanbidea erakusten duen kale-antzerkia. **San Martin plazan, 19:00etan.**

ARRASATE 'Troia' kale-antzerkia

Kamikaz Kolektiboaren eskutik, Udazabal egitarauaren baitan. Hiru superheroi protagonista dituen lana. Erika Olaizola, Amancay Gaztañaga eta Iraia Elias dira protagonistak. **Seber Altubena, 19:30ean.**

OÑATI Martizinema

Little miss sunshine filma. Debalde. **Antixena parkean, 22:00etan.**



KUTTUNE

BERGARA Kuttune folk taldea

Bederatzi musikariz osatutako folk banda da, Nerea Quincoces Ochoa perkusionista eta abeslariak sortu eta zuzendua. 2023ko urrian bigarren diskoa atera zuten: *Zer ote da?* Debalde. *Uztailaren 11n, Usondo parkean, 22:00etan.*

EGUAZTENA 10**BERGARA Kafekonpon**

Etzeko tresna txikiak konpontzen ikasteko. *San Joxepe elkartean, 16:00etan.*

BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baserriarren garaiok produktuak erosteko *Oxirondon, 18:00etan.*

OÑATI Vulcanizadas taldea

Blues eta soul doinuak, Kanean egitarauaren baitan. *San Lorentzoko ermitan, 19:00etan.*

ARETXABALETA 'Troia' kale-antzerkia

Kamikaz Kolektiboaren eskutik hiru superheroiren gorabeherak gertutik jarraituko dituzte neska-mutikoen. Debalde. *Kurtzebarri eskolako kantxan, 19:00etan.*

ARETXABALETA Larrino auzoko jaiak

19:30ean, kanpaiak; 20:00etan, meza ermitan; eta 20:45ean, autoen bedeinkapena eta luntxa. Autoa loreekin dotoreen apainduta duenari saria emango diote. *Larrino auzoan.*

OÑATI San Kristobal ospakizuna

19:45ean elkartuko dira herriko gidariak Olabarrietako santutxuan; ibilgailuak bedeinkatuko dituzte han eta afaltzera joango dira gero. *Olabarrieta auzoan.*

ESKORIATZA Pelikula

12-16 urte arteko gaztetxoendako. Pelikula bat ikusiko dute Santa

Lutzian. Nork bere afaria eraman beharko du.

Santa Lutzian, 20:00etan.

EGUENA 11**BERGARA Bergara Oinez**

Udako oporren aurreko azkena egingo dute. *Agorrosinen, 10:00etan.*

ARETXABALETA Portasolgo jaiak

17:00etan, *Emakumeen defentsa pertsonala* ikastaroa; 18:00etan, ur-jolasak; 19:00etan, pintxo-poteoa; 20:30ean, Garazi Eta Sala eta Edu Zardoya taldeak; eta ostean, Radarraren Kontrako II. Lasterketa, Ibarra tabernaren aurrealdean. *Portasolen.*

BERGARA Kuttune folk taldea

Bederatzi kidek osatzen duten folk taldearen emanaldia. Debalde. *Usondo parkean, 22:00etan.*

EGUBAKOITZA 12**OÑATI Odol ematea**

Udako oporren aurreko azkena. Aurrez hartu behar da ordua: 943-00 78 84. *Enpresagintzan, 16:00etan.*

BERGARA Uretako jolas parkea

Debalde. Umeendako. *Seminarixoko karpan, 16:00etan.*

ARRASATE Santa Marinako jaiak

18:00etan, banderak igotzea; 18:30ean, erraldoi eta kilikien konpartsa, eta artisau-garagardoa eta txistor-dastatzea;

19:00etan, txokolate-jana eta pintxo-poteoa; 19:30ean, boloa, auzoko alkatetzatik; 20:00etan, Oscar Duran magoaren emanaldia; eta 22:00 eta, Dj Dani, IXSYIROI eta Dj Etten. *Santa Marina auzoan.*

ARETXABALETA Portasolgo jaiak

18:30ean, gaiteroak, buruhandiak eta erraldoiak; 19:00etan, patata tortilla txapelketa; 19:30ean, txupinazoa; 21:30ean, Pxi&Ekso, Bengo eta Sun's Door erromeria; eta ostean, DJ Maikel Night. *Portasolen.*

BERGARA 'Udako zerua ezagutzen' ekimena

Astronomia ekintza. *Seminarixoan, 19:00etan.*

OÑATI Trianako jaiak

19:00etan, Astotrastoren jaitsiera eta txorimaloak eta erraldoiak; 19:00etan, boliviarrak; 19:30ean, presoen aldeko elkarretaratzea; eta 22:00etan, Osaba Kimu, Andoni Ollokiegi, Lee Lore, DJ Rene eta DJ Kuku. Ordu txikietan, marrazki lehiaketa. *Triana auzoan.*

ARRASATE Femm taldea

Jazzaren eta poparen arteko koktel bat den taldea. Udazabal egitarauaren baitan, eta debalde. Eurria bada, Amaia antzokian. *Monterron parkean, 20:00etan.*

BERGARA John Memeth Blues Band taldea

Berumuga jaialdiaren baitan. Debalde. *Espoloian, 22:00etan.*

ZAPATUA 13**ARETXABALETA Zazpiko futbol txapelketa**

Kuadrillen arteko txapelketa, Portasolgo jaien baitan. *Ibarra futbol zelaian, 10:00etan.*

OÑATI Elkartasun azoka

Hotz Oñati taldeak elkartasun merkatu txikia jarriko du goizean zehar plazan, askotariko produktuekin. *Foruen plazan, 11:00etan.*

ZINEMA**GASTEIZ****FLORIDA****Garfield**

Zapatua eta domeka: 12:00.

Amigos imaginarios

Zapatua eta domeka: 12:00.

Robotia (euskaraz)

Zapatua eta domeka: 12:00.

Del revés 2

Egubakoitza: 17:00, 19:30, 21:45.

Del revés 2

Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 19:30, 21:45.

Del revés 2

Astelehena, eguaztana eta eguena: 17:00, 19:30.

Del revés 2

Martitzena: 17:00.

Memory

Egubakoitza: 19:15, 21:30.

Memory

Zapatua eta domeka: 17:00, 19:15, 21:30.

Memory

Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:30.

Nausicaa: el valle del viento

Zapatua eta domeka: 12:00.

Horizon: an american saga cap 1

Egubakoitzetik eguenera: 17:00.

Kind of kindness

Egubakoitzetik domekara: 20:30.

Kind of kindness

Astelehenetik eguenera: 19:15.

Shayda

Egubakoitzetik domekara: 17:00, 21:30.

Shayda

Astelehenetik eguenera: 19:15.

Shayda

Astelehenetik eguenera: 19:15.

Shayda

Astelehenetik eguenera: 19:15.

Shayda

Astelehenetik eguenera: 19:15.

Shayda

Astelehenetik eguenera: 19:15.

Shayda

Astelehenetik eguenera: 19:15.

Shayda

Astelehenetik eguenera: 19:15.

Shayda

Astelehenetik eguenera: 19:15.

Shayda

Astelehenetik eguenera: 19:15.

Shayda

Astelehenetik eguenera: 19:15.

Shayda

Astelehenetik eguenera: 19:15.

Shayda

Astelehenetik eguenera: 19:15.

Shayda

Astelehenetik eguenera: 19:15.

Shayda

Astelehenetik eguenera: 19:15.

Shayda

Astelehenetik eguenera: 19:15.

Blondi

Egubakoitzetik domekara: 17:00, 21:30.

Blondi

Astelehenetik eguenera: 19:15.

El bus de la vida

Egubakoitza: 17:00, 19:00, 21:15.

El bus de la vida

Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 19:00, 21:15.

El bus de la vida

Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:30.

El bus de la vida

Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:30.

El bus de la vida

Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:30.

El bus de la vida

Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:30.

El bus de la vida

Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:30.

El bus de la vida

Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:30.

El bus de la vida

Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:30.

El bus de la vida

Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:30.

El bus de la vida

Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:30.

El bus de la vida

Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:30.

El bus de la vida

Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:30.

El bus de la vida

Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:30.

El bus de la vida

Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:30.

El bus de la vida

Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:30.

El bus de la vida

Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:30.

El bus de la vida

Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:30.

Fuera de temporada

Egubakoitza: 16:30, 19:00, 21:30.

Fuera de temporada

Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 19:00, 21:30.

Fuera de temporada

Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:30.

Gru 4: mi villano favorito

Egubakoitza: 17:30, 19:45, 22:00.

Gru 4: mi villano favorito

Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 18:45, 21:00.

Gru 4: mi villano favorito

Astelehena, martitzena eta eguaztana: 16:30, 19:00.

Gru 4: mi villano favorito


Eguena: 16:30.

Tres colores: azul

Egubakoitzetik domekara: 19:30.

Tres colores: azul

Astelehenetik eguenera: 17:00.



'Del revés 2' pelikula.

KRITIKA**El cielo rojo**

★★★★★

Zuz.: Christian Petzold. **Herr.:** Alemania (2023). **Aktoreak:** Thomas Schubert, Paula Beer. **Iraupena:** 102 minutu.

Bizitzaren lerroak irakurtzeko zailtasunak**ANTONIO ZABALA**

Leon eta Felix lagunak dira. Felixek argazkiekin lotutako proiektu artistiko bat garatu nahi du eta Leon bere bigarren eleberria idazten ahalegintzen ari da. Lasai lan egiteko eta inspirazioaren bila, basotik eta hondartzatik gertu dagoen etxe batera bizi izatera joango dira. Etxean, ezagutzen ez duten Nadja izeneko neska bat ere badago. Ostean, sorosle bat eta idazlearen editorea ere azalduko dira. Istoria, etxetik oraindik urrun dagoen baina gerturatzen ari den suteak bere garrantzia izango du. Leon bizitzan galduta dagoen pertsonaia da. Oso pertsona harropuzta, mesfidatia eta urruna. Kosta egiten zaio besteekin harremanetan jartzea eta komunikatzea; agian, hark ez dakielako

zehatz-mehatz zer nahi duen. Leon idazlea da, eta, testuak idazten eta irakurtzen ohitura eduki arren, paradoxikoa dirudien arren, benetan zailtasunak ditu bizitzaren lerroak irakurtzen eta haren eta inguruan dauden pertsonen sentimenduak interpretatzen. Horrela, pelikulan elkartzen dira bizitzari zukua ateratzen eta bizitzaz gozatzen ahalegintzen diren pertsonaia eta, bizitzan galduta dagoelako, fikzioaren idazketari lotzen zaion pertsonaia. Zuzendariak neurria hartzen dio istorioari eta hasierako arintasunetik, pausoz pauso, pertsonaien harremanak sendotzen doazen neurrian, dramara hurbiltzen joango da, film indartsua osatzeko.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Eskubide historikoak

1839an, Esparteroren eta Marotoren arteko Bergarako Besarkada Ozaeta jauregiko lurretan gertatu zen, eta Lehen Karlistaldiko gerra amaitu zen. Baina 1841ean, Espartero jeneralak, Espainiako gobernuburu izatera iritsi zenean, Marotorekin hitzartutako foruen bizirautea bertan behera utzi zuen. 1876an, Espainiako Gorteek, Canovas del Castillo presidente zela, foruen erabateko abolizioa onartu zuten eta ez zen ospatu Arrasaten tokatzen zen bilkura.

Uztailaren 2an Arrasaten ospatu genuen Batzar Nagusietako osoko bilkura ibiltaria, eta Maider Morras alkateak 1979an foru erregimena berreskuratutako data gogora ekarri zuen, orduan Jose Antonio Ardanza Arrasateko alkate zela eta bertan aukeratu zela diputatu nagusi berria: Xabier Aizarna.

Foru erregimena Europako sistema demokratikoetako bat da, bizitza publikoan parte-hartzea duena. Gure eskubide historikoak berreskuratu genituen osoko bilkura hartan bost alderdik onartu zuten Batzar Nagusien berreskuratzea, baina Herri Batasunako ordezkariak ez ziren azaldu ere egin. Maider Morras alkateak ez zuen datu hau eman, eta garrantzitsua da jakitea orduan ere HBK herrigintzari uko egin ziola. Bakoitzari berea.

BUKATZEKO



Ribas, Laboratoriumeko erakusketan, automata baten gaineko azalpenak ematen. IDOIA ARANBARRI

Gaur egungo roboten arbasoak ezagutzen

Hamabi automatatza osatutako erakusketari eman dio hasiera asteon Lluís Ribas katalanak Bergarako Laboratorium museoan: 'Automatak: Mekanismo magikoak'; eta irailaren 15era arte egongo da garai bateko roboten sekretuak ezagutzeko aukera

Julen Murua Mesonero BERGARA
Uztailean sartzearekin batera jarri dute martxan *Automatak: mekanismo magikoak* erakusketak Bergarako Laboratorium museoan, eta irailaren 15era bitartean egongo da Lluís Ribas katalanaren lanak bisitatzeko aukera. Mekanika Industrialeko irakaslea da Ribas, eta gaur egungo roboten aurrekoen se-

kretoak azaltzen ditu erakusketan; bertan, automata bakoitza espeka-sistema, pinoi, palanka eta engranaje-sistema konplexuen bitartez animatuta dago. Automaten eraikuntzan "oso jende gutxi" lan egiten duela dio Ribasek, "oso zaila" baita hortik bizitzea; hori dela eta, "desagertutako ogibide bat" dela ondorioztatzen du.



Ribasen automata bat. BERGARAKO UDALA

30 urteko prestakuntza

Duela hiru bat hamarkada hasi zen automaten bilduma sortzeko ideiarekin bueltaka. Orduan sartu zen katalana irakaskuntza munduan, eta maketen bitartez erakusten zien ikasleei "engranaje-sistemek, poleek eta abarrek nola funtzionatzen duten".

Urte hauetan guztietan automaten lanean jardun du Ribasek; hala ere, "teknologia zaharrekin" lan egiten duela esatea gustatzen zaio: "Gauzek nola funtzionatzen duten azaltzeko balio dute. Mekanika eta automatak material oso interesgarria dira niretzat, ikasten ari diren gazteek uler dezaten nola funtzionatzen zuten garai bateko mekanismoek eta nola funtzionatzen duten gaur egungoek. Egia esan, automaten eraikitzen ari naizena gaur egungo roboten iragana da".

Bilduma zabala

Laboratoriumeko erakusketan dozena bat automata egon arren, Ribasek hemeretzi bilduma duela dio: "Hemeretzi ditut etxean, baina hamabi hauek ekarri ditut uste dudalako, alde batetik, automata eskultorikoenak direla; baina, beste alde batetik, uste dudalako automata mago eta ilusionistenak direla. Ikusleekin elkarreragin dezakete, gainera, eta automata bisualenak direla esango nuke". Ribasek ez du gura izan "automaten funtzionatzeko trikimailua" zein den argitu, eta hori guztia ezagutu nahi dutenak gonbidatu ditu "erakusketak ikustera, ikusleak izan daitezkeen magia trikimailu guztiak nola funtzionatzen duen ondoriozta dezaketenak".

MARIA UBARRETXENA

EUSKO JAURLARITZAKO BOZERAMAILEA

GOIENA TELEBISTA, 'HEMEN DEBAGOIENA' SAIOA

UZTAILAREN 8AN, ASTELEHENA, 18:00ETAN, 20:00ETAN ETA 22:00ETAN.

GOIATZ ARANAK EGINDAKO ELKARRIZKETA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

